

ZUGASTI-KEREXETA

SĀLMUDIA



SĀLMUDIA




Lanuebe Bdeunagurdi - 68
SALMUDIA



SALMUDIA

Euskal Biblioteka Labayru



1045025

RELIGIÓN / N. 2059

1968

12 - *Handwritten*
SALMUDIA



ZUGASTI - KEREXETA

SALMUDIA

1968
1. izdevums
1968. gada
1. izdevums
1968. gada

SALMUDIA

[Faint, mostly illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page.]


[Faint, mostly illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page.]

[Faint, mostly illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page.]

konak eta biotzkada xamurrak: pozaldian oju egiteko, atseka-bean intziri, bearraldian eskabide; aulerian kemen eskatzeko, ezbearrean erruki, illun-orduan argi, erori-aldian itxaropen, zalantzan zuzenbide, pekatuan barkapen, grazian iraupen eta maitasun (1). Ori guztia euskeraz, zurea dezun izkuntzan, beste izkuntzek ez bezela, biotzean ikutu goxo egiten dizun, zure amak erakutsitako mintzairan.

Jaungoikoaren aintzarik aundienarako ta euskal-kristauen onerako izango al da gure «Salmudia». Amen.

Zugasti apaizak



IGANDEA

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA - AD MATUTINUM

Otoitzerako deia - Invitatorium

Urte-barruan, lelo berezia ez danean:

Gurtu dezagun Jauna * Berak egin gaitu!

ala

Gu egin ginduan Jauna * Zatozte; gurtu dezagun!

- 94 -

Leloa osorik.

1. Zatozte, gora dezagun Jauna, poz-irrintzi egin dezaiogun salbatzen gaituan Arkaitzari;
2. sar gaitezen Aren aurrera eskerrak emanaz, kantuz ospatuaz.

(1) **GARRANTZI AUNDIKO OARRA.** Ikus azken bi orrietako: "Salmu bakoitza noizko ta zertarako dan egokia".

Leloa osorik.

3. Jaungoiko aundia bait-da Jauna,
jainko guztien errege;
4. bere eskuan dauzka lurreko leizak,
bereak dira mendi-gallurrak;

Leloaren azken-zatia.

5. Berea da itxasoa, Ark egiña bait-da,
bere eskuz egin zuan legorra.
6. Sar zaitetze, auspez gaitezen lurrean,
gure egille degun Jauna onetsiaz.
7. Bera bait-da gure Jaungoikoa
eta gu Aren erria: Ark darabilkian artaldea.

Leloa osorik.

8. Obe entzungo ba'zenute gaur Aren mintzoa:
«Etzazute gogortu biotza, Meriba'n bezela,
Masa-egunean bezela basamortuan.
9. An, zuen gurasoak, nere egiteak ikusiarren,
aztertu ta zirikatu nindutenean

Leloaren azken-zatia.

10. Berrogei urtez nazka eman zidan gizadi arek,
eta ala esan nuan:
«Biotz-okerra da erri au;
ez du ezagutzen nere bidea;
11. orregatik, ziñ egin det, nere asarrean,
ez dirala sartuko nere atsedenean».

Leloa osorik.

Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari;
Asieran zan bezelaxe, orain eta beti,
gizaldi ta gizaldietan. Amen.

*Leloaren azken-zatia.**Leloa osorik.*

Gorasarrea - Hymnus

ANTIFONA 1

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Zoriontsua Jaunaren Izena ausnartzen duan gizona!

Abenduan:

Ara: ba-dator zeruko erregea indar aundiz, atzerriak
salbatzera. Aleluia.

Igoera-aldian:

Aleluia. Arria iraulia izan da, aleluia, illobi-sarreratik. Aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 1 -

1. Zoriontsua gaiztoen asmoari
jarraitzen ez dion gizona,
pekatarien bidean sartzen ez dana,
eta lotsagalduen batzarrean ere esertzen ez dana!
2. aren atsegiña, ordea, Jaungoikoaren legea da,
eta gau ta egun Aren legea ausnartzen du!
3. Ur-ondoan aldatutako zugaitzaren antzeko izango da;
garai egokian dakar fruitua,
eta ostajea etzaio zimeltzen;
eta egiten duan gutzia ondo ateratzen da.
4. Ez orrela gaiztoak; ez orixe!
Aizeak daraman lasto izango dira.
5. Gaiztoak ez dira auzian altxako,
ezta pekatariak ere zintzoen batzarrean.
6. Jaungoikoak zaitzen bait-du zintzoen bidea;
gaiztoen bidea, berriz, bukatu egiten da.

Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari;
Asieran zan bezelaxe, orain eta beti,
gizaldi ta gizaldietan. Amen.

ANT. 1 berriz esan.

ANTIFONA 2

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Serbi ezazute Jauna bildurrez, gurtu ezazute ikaraz.

Abenduan:

Sendotu esku aulak; zaitzte kementsu. Ara: ba-dator gure
Jaungoikoa gu salbatzera. Aleluia.

- 2 -

1. Zer dabilta atzerriak zalapartan
eta erriak alperrik diran asmoetan?
2. Lurreko erregeak alkartu egin dira, buruzagiak altxa
Jaungoikoaren eta Aren Igurtziaren kontra:
3. «Autsi ditzagun Aren lokarriak,
bota dezagun Aren uztarria!»
4. Zeruetan bizi dan Arek irri egiten du;
Jaungoikoak aien bizkar parra.
5. Gero asarre bizian egiten die itz,
bere sumiñean, ikaraz betetzen ditu;
6. «Jarria det nik nere Erregea Sion'en,
nere mendi santuan».
7. Jaungoikoaren erabakia otsegin det;
Berak esan dit: «Zu nere Seme zera;
nik sortu zaitut gaur.

8. Eska zaidazu: erriak emango dizkitzut ondare,
lurraren mugetarañokoa zuretzat.
9. Burnizko aginte-zigorrez erabilliko dituzu,
eta buztiñ-ontzia bezela autsiko».
10. Eta orain, erregeak, zaitzte burutsu,
eta lurreko auzi-egileak ikus ezazute ta ikasi.
11. serbitu ezazute Jauna bildurrez,
gurtu ezazute ikaraz;
12. asarretu ez dedin eta ondatu etzaitzaten.
Aren sumiña bat-batean piztutzen bait-da.
Zorionsuak Arengan babesten diranak!

ANT. 2 berriz esan.

ANTIFONA 3

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Altxa zaitzez, Jauna; salba nazazu, nere Jaungoiko!

Abenduan:

Zaudete alai, poztu guztiak! Ara: ba-dator Jauna galduak
biurtzera. Berak emango dizute aien ordaña. Ber-bera
dator eta salbatuko zaituzte.

- 3 -

2. Jauna! Nere etsaiak bai dirala ugariak!
Zenbat atera zaizkidan aurka!
3. Askok diote nitzaz:
«Orain ez dio laguntzen Jaungoikoak».
4. Zu, ordea, Jauna,
nere babeskiña ta gorabidea zera;
nere burua gallen Zuk daukazu.

5. Jaungoikoari deadarka dei egiten ba'diot,
Ark entzun egiten dit bere mendi santutik.
6. Etzan niteke ta lotaratu ta esnatu;
Jaunak eusten dit.
7. Ez diot bildurrik izango
nere inguruan guda-txabolak dauzkan erri ugaritsuari.
8. Altxa zaitetz, Jauna,
ene Jaungoiko, salba nazazu!
Zuk jo zenituan belarrondoan nere etsaiak,
zuk puskatu gaiztoen ortzak.
9. Jauna, zuregandik dator osasuna,
zure erriaren gañera bedeikapena.

ANT. 3 berriz esan.

ANTIFONA 4

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Jauna, zure Izena bai arrigarria lur guztian!

Abenduan:

*Alaitu zaitetz eta poztu, Jerusalem. Ara: ba-dator zure erregea;
ez bildur izan, Sion, urbil da zure osasuna.*

2. Jauna, gure Jaubea!
Zure Izena bai dala arrigarria
lur guztian!

Zeruen gañeraño jaso zenduan zure aunditasuna.

3. Bularreko umeen agotik

- atera zenduan zuk zure gorapena,
zure etsaien aurrez-aurre,
etsaia ta biurria ezitzeko.
4. Zure eskuak egina dan zerua
eta Zuk egin dituzun illargia ta izarrak ikustean,
 5. zer da gizona, Zu artaz gogoratzeko?
zer gizakumea, Zuk ari aginpidea emateko?
 6. Aingeruak baño doi-doi txikiago egin zenduan,
aintzazko ta argizko koroia ipiñi zenion;
 7. zure eskuak egindakoen jaun ipiñi zenduan,
dana aren oñazpian ezarri:
 8. ardi ta zezen-taldeak,
baita basa-piztiak ere;
 9. aideko egaztiak, itxasoko arraiak,
ur-bideak zear itxasoetan ibilli dabiltzan guztiak.
 10. Jaungoiko gure Jauna!
Zure Izena bai dala arrigarria lur guztian!

ANT. 4 berriz esan.

ANTIFONA 5

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Jauna jargoian dago eseri-ta, zuzenbidez auzi-egiteko.

Abenduan:

*Kristo gure erregea etorriko da. Bera da etorri bear zuan
Bildotsa, Juanek esan bezela.*

2. Biotz-biotzez ematen dizkitzut eskerrak, Jauna,
zure miragarri guztiak otsegiñaz.

3. Zurekin poztutzen naiz eta alaitzen;
eta, Goi-goikoa, zure Izenaren omenez jotzen det soñua.
4. Nere etsaiak atzera egin bait-zuten.
makaldu ta ondatu egin ziran zure aurpegi-aurrean.
5. Epaille zuzena bezela aulkian eserita,
nere auzia ta epaia Zuk aldeztu zenizkidan.
6. Atzerritarrak asarre artu zenituan, gaiztoak ondatu,
ta aien izena bein-betiko ezereztu;
7. etsaia betiko ondamendian erori zan,
aien erriak txautu egin zenituan,
aien izena betiko galdu zan.
8. Jaungoikoa, berriz, betiko eseririk dago,
auzitarako ipiñirik daukan aulkian.
9. Lurra zuzenbidez epaituko du Berak,
erriak zuzentasunez erabilliko.
10. Bera izango da menpekoentzat babes-leku,
larrialdietan iges-leku.
11. Zugan izango dute usteon
zure Izena ezagutzen dutenak,
ez bait-dituzu bertan-bera uzten
zure billa dabiltzanak.

ANT. 5 berriz esan.

ANTIFONA 6

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Altxa zaitetz, Jauna; ez bedi gizona gallen gelditu.

Abenduan:

Ara: Jaunak dio: bereala nator sariarekin, bakoitzari, bere egiteen arauz, ordaintzeko.

- 9 - (II)

12. Jo soñua Sionen esertzen dan Jaungoikoari;
otsegin errietan Aren mirariak;
13. Berak odol-ordaña artzen du, ta gogoan ditu,
etzaizkio aztutzen errukarrien karraxiak.
14. Erruki, Jauna! Ikus nola sumintzen nauten etsaiak;
atera nazazu eriotz-atetik;
15. zure gorapen guztiak zabal ditzadan,
eta zure laguntzagatik poz-izan Siong aateetan.
16. Egin zuten zuloan erori ziran erriak,
ezkutatu zuten sarean, lotuta gelditu, aien oñak.
17. Zuzenbidea egiteko agertu zan Jauna;
eta gaiztoa bere egiteetan ondatu zan.
18. Biur bitez gaizkilleak leizera
Jaungoikoa aztu duten erriak!
19. Beartsurik etzaio Ari aztutzen;
apalen itxaropenik ez da galduko.
20. Altxa zaitetz, Jauna, ez bedi gallendu gizona;
epaituak izan bitez atzerriak zure aurrean!
21. Sar zaiezu bildurra, Jauna,
jakin bezate erriak ez dirala gizakume besterik.

ANT. 6 berriz esan.

ANTIFONA 7

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Zergatik gelditzen zera urruti, Jauna?

Abenduan:

Gabriel aingeruak esan zion Mariari: «Poztu zaitetz, graziaz betea; Jauna da zurekin; bedeinkatua Zu andreen artean».

-9- (III)

- 22- 1. Zergatik gelditzen zera urruti, Jauna?
eta bear-aldietan gordetzen?
- 23- 2. Gaiztoaren arrokeriak zapaldirik dauka zorigabea,
eta asmatu dion azpikeri-sarean lotzen du;
- 24- 3. Gaiztoa arroturik dago bere aundikerian,
diruzaleak madarikatu egiten du Jaungoikoa ta gutxietsi.
- 25- 4. Gaiztoak ala dio arrokeriz:
«ez da kontu artuko didan Jaungoikorik».
- Aren azpikeriak okertu egiten du beti bere jokabideal
- 26- 5. Aienatu egiten dizkio burutik zure irizpideak,
eta arronkak jotzen ditu bere etsaien aurrean.
- 27- 6. Ala dio bere baitan: «Ez det kolokarik egingo;
ez naiz beñere zoritxarreko izango».
- 28- 7. Biraoz, gezurrez eta azpikeriz beterik dauka agoa,
gaiztakeria ta txarkeria gordetzen ditu bere mingañoak
- 29- 8. ate-ondoan jartzen da zai;
errugabea ezkutuka iltzeko;
- Begiak beartsuaren zeletaka dauzka;
30. zai-zai dago bere gordelekuan, leoia zuloan bezela,
bere sarera erakarrita,
zoritxarrekoari lapurtzeko;
- 31-10. makur-makur, kuzkur-kuzkur egiten da,
eta laguntza-gabearen gañera indar aundiz erortzen.
- 32-11. «Jaungoikoari aaztu egiten zaio, — dio bere baitan —
aurpegia estalirik dauka, ezer ez ikusteko».

ANT. 7 berriz esan.

ANTIFONA 8

*Abenduan eta pazko-aldian ezik:**Altza zaitetz, Jaungoiko; jaso zure eskua!**Abenduan:**Mariak ala esan zuan: «Zer da ikaratzen nauan albiste au?
Erregea argitaratuko dedala nere birjintasuna galdu gabe?»*

-9- (IV)

- 33-12. Altza zaitetz, Jaungoiko; jaso zure eskua!
Ez aaztu errukarriakin!
- 34-13. Zergatik gutxiesten du gaiztoak Jaungoikoa,
konturik artuko ez diolakoan?
- 35-14. Zuk, ordea, ikusi egiten dituzu nekeak eta naigabeak,
Zuk begiratu, ta zure eskuetan artzen dituzu,
beartsuak zugan uzten du bere zoria;
Zu zatozkio lagun umezurtzari.
- 36-15. Ausi ezaiozu besoa gaiztoari; artu bere gaiztakerien
eta ezkutatu dedala! [kontua.
- 37-16. Jauna errege da beti;
atzerritarrak aizatuak izango dira lurretik.
- 38-17. Zuk entzun egiten dezu, Jauna, apalen naia,
zure belarria aiengana biurtu,
eta aien biotza sendotu,
- 39-18. umezurtzari ta apalari lagundu egiten diezu,
lurrez egindako gizonak
bildurrik ez dezan berriro sortu.

ANT. 8 berriz esan.

ANTIFONA 9

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Jauna zuzena da ta zuzenbidea maite du.

Abenduan:

*Biotz garbiz irten gaitzen Erregerik aundienaren bidera,
etortzeko bait-dago, ta ez du luzatuko.*

10


1. Jauna det babes;
nolatan esaten didazute:
«Egizu iges mendira, txoriak bezela?
2. Gaiztoak uztaiak estutzen ari dira
eta beren geziak arian ipintzen,
zuzenen kontra illunpetik botatzeko.
3. Oñarriak ondatuta daudenean,
zer egin dezake zintzoak?».
4. Baño, Jauna bere Etxe santuan dago,
Jaunak zeruetan dauka bere jargoia;
Aren begiak begira daude,
Bere begi-niniaz aztertzen ditu gizonak;
5. Jaunak gaiztoak eta zintzoak aztertzen ditu;
gorroto dio gogorkeria maite duanari.
6. Illinti ta azufre-uria botako du gaiztoen gañera,
aize zakarraren zigorra izango dute.
7. Zuzena bait-da Jauna ta zuzenbidea maite du,
zintzoak ikusiko dute Aren aurpegia.

Dagokion antifona esan.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu, Zu Jaun aitortzen zaitugu!
Zu gurtzen zaitu, Aita Betiko, lur osoak!
Aingeru guztiak, zeru guztiak eta Aldun guztiak,
Kerubiñ eta Serapiñ guztiak,
ixildu gabe, diotzute kantari:
Santu, Santu, Santua, Izadiaren Jaungoiko Jauna!
Zeru-lurrak zure aintzaz beterik daude.
Zu goratzen zaitu Apostoluen talde goragarriak,
Zu, Igarleen sail aundiak,
Zu, Martirien gudaritalde zuriak.
Zu aitortzen zaitu lur zabalean dagon Eliza Santuak,
Zu, neurri gabe aundi zeran Aita,
zure Seme gurgarri egiazko ta bakarra,
baita Espiritu Santu ta Pozemallea ere.
Zu, zeruko Errege, Kristo,
Zu, Aitaren Seme betiko,
Zuk, gizona salbatzeko, gizon egiterakoan,
etzenion bildurrik izan Birjiñaren sabelari,
Zuk, eriotzaren eztena garaituta,
fededunai zeruetako erreñua zabaldu zenien.
Zu, Aitaren eskuian eserita zaude, Aitaren argitan.
Sinisten degu epaile etortzeko zerala.
Beraz, lagun ezaiezu, arren,
zure Odol txit baliotsuaz erosi zenituan zure morroiari
Arkitu ditezela zure Santuakin betiko zeruan.
Salba ezazu, Jauna, zure erria,
eta bedekatu zure ondarea.
Zuzen eramaitzazu ta jaso beti-betirako.
Egunero bedekatzun zaitugu,
eta zure izena goratzen degu beti, eta gizaldien gizaldietan.
Arren, Jauna, zaitu gaitzazu egun ontan pekaturik gabe.

Erruki zakizkigu, Jauna, erruki zakizkigu.
 Betorkigu, Jauna, zure errukia,
 Zuregan itxaron degunez.
 Zugan, itxaron det, Jauna; ez nadilla lotsa betierean.



GORALTZAK I — AD LAUDES I

ANTIFONA I

Abenduan eta pazko-aldian ezik:

Aleluia, Jauna da Errege, aunditasunez jantzia, aleluia, aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

—92—

1. Jauna de errege, aunditasunez jantzita,
 Jauna, soñeko ta gerriko al-izatea ipiñita;
 orrela dago sendo lurbira ta ez du kolokarik.
2. Sendo dago betidanik zure aulkia,
 eta Zu betikoa zera.
3. Ibaiak jasotzen dute, Jauna, jasotzen beren otsa,
 jasotzen beren urotsa.
4. Ala ere, ur-aundien otsa baño areago,
 itxasoko olatuak baño altsuago,
 altsuagoa da Jauna zeruan.
5. Zure aginduak leialak eta ziurrak dira;
 eta zure etxearen santutasuna eder da, Jauna,
 amaigabeko egunetan!

ANT.

Aleluia, Jauna da Errege, aunditasunez jantzia, aleluia, aleluia.

ANTIFONA 2

Lur osoa, gora ezazu Jauna. Aleluia.

- 99 -

1. Gora ezazu Jauna, lur osoa,
2. Mirabetu Jauna, poz-pozik,
zoazte Aren aurrera gora-ta-gora irrintziz.
3. Jakin ezazute Jauna dala Jaungoiko;
Ark egin ginduala ta bereak gerala,
Aren erri ta Aren artaldeko ardi.
4. Sar zaitezte Aren ateetatik, eskerrak emanaz,
Aren aterpeetatik gorasarreak kantatuaz,
eskerrak emanaz eta Aren Izena goretziaz:
5. «Jauna ona da;
Aren errukia betikoa;
Aren leialtasuna gizaldi guztietakoa».

ANT.

Lur osoa, gora ezazu Jauna. Aleluia.

ANTIFONA 3

Nere bizitza guztian bedeinkatuko zaitut; eta zure Izenari dei eginiñaz jasoko ditut eskuak. Aleluia.

- 62 -

2. Jaungoiko, Zu zera nere Jaungoikoal
Zuregatik goiz jeikitzen naiz,
zure egarri da nere anima, nere aragiak Zu zaitu irrika,
lur legor, elkor eta ur-gabeak bezela.

3. Nola egoten nitzazun begira jauretxean,
zure indarra ta zure aintza ikusten!
4. Bizia baño ederrago da zure grazia;
nere ezpañak goratu egingo zaituzte.
5. Nere bizitza guztian bedeinkatuko zaitut
eta Zuri dei egiteko jasoko ditut eskuak.
6. Koipez eta gantzuz bezela aseko naiz,
eta nere ezpañak poz-pozik goratuko zaituzte.
7. Ocean nagola, Zu zaitut gogoratzen
eta gaudian Zupan det pentsatzen,
8. Zu izan bait-zindudan nere laguntza
eta Zure egapean kantatzen det pozik;
9. nere anima Zurekin bat eginda dago
eta zure eskuia eusten dit.
10. Baño, nere ondamendi-billa dabiltzanak
lurpera jexkiko dira;
11. ezpatari emango zaizkio
eta azariai botako zaizkie janari.
12. Eta erregea Jaungoikoarekin poztuko da;
alkarrekin poztuko dira Aren Izenean ziñ egiten dutenak,
maltzur gezurtiai agoa itxiko dietenean.

ANT.

Nere bizitza guztian bedeinkatuko zaitut; eta zure Izenari dei eginiñaz jasoko ditut eskuak. Aleluia.

ANTIFONA 4

Erregearen eginduz, iru gazteak labera bota zituzten. Su-garren bildurrik gabe, ala zioten: «Bedeinkatua Jaungoikoal». Aleluia.

Iru gazteen abestia (Dan., 3)

57. Jaunaren izaki guztiak bedeinka ezazute Jauna, goratu ta ospatu gizaldietan.
58. Jaunaren aingeruak, bedeinka ezazute Jauna, zeruak, bedeinkatu Jauna.
60. Zerupeko urak, bedeinka ezazute Jauna,
61. Jaunaren gudari-taldeak bedeinkatu Jauna.
62. Eguzki-illargiak, bedeinka ezazute Jauna,
63. zeruko izarrek, bedeinkatu Jauna.
64. Euriak eta intzak, bedeinka ezazute Jauna,
65. aize guztiak, bedeinkatu Jauna.
66. Suak eta beroak, bedeinka ezazute Jauna,
67. otzak eta izotzak, bedeinkatu Jauna.
68. Intzak eta elurrak, bedeinka ezazute Jauna,
69. otzak eta otzkirriak, bedeinkatu Jauna.
70. Ormak eta elurrak, bedeinka ezazute Jauna,
71. gauak eta egunak, bedeinkatu Jauna.
72. Argiak eta illunak bedeinka ezazute Jauna,
73. tximistak eta odeiak, bedeinkatu Jauna.
74. Lurrak bedeinka beza Jauna, goratu kanta-kantari gizaldietan.
75. Mendiak eta muñoak bedeinka ezazute Jauna,
76. lurrean ernetzen dan guztiak, bedeinkatu Jauna.
77. Iturburuak bedeinka ezazute Jauna,
78. itxasoak eta ibaiak, bedeinkatu Jauna.
79. Itxas-piztiak eta arraiak bedeinka ezazute Jauna.
80. aideko egaztiak, bedeinkatu Jauna.
81. Pizti ta abereak bedeinka ezazute Jauna, goratu kanta-kantari gizaldietan.
82. Gizasemeak bedeinka ezazute Jauna,
83. Israeliek bedeinka beza Jauna.
84. Jaunaren apaizak bedeinka ezazute Jauna,

85. Jaunaren morroiak, bedeinkatu Jauna
86. Zintzoen espirituak eta animak bedeinka ezazute Jauna,
87. santuak eta biotz-apalak, bedeinkatu Jauna.
88. Ananias, Azarias eta Misael bedeinka ezazute Jauna, goratu kanta-kantari gizaldietan.
89. Bedeinka ditzagun Aita eta Semea Espiritu Santuarekin, goratu Jauna gizaldietan. Bedeinkatua Jauna zeru-goietan; aintzagarria, goragarria ta ospatua gizaldietan!

ANT.

Erregearen aginduz, iru gazteak labera bota zituzten. Su-garren bildurrik gabe, ala zioten: «Bedeinkatua Jaungoikoa». Aleluia.

ANTIFONA 5

Aleluia. Gora ezazute Jauna zeruan. Aleluia, aleluia!

- 148 -

1. Gora ezazute Jauna zeruan, goratu Jauna goietan;
2. gora ezazute Aren aingeru guziak, goratu Aren gudari-talde guztiak;
3. gora ezazute eguzkiak eta illargiak, goratu izar dizdiratsuak;
4. gora ezazute zeru zabalak, eta zeru-gañetan zaudeten urak;
5. gora bezate Jaunaren izena, Ark agindu bait-zuan eta izaten asi;
6. Ark eman zien betiko iraupena, eta ausiko ez dan legea ipiñi.

7. Gora ezazute Jauna lurrean,
itxas-pizti ta itxas-ondoak;
8. tximist eta txingor, elur eta lanbro,
Aren aginduak betetzen dezun aize-zurrunbilloak;
9. mendiak eta mendi-illara guztiak,
fruta-zugaitz eta zedroak;
10. basa-pizti ta etxe-abereak,
narrazti ta egaz zabiltzaten txoriak.
11. Lurreko errege ta erri guztiak,
munduko aundizki ta buruzagi guztiak;
12. mutillak, baita neskak ere,
agureak aurrakin batean,
13. goratu bezate Jaunaren izena:
izen aundi bakarra;
Aren aunditasuna zeru-lurren gañean.
14. Ark aunditzen du bere erriaren indarra;
bere zintzo guztien gorapena,
bere erri aukeratu Israelena.

ANT.

Aleluia. Goratu ezazute Jauna zeruan. Aleluia, aleluia!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Zakarias'en abestia

Benedictus (Luk., 1)

ANTIFONA (*Aldian aldikoa*)

68. Bedeinkatua Israelgo Jaungoiko Jauna,
bere erria ikustatu ta erosi dualako,

69. bere morroi Dabiden etxean salbamen-indarra sortuaz;
70. bere igarle santuen agoz antziñatik aginduta zeukanez.
71. Gure etsai guztietatik askatzen gaituan salbamina da,
gorroto diguten guztien eskuetatik;
72. gure gurasoai zien errukia egiztaturik,
bere Elkartea Santua,
73. ta gure Aita Abraani egin zion ziña gogoraturik;
74. Gure etsaien menpetik aterata,
bildur gabe, Aren serbitzari izan gaitezen,
75. santutasunez eta zintzotasunez Aren aurrean,
gure egun guztietan.
76. Eta zuri, aurtxo orri, Goi-goikoaren igarle deituko dizute;
Jaunaren aurretik joango bait-zera Aren bideak gertatzen;
77. Aren erriari salbamina otsegiten:
aien pekatuen barkamena.
78. Gure Jaungoikoaren erruki maitatiagatik,
Eguzki Berriak egingo digu goitik agertaldi;
79. illunpetan eta eriotz-itzalean bizi diranai argi egiteko,
gure oñak pake-bidean zuzentzeko.



GORALTZAK II — AD LAUDES II

ANTIFONAK (*Aldian aldikoak*)

SALMUAUK:

- 1) - 50 -
3. Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko, zure onginairen aundiz, ken ezazu nere gaiztakeria, zure errukiaren ugariz.
 4. Garbi zazu, garbitu, nere gaiztakeria, eta txukundu nere pekatua.
 5. Aitortzen bait-det nere gaiztakeria, eta nere pekatua beti begien aurrean daukat.
 6. Zure kontra, zure kontra bakarrik egin det pekatu; gorroto dezun okerra egin det.
Zure epaia ematerakoan, zuzenbidez egingo dezun, auzian errugabe gertatuko zera.
 7. Begira: errudun jaio nintzan; nere amak pekatari sortu ninduan.
 8. Zuk biotz zintzoa maite dezun, eta nere barruan jakinduria itxasten didazu.
 9. Ixopuz urezta nazazu; garbi geldituko naiz; txukundu nazazu; ta elurra baño zuriago geldituko naiz.
 10. Entzunerazi izkidazu poza ta atsegiña; poztu bitez ausitako ezurrak.
 11. Ken zure aurpegia nere pekatutik; garbitu nere pekatu guztiak.

12. Sortu nigan, Jaungoiko, biotz garbia, eta espiritu berri-zuzena sar nere barruan.
13. Ez aizatu ni zure aurpegi-aurretik urrutira, eta etzaidazu kendu zure Espiritu Santua.
14. Biurtu idazu zure osasun-poza; indartu nazazu espiritu emankorrez.
15. Gaiztoai zure bideak erakutsi dizkiet, pekatariak zuregana biurtuko dira.
16. Odoletik gorde nazazu, Jaungoiko, ene Jaungoiko, Salbatzalle orrek! eta nere mingaïak zure zuzentasuna kantatuko du.
17. Jauna, Zuk zabalduko dizkidazu nere españak, eta nere agoak zure gorespena otsegingo du.
18. Opariak etzaizkitzu gogoko, erre-opariak eskeñiko ba-nizkitzu, etzenduke ontzat artuko.
19. Nere oparia biotz damutua da; biotz damuturik eta apalik ez dezu zapuztuko.
20. Jauna, ager zakizkio biotzbera Sioni, zure onginaiatatik; berritu itzazu Jerusalemgo arresiak.
21. Orduan artuko dituzu onez legezko opariak, eskeintzak eta erre-opariak; orduan eskeñiko dira zekorrak zure aldare-gaïean.

2) - 117 -

Emaizkiozute eskerrak Jaunari... (31 orr.)

3) - 62 -

Jaungoiko, Zu zera nere Jaungoikoa... (22 orr.)

- 4) **Iru gazteen abestia (Dan., 3)**
52. Bedeinkatua zera Zu, Jauna, gure gurasoen Jaungoikoa, Zuri aintza ta gorespen gizaldietan.
Bedeinkatua zure Izen santu ta goragarria; berari ospe ta gorespen gizaldietan.
53. Bedeinkatua zera Zure jauretze santu-ospetsuan, aintza zuri ta gorespen gizaldietan.
54. Bedeinkatua zera erreñuko aulkian, aintza zuri ta gorespen gizaldietan.
55. Bedeinkatua zera Zu kerubiñen gañean eseri-ta, leizak aztertzen dituzuna; aintza zuri ta gorespen gizaldietan.
56. Bedeinkatua zera zeru-goietan; aintza zuri ta gorespen gizaldietan.
57. Jaunaren izaki guztiak bedeinka ezazute Jauna, goratu ta ospatu gizaldietan.

5) - 148 -

Goratu ezazute Jauna zeruan... (25 orr.)

Benedictus

Bedeinkatua Israelgo Jaungoiko Jauna... (26 orr.)

GOIZ-ALDEKO OTOITZA — AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Emaizkiotzute eskerrak Jaunari; bere errukia aundia da-ta. Aleluia, aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 117 -

1. Emaizkiotzute eskerrak Jaunari, ona da-ta; bere errukia betikoa da.
2. Esan beza Israelgo etxeak:
Aren errukia betikoa da.
3. Esan beza Aarongo etxeak:
Aren errukia betikoa da.
4. Esan bezate Jaunaren zintzoak:
Aren errukia betikoa da.
5. Arriskuan Jaunari egin nion deadar, eta entzun zidan eta onez atera ninduan.
6. Jauna nerekin dago; ez det bildurrik; zer egin dezaidake gizonen?
7. Jauna nerekin dago ta laguntza ematen dit, nere etsaien ondamendia ikusi det.
8. Gizonengan ustea ipiñi baño obe da Jaunagan babestea.
9. agintarietan ustea ipiñi baño obe da Jaunagan babestea.

10. Erri guztiak inguratzen ninduten;
Jaunaren izenean uxatu nituan.
11. Gero-ta-estuago inguratzen ninduten;
Jaunaren izenean uxatu nituan
12. Liztorrak bezela inguratzen ninduten;
suak sasia erretzean bezela;
Jaunaren izenean uxatu nituan.
13. Bultza-ta-bultza ari zitzaizkidan, ni iraultzeko,
baño, Jaunak lagundu zidan;
14. Jauna da nere indar, nere kemen,
nere salbamen.
15. Entzun: garaipen-abestiak dira zintzoen txaboletan:
«Altsua da Jaunaren eskuia,
16. bikaña da Jaunaren eskuia,
indartsua da Jaunaren eskuia».
17. Ez naiz ilko; bizi egingo naiz,
Jaunaren arrigariak azaltzeko.
18. Zigortu, bai, zigortu ninduan Jaunak;
baño ez eriotzara galdu.
19. Zabal zaizkidazute garaipenaren ateak,
eta Jaunari eskerrak emateko sartuko naiz.
20. Au da Jaunaren atea;
irabazleak ortik sartuko dira.
21. Eskerrak ematen dizkitzut entzun zenidalako,
eta salbamen izan zintzaidalako.
22. Etxegilleak baztartutako arria
orain bera da giltzarria.
23. Jaunak egin du ori;
ba-da ortan miraria.

24. Au da Jauna ari izan daneko eguna;
izan bekigu poz eta atsegiñ!
25. Jauna, emaguzu, arren, osasuna;
Jauna, emaguzu zoriona.
26. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituztegu;
27. Jauna Jaungoiko da; Berak egiten digu argi,

Eratu ezazute ibillaldia lore-sortakin,
aldare-inguruetaraño.
28. Zu zera nere Jaungoiko; eskerrak Zuri;
ene Jaungoiko, aintza Zuri,
29. Emaizkiotzute eskerrak Jaunari, ona da-ta;
bere errukia betikoa da.

* * *

Egun batzuetan (ikus egundegian) 117, aurreko salmu onen
ordez, ondorengo 53 salmua esan bear da.

- 53 -

3. Jaungoiko! Salba nazazu, zure izenagatik,
atera zaitez nere alde zure indarrez.
4. Jaungoiko! Entzun nere otoitza,
aditu nere itzak.
5. Arroak nere kontra atera bait-zaizkit;
eta gizon zakarrak ni il-naiean dabilzt,
Jaungoikoa aintzat artu gabe.
6. Baño, nik Jaungoikoa det lagun,
Jaunak eusten dio nere biziari.

7. Biurtu ezaiezu beren gaiztakeria nere etsaiari,
eta ondatu itzazu zure leialtasunagatik.
8. Gogoz eskeñiko dizut oparia,
ona dan zure izenari eskerrak emanaz,
arriskutik onik atera bait-nauzu,
eta ikusi bait-det nere etsaien ondamendia.

* * *

- 118 - (I)

1. Bai zorionsua, bizitza errugabez,
Jaunaren naiean dabillena!
2. Bai zorionsua, Aren aginduak gorderik,
biotz-biotzez Aren billa dabillena!
3. gaiztakeririk egin gabe,
Aren bide-zidorretatik dabillena!
4. Zeatz bete ditezen
eman dituzu Zuk zure aginduak.
5. Sendo egongo al da nere bidea,
Zure erabakiak betetzeko;
6. orduan ez naiz lotsatuko,
zure aginduai begiratzean;
7. Biotz zintzoz goratuko zaitut,
zure agindu zuzenak ikasten ditudanean;
8. zure legeak zeatz bete nai ditut;
ez nazazu Zuk erabat utzi.
9. Nola ibilli al izango da gaztea garbi?
Zure itzak betetzen dituala.
10. Biotz-biotzez nabil zure billa;
ez utzi neri zure aginduetatik okertzen.

11. Zure erabakiak biotzean gordetzen ditut;
orrela, ez det zure kontra pekaturik egingo.
12. Bedeinkatua zera Jauna;
erakutsi izkidazu zure legeak;
13. nere ezpañak zure agoko aginduak
zenbatzen ari dira.
14. Zure esanen bidea da nere poza,
aberastasun guztiak baño geiago.
15. Zure erabakiak ausnartzen ditut,
eta zure bide-zidorrai begira nagokie.
16. Zure naia da nere poza;
etzaizkit aztuko zure itzak.

- 118 - (II)

17. Egiozu on morroiari, biziko naiz
eta zure esanak beteko ditut;
18. zabaldu izkidazu nere begiak
eta ikusiko ditut zure naimenaren arrigarriak;
19. arrotz naiz lurean,
etzaizkidazu ezkutatu zure agintzariak;
20. Urtzen ari zait nere anima,
zure aginduak irrika eta irrika;
21. Arroak gogor artzen dituzu,
madarikatuak zure aginduetatik baztartzan diranak;
22. urrutiratu izkidazu lotsak eta ezezenak,
gordetzen bait-ditut zure aginduak;
23. Aundizkiak ni maxiatzeko esertzen ba'dira ere,
zure morroiak zure legeak ausnartzen ditu;
24. zure aginduak atsegin zaizkit,
zure erabakiak ditut nere oartzalle.

25. Nere anima autsari itsatsia dago,
indarberritu nazazu zure itzakin;
26. azaldu nizun nere bidea ta entzun zenidan;
erakutsi izkidazu zure legeak,
27. erakutsi idazu zure aginduakin,
eta zure mirariak ausnartuko ditut;
28. Nere anima tristerik negarrez dago,
indarberritu nazazu zure agintzarekin;
29. atera nazazu gezur-bidetik
eta emaidazu zure gogoaren grazia;
30. egi-bidea aukeratu nuan,
zure aginduak opa izan nituan;
31. Zure erabakiai itsatsi nintzaian,
Jauna, ez idazu utsegin;
32. zure aginduen bidetik laxterka egingo det
biotza zabaltzen didazunean.

ANT.

Aleluia. Emaizkiozute eskerrak Jaunari; bere errukia aundia da-ta. Aleluia, aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEDERATZIETAKO OTOITZA — AD TERTIAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Aleluia. Eraman nazazu, Jauna, zure aginduen bidetik.
Aleluia, aleluia.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 118 - (III)

33. Erakutsi idazu, Jauna, zure legeen bidea,
eta zuzen jarraituko det;
34. erakutsi idazu zure naia betetzen
eta biotz-biotzez gordetzen;
35. eraman nazazu zure aginduen bide-zidorretik,
ori da-ta nere atsegiña;
36. Makurtu idazu biotza zure aginduetara,
eta ez diru-gosera.
37. Ken izkidazu nere begiak uskerietatik,
emaidazu bizia zure itzakin;
38. bete zaiozu zure morroiari
zure zintzoai egin zenien agintzaria;
39. Ken nigandik bildur diodan lotsa gorria,
zure aginduak maitagarri bait-dira;
40. begira nola irrikatzen ditudan zure erabakiak,
emaidazu bizia zure zuzenbidez.

41. Betorkit, Jauna, zure laguntza;
zure salbamena, zure agintzarien arabera.
42. Orrela erantzungo diet iraintzen nautenai,
zure itzean dedala usteon.
43. Ez kendu nere agotik itz egitiak,
zure aginduetan bait-det nik usteon;
44. Zure naia asper gabe beteko det
beti eta beti.
45. Bide zabaletik ibilliko naiz
zure erabakien billa;
46. erregeen aurrean azalduko ditut zure aginduak,
eta ez naiz lotsatuko;
47. Ain maite ditudan zure aginduak
izango dira nere atsegiñ;
48. Zuregana jasoko ditut nere eskuak,
zure aginduak esanaz.

- 118 - (IV)

49. Gogora ezazu zure morroiari eman zenion itza,
bera biurtu bait-didazu itxaropen;
50. au det pozgarri nere samiñaldian:
zure agintzariak bizia ematen didala.
51. Lotsagabeak gaizki-esaka ari zaizkit eten gabe,
baña, ni ez naiz zure aginduetatik baztartzan;
52. Zure antziñako aginduak gogoraturik,
Jauna, poztu-ta gelditu nintzan;
53. asarre biziak artu ninduan
zure naia uzten duten gaiztoen aurrean;
54. zure legeak nituan abesti-gai
atzerrietan.

55. Zure izena esaten det gabaz, Jauna,
eta esna nagola, zure aginduak;
56. Au da neri dagokidana:
zure aginduak bete.
57. Jauna da nere salla;
zure itzak betetzea erabaki det;
58. biotz-biotzez nabil zure billa;
erruki zakizkit, zure agintzarien arabera;
59. aztertu det nere bidea,
nere oñak zure aginduetara zuzentzeko;
60. Egiñaletan, luzatu gabe,
betetzen ditut zure aginduak;
61. gaiztoen sareak inguraturik naukate;
baño, etzait zure nairik aztutzen;
62. gaberdian jaikitzen naiz,
zure agindu zuzenagatik zuri eskerrak emateko;
63. Zure aginduak betetzen dituzten zure zintzoakin
elkartutzen naiz;
64. Jauna, zure onginaiez betea dago lurra;
erakutsi izkidazu zure legeak.

- 118 - (V)

65. Zure morroiari ondasunak eman dizkiozu,
Jauna, zure itzakin;
66. erakutsi idazu gozatzen eta ulertzen,
ba-det-eta usteon zure aginduetan;
67. atsekabeak izan baño len, bidea balduta nebillen;
orain, ordea, zure agintzariaren arabera nabil;
68. Zu ona zera; ta on dana egiten dezu;
erakutsi izkidazu zure legeak;

69. lotsagabeak engañoika dabiltza nere kontra;
nik, ordea, zure legeak zaitzen ditut;
70. koipea bezin lodi dute biotza;
nik, ordea, zure naiean det atsegiñ;
71. Ongi etorri zitzaidan atsekabea;
orrela ikasi nituan zure aginduak;
72. millaka urrezko ta zillarrezko diru baño
obe zaizkit neri zure agoko aginduak.
73. Zure eskuak egin eta mamitu ninduten;
argitu nazazu zure aginduak ikasi ditzadan;
74. zure zintzoak pozik ikusiko dute
zure itzean itxaron dedala;
75. ba-dakit, Jauna, zure aginduak zuzenak dirala,
bidez sufrituerazi zenidala.
76. Zure onginaiak poztu nazala,
zure morroiari agindu-bezela;
77. zure errukia datorkidanean, biziko naiz,
eta zure naia atsegin bete izango zait;
78. lotsa ditezela ergelak, egiten didaten kalteagatik,
nik zure erabakiak ausnartuko ditut;
79. Biur bitez neregana zure zintzoak,
zure aginduak aintzat artzen ditzutenak.
80. Izan bedi bikain nere biotza zure legeetan;
orrela ez naiz geldituko lotsa gorritan.

ANT.

Aleluia, Eraman nazazu, Jauna, zure aginduen bidetik.
Aleluia, aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

AMABIETAKO OTOITZA — AD SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Aleluia. Ni zurea naiz; salba nazazu, Jauna. Aleluia, aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

— 118 — (VI)

81. Zure salbamenaren irrikaz urtzen ari naiz,
eta zure izenean det usteon
82. erretzen dauzkat begiak zure agintzarien irrikaz;
eta ala diot: noiz poztuko nauzu?
83. Zaragia ketan bezela nago;
baño, zure legeak etzaizkit aztutzen;
84. Zenbat izango dira zure morroiaren egunak?
noiz egingo diezu epai zuzen nere erasotzalleai?
85. Ergelak zuloak egin dituzte neretzat,
zure naia aintzat artu gabe;
86. leialak dira zure agindu guztiak,
bide gabez erasotzen didate; lagun *zakizkit;
87. Ia-ia sartu ninduten illobian;
nik, ordea, ez nituan utzi zure erabakiak;
88. zure onginaiatatik emaidazu bizia,
zure agoaren aginduak bete ditzadan.

89. Beti-betikoa da, Jauna, zure itza,
zerua baño iraunkorragoa;
90. zure leialtasuna gizardiz-gizardi,
Zuk egin, eta lurrak irauten duan bezela;
91. zure aginduz irauten dute gaur arte,
zure serbitzurako bait-dago dana;
92. Zure naia ez ba'nu pozgarri,
galdua nintzakean onezkero nere zoritxarrean;
93. etzaizkit beñere aztuko zure erabakiak,
oiekin eman bait-zenidan bizia.
94. Zurea nauzu; salba nazazu;
zure legean det irizpide;
95. Zai neuzkan gaiztoak ni galtzeko;
nik, ordea, zure erabakiak ausnartzen nituan.
96. Bikain dan guztiaren muga ikusi det;
zure aginduak ez du azken-mugarik.
- 118 - (VII)
97. Nik bai maite dedala zure naia!
egun osoan gogoan darabilt;
98. zure eginduak nere etsaiak baño jakintsuago egiten nau;
beti nerekin det lagun;
99. nere maixu guztiak baño jakintsuago naiz,
zure aginduak ausnartzen bait-ditut.
100. Agureak baño zentzundunago naiz,
zure legeak betetzen ditudalako;
101. bide txar guztiatik aldentzen det nere oña,
zure itza gordetzeko;
102. ez det zure aginduetatik alde egiten,
zuk erakusten didazulako.

103. Bai gozoa zure agintzaria ao-sapaiari
agoan ezta baño gozoago!
104. Zure erabakiak darabiltzkit buruan,
eta gorroto diot gezur-bideari.
105. Argi-otnzia da zure legea nere oiñentzat,
argia nere bidean.
106. Ziñ egiten det eta beteko det;
beteko ditut zure agindu zuzenak;
107. Ain atsekabetua nago!
Jauna, emaidazu bizia, zure agintzariaren arabera;
108. Onartu izkidazu, Jauna, egiten dizkitzudan ziñ-eskeintzak;
erakutsi zure aginduak;
109. nere bizia arrixkuan dago beti,
baño, etzait zure naia aztuko;
110. gaiztoak lakiõa ipiñi zidaten;
baño, ni ez nintzan zure erabakietatik okertu;
111. Zure aginduak ditut betiko ondare,
nere biotzaren poz;
112. nere biotza zure legeak betetzera makurtzen det,
beti ta zearo.
- 118 - (VIII)
113. Aldakorrai gorroto diet,
eta zure naia maite det.
114. Zu zaitut igesleku ta babesleku,
nik zure itzean det itxaropide.
115. Alde egin nigandik gaiztoak,
eta, ene Jaungoiko, zure aginduak beteko ditut;
116. Eutsi idazu zure agintzariarekin eta biziko naiz,
ez dedilla utsemanda gelditu nere itxaropena;

117. lagun zakizkit eta onik egongo naiz;
zure legeai begira egongo naiz asper gabe.
118. Zure erabakietatik okertzen diranak ezetsi egiten dituzu,
aien asmoak engaño dira;
119. Zaborreria dira gaiztoak zuretzat,
orregatik maite ditut zure aginduak;
120. zuganako bildurrez ikaraz daukat aragia,
eta aintzat artzen ditut zure aginduak,
121. zuzentasuna ta eskubidea betetzen det,
ez nazazu utzi nere azpiratzalleen esku;
122. atera zaitetz jabe zure morroiaren alde,
ez nazatela estu artu lotsagalduek;
123. kixkaltzen dauzkat begiak,
zure salbamenaren eta agintzariaren zai;
124. Erruki zazu zure morroia,
erakutsi izkidazu zure legeak;
125. zure morroi nauzu; emaidazu adimen,
eta ezagutuko ditut zure aginduak;
126. ekiteko ordua dezu Jauna,
autsi egin dute zure naia;
127. Nik maite ditut zure aginduak,
urre gorria baño maiteago;
128. orregatik ontzat artzen ditut zure aginduak,
eta gorroto det gezur-bidea.

ANT.

Aleluia. Ni zurea naiz; salba nazazu, Jauna. Aleluia, aleluia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

IRURETAKO OTOITZA — AD NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Aleluia. Egin bezaio argi zure aurpegiak, Jauna, zure morroiari.
Aleluia, aleluia.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 118 - (IX)

129. Zure aginduak arrigarriak dira,
orregatik betetzen ditu nere animak;
130. zure itzaren azalpenak argia dario,
ezjakiñai adimena ematen die;
131. agoa zabaldu ta arnasa artzen det,
zure aginduen irrikaz;
132. Biur zaitetz neregana ta erruki zakizkit,
zure izena maite dutenai oi diezunez;
133. sendotu izkidazu oñak zure agintzariakin,
ez nazala iñolako gaiztakerik menderatu;
134. atera nazazu gizonen indarpetik,
eta zure aginduak beteko ditut;
135. Egin bezaio argi zure aurpegiak zure morroiari,
erakutsi izkidazu zure legeak.
136. Malko-errekak darizkie nere begiai,
zure naia egiten ez dutenengatik,

137. Jauna, zuzena zera zu,
zure aginduak zuzenbidezkoak;
138. lege zuzenak ipiñi dituzu,
guztiz iraunkorrak;
139. kixkaltzen nauka nere leiak,
nere etsaiari aztu egiten bait-zaizkio zure itzak;
140. Garbi-utsa da zure agintzaria,
eta zure morroiak maite du;
141. txikia naiz ta ezetzgarria,
baño etzaizkit aztutzen zure erabakiak;
142. zure zuzentasuna betiko zuzentasuna da,
zure naia egitia.
143. Estuasunak eta larriak erasotzen didate,
zure aginduak ditut nere atsegiñ;
144. zure aginduen zuzentasuna betikoa da;
emaidazu adimen eta biziko naiz.

- 118 - (X)

145. Biotz-biotzez egiten dizut dei;
erantzun, Jauna, ta beteko ditut zure legeak;
146. Zuri egiten dizut deadar; salba nazazu,
eta gordeko ditut zure erabakiak;
147. egun-sentiari aurea artzen diot laguntza-eske,
zure itzen zai;
148. Gualdiari aurea artzen diote nere begiak,
zure agintzaria ausnartzen,
149. entzun zazu nere aotsa, zure errukiagatik,
emaidazu bizia zure aginduakin;
150. ba-datozkit nere erasotzalle gaiztoak
zure naietik urruti dabilta;

151. Zu, Jauna, gertu zaude,
eta zure agindu guztiak iraunkor dira;
152. aspalditik jabetu nintzan
zure aginduak betiko ipiñiak dituzu;
153. Ikus zazu nere auleria; aska nazazu,
ez bait-zait zure naia aztutzen;
154. egizu nere auziaren alde ta erosi nazazu;
emaidazu bizia zure agintzariarekin,
155. zure billa ez dabiltzan gaiztoengandik
urruti dago zuzenbidea;
156. Aundia da, Jauna, zure samurtasuna;
157. asko dira erasotzen didaten etsaiak;
baño, nik ez det zure aginduetatik alde egiten;
158. nazka artzen nuan ukatzalleak ikusita,
ez bait-dituzte betetzen zure aginduak;
159. Ikus nola maite ditudan nik zure erabakiak,
emaidazu bizia, Jauna, zure errukiagatik;
160. zure itzaren mamia egia da,
eta zure irizpide zuzenak betikoak dira.

- 118 - (XI)

161. Aundiak, bide gabe erasotzen zidaten,
baño nere biotzak itzal zien zure itzai;
162. ni poztu egiten nintzan zure agintzarian,
arrapakin aberatsa aurkitzen duanaren antzera;
163. ozkia eta gorrotoa diot gezurrari
eta maite det zure naia;
164. Egunean zazpi bider goratzen zaitut,
zure agindu zuzenengatik;
165. pake ederra du zure aginduak betetzen dituanak,
eta ez dio ezerk oztoporik egiñazten.

166. Zure salbamenaren zai nago, Jauna,
eta betetzen ditut zure aginduak;
167. Nere animak betetzen ditu zure aginduak,
eta asko maite ditu;
168. betetzen ditut zure erabakiak,
eta Zuk begien aurrean dauzkazu nere bideak.
169. Iritxi bedi zure aurrera nere deadarra;
emaidazu adimen zure itzakín;
170. sar dedilla zure aurrera nere eskabidea,
aska nazazu zure agintzariaren arabera.
171. Nere españai gorapena darie,
zure legeak erakutsi zenizkidalako;
172. Nere mingañak zure leialtasuna otsegiten du,
zuzenak bait-dira zure agindu guztiak.
173. Lagun dezaidala zure eskuak,
zure aginduak maiteago ditudalako;
174. zure salbamina irrikatzen det, Jauna,
zure naia det atsegiñ;
175. Nere anima zu goratzeko bizi bedi,
ditzadala lagun zure aginduak;
176. ardi galdua bezela atera nintzan bidetik;
zoazkio billa zure aginduak aztutzen etzaizkion
zure morroiari.

ANT.

*Aleluia. Egin bezaio argi zure aurpegiak, Jauna, zure morroiari.
Aleluia. aleluia.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Jaunak nere Jaunari esana: Eseri zaitetz nere eskualdean.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 109 -

1. Jaunak nere Jaunari esana: «Eseri zaitetz nere eskualdean,
eta zure etsaiak oñazpian ipiñiko dizkitzut».
2. Siondik zabalduko du Jaunak zure aginte-makillaren in-
gudatean mendera ditu zure etsaiak. [darra,
3. «Errege-seme zera jaiotegunetik,
dizdira santuz inguratua;
nik sortu zindudan, intza bezela,
egun-sentia baño len».
4. Jaunak ziñ egin du ta etzaio damutuko:
«Beti-betiko apaiz zera zu, Melkisedek'en salleko».
5. Jauna zure eskui-aldean, bere asarre-egunean.
ebaindu egingo ditu erregeak;

6. errien kontra epaia emango du,
gorputz illak pillatu, buru-egurak puskatu, lur zabalean.
7. Errekatik edango du bere bidean;
orregatik burua jasoko du.

ANT.

Jaunak nere Jaunari esana: «Eseri zaitetz nere eskualdean.

ANTIFONA 2

*Jaunak egiñak aundi; maite dituzten guztientzat
ikasgarri.*

- 110 -

1. Biotz-biotzez ematen dizkiot eskerrak Jaunari,
zintzoakin batean batzarrean.
2. Aundiak dira Jaunak egindakoak,
maite dituzten guztientzat ikastekoak.
3. Argi ta eder da Ark egiña;
Aren eskuzabalak beti irauten du;
4. mirari goragarriak egiten ditu;
Jauna errukitsu da ta biotz-bigun.
5. Bere zintzoai janaria ematen die,
bere elkarte ta beti gogoan duala.
6. Bere egintzaren indarra erakutsi zion bere erriari,
atzerrien ondarea emanaz.
7. Zuzena ta egia dira Aren esku-lanak,
Aren agindu guztiai usteon zor zaie;
8. iraunkor dira, beti-betikoak,
egiz eta zuzenez bete bearrekoak.

9. Erospeña biali zion bere erriari,
betiko baiezta du bere elkarte;
santua ta bildurgarria da bere izena.
10. Jaunaren bildurra da jakinduri-asiera;
burubide zuzena dute jarraitzen diotenak;
Jaunaren gorabideak beti irauten du.

ANT.

Jaunak egiñak aundi; maite dituztenentzat ikasgarri.

ANTIFONA 3

Jaunaren bildur danak biotzez maite ditu Aren aginduak.

- 111 -

1. Zorionsu Jaunaren bildur dana,
ta Aren aginduak biotzez maite dituan!
2. Altsua izango da lurrean alakoaren ondorengoa,
zintzoaren ondorengoak onetsiak izango dira.
3. Aberastasunak eta ugaritasuna izango ditu etxean,
bere eskuzabala iraunkorra izango da, betikoa.
4. Zuzena, biotz-biguna ta errukiorra danak,
argiak illunpetan bezela, egiten du dizdiz.
5. Zorionsua, errukiturik, ematen duana,
eta bere arazoak zuzenbidez erabakitzen dituan!
6. Zintzoa ez da beñere alderoka ibilliko,
aren oroipenak beti iraungo du.
7. Berri txarrai ez die bildurrik izango,
aren biotza Jaunagan gogor dago.

8. Lasai dauka biotza, bildur gabe,
bere etsaiak ondatu-ta ikusi arte.
9. Beartsuai limosna ematen die,
aren eskuzabala iraunkorra da, betikoa,
eta ospez jasotzen du burua.
10. Ori ikusita, gaiztoa asarretu egingo da,
ortz-karraska asiko da, igartu arte.
Gaiztoaren irrikak uts-emango dute.

ANT.

Jaunaren bildur danak biotzez maite ditu Aren aginduak.

ANTIFONA 4

Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena, orain-da-beti.

- 112 -

1. Gora ezazute, Jaunaren morroiak,
goratu Jaunaren izena!
2. Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena,
orain-da-beti.
3. Eguzki-sortaldetik sarkalderaño,
bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena.
4. Jauna erri guztien gañetik gora dago,
Aren aintza zeruaren gañean.
5. Nor, bere aulkian gora igo,
eta zeru-lurrai begiratzeko jexten dan
6. gure Jaungoiko Jauna bezelakorik?
7. Laguntza-gabea autsetik jaso egiten du,
beartsua zikiñetik atera,

8. errege-semeakin esertzeko,
bere erriko errege-semeakin;
9. agor zanari lekua ematen dio, etxean,
seme-alaben ama zoriontsu bezela.

ANT.

Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena, orain-da-beti.

ANTIFONA 5

Zeruan dago gure Jaungoikoa ta nai duan guztia egiten du.

- 113 -

1. Israel Ejitotik irten zanean,
Jakoben semeak erri mingain-moteletik,
2. Juda izan zan aien jauretxe,
Israel izan zan aien lurralde.
3. Aiek ikustean, itxasoak iges egin zuan,
Jordan atzera joan zan;
4. mendiak saltoka asi ziran, adarien antzera,
eta mendixkak, bildotsak bezela.
5. Zer dezu zuk, itxaso, iges egiteko?
eta zuk, Jordan, atzera joateko?
6. Eta zuek, mendiok, adariak bezela, saltoka asteko?
mendixkok, bildotsak bezela jauzika egiteko?
7. Lurrak ikara egin du Jaunaren aurrean,
Jakoben Jaungoikoaren aurrean:
8. arkaitzak urzulo biurten ditu,
suarria iturburu.
- 9-1. Guri ez, Jauna, guri ez;
baño, zure izenari eman aintza;

- 10-2. Zergatik esan bear dute atzerriak:
«Nun da oien Jaungoikoa?»
- 11-3. Gure Jaungoikoa zeruan dago;
nai duan guztia egiten du.
- 12-4. Aien sasi-jainkoak, berriz, zillar eta urre dira,
gizonen esku-lan;
- 13-5. agoa bai, ta ez dute itzik egiten;
begiak bai, ta ez dute ikusten;
- 14-6. belarriak bai, ta ez dute entzuten;
sudurra bai, ta ez dute usnatzen;
- 15-7. eskuak bai, ta ez dute ikutzen;
ez dute deadarrik eztarrian.
- 16-8. Egilleak izan ditezela aien antzeko,
aietan usteon dutenak.
- 17-9. Israelek Jaunagan du usteon:
Bera du laguntza ta babeskiñ.
- 18-10. Aaronen etxeak Jaunagan du usteon:
Bera du laguntza ta babeskiñ.
- 19-11. Jaunaren zintzoak Jaunagan dute usteon:
Bera dute laguntza ta babeskiñ.
- 20-12. Jaunak gogoan euki ta bedeinka gaitzala,
bedeinka dezala Israelen etxea,
bedeinka dezala Aaronen etxea,
- 21-13. bedeinka ditzala Jaunaren zintzoak,
aundi ta txiki.
- 22-14. Ugaritu bizaitzate Jaunak
zuek eta zuen semeak;
- 23-15. bedeinka bizaitzate Jaunak,
zeru-lurrak egin zituanak.
- 24-16. Zerua Jaunarena da;
hurra gizonai eman zien.

- 25-17. Ildakoak ez dute geiago Jauna goratzen,
ezta ixillera jeixten diranak ere.
- 26-18. Guk, bai, guk bedeinkatzen degu Jauna,
orain-da-beti.

ANT.

Gure Jaungoikoa zeruan dago nai duan guztia egiten du.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

“Magnificat” (Luk., 1)

ANTIFONA (*Aldian aldikoa*)

46. Nere animak Jaunaren aunditasuna goستن du,
47. nere biotza poz-pozik dago nere Salbatzalle Jaungoikoagan,
48. bere mirabea ain txikia ikusi dualako.

Oraindanik zorientsu esango didate gizaldi guztiak,

49. Altsuak gauza aundiak egin bait-ditu neregatik!
Aren izen santua
50. ta Aren errukia bere zintzoetara irixten da
gizaldiz-gizaldi.
51. Arrigarriak egiten ditu bere besoarekin:
altsuak jargoitik bota,
eta apalak jaso;
52. gosetiak ondasunez betetzen ditu,
eta aberatsak esku-utsik bialdu.
53. Bere morroi Israeli laguntza eman dio,
errukia gogoraturik;
54. — ala itz-eman bait-ziñ gure gurasoai —
Abraani ta onen ondorengoai betiko.

ARRATSEKO OTOITZA - AD COMPLETORIUM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Erruki zakizkit, Jaungoiko, nere laguntzalle, dei egiten dizudanean.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 4 -

2. Entzun idazu, Jaungoiko, nere laguntzalle orrek, dei egiten dizudanean; larrialdian lasaipide eman didazun orrek, erruki ni ta entzun nere otoitza.
3. Eta, zuek noiz arte zikindu bear dezute nere izen ona, noiz arte maitatu maltzurkeria, ta gezurraren ondotik ibilli?
4. Jakin au: Jaungoikoak mirariak egin ditu nere alde; Jaunak entzun egingo dit deitzen diodanean.
5. Ikara zaitetzte, ta ez egin pekaturik; pentsa ezazute zuen oeko ixillean;
6. eskeñi legezko opariak eta itxaron Jaunagan.
7. Ala diote askok: «Nork erakutsiko digu zoriona, zure aurpegiaren argia ezkutatu ba'zaigu?»
8. Baño zuk, Jauna, garia ta ardoa ugari ba'neuzka baño poz aundiagoa ipiñi didazu nere biotzean.

9. Pakean etzaten naiz, eta berealaxe artzen nau loak;
10. Zuk bakarrik, Jauna, lasai bizierazten bait-nauzu.

- 90 -

1. Goi-goikoaren babespean zauden orrek, Guztialdunaren itzalean bizi zeran orrek,
2. esaiozu Jaunari: «Nere gordeleku, nere gaztelu, nere Jaungoiko, Zugan det itxaropen».
3. Berak aterako zaitu eiztarien saretik, izurrite galgarritik.
4. Bere lumakin estaliko zaitu, bere egapean gordeko zera, bere besoa babeskiñ da ta arma-jantzi.
5. Etzaitu ikaratuko gaueko bildurrak, ez, egunez egaz dijoan azkonak,
6. ez, illunpean dabillen izurriak, ez eguerdiko gaitz galgarriak.
7. Milla eroriko dira zure ezkerraldean, amar milla zure eskui-aldean; zu etzaitu ikutuko.
8. Zure begiz begiratu orduko, ikusiko dezu gaiztoen ordaña.
9. Zure gordeleku Jauna egin bait-zenduan, eta zure babes Goi-goikoa artu.
10. Etzaizu zoritxarrik inguratuko, ezta gaitzik ere zure oial-txabolan sartuko.
11. Bere aingeruai agindu bait-die Zu zure bidean zaitzeko;

12. Eskuetan eramango zaituzte zure oñak arrian oztoporik egin ez dezan;
13. sube ta ziraun-gañean ibilliko zera, leoiak eta eren-subek artuko dituzu oinpean;
14. «Ondoan jarri zitzaidan; askatuko det»; nere izena dakialako, zaituko det, dei egingo dit eta nik entzun.
15. Larrialdian berekin izango nau, zaitu egingo det, goratu;
16. egun luzez beteko det, eta nere salbamera ikusiaziko diot.

- 133 -

1. Eta orain bedeinka ezazute Jauna, Jaunaren serbitzariok; gaua Jaunaren etxean igarotzen dezutenok;
2. jaso izkiozute eskuak jauretzeruntz eta bedeinkatu Jauna.
3. Bedeinka zaitzatela Siondik Jaunak; zeru-lurrak egin zituanak.

Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"

ANTIFONA

Jauna: Salba gaitzazu gaualdian; gorde loaldian; Kristorekin esna gaitezen eta pakean atseden dezagun. (P. A. Aleluia.)

Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela, utzi zenezaioke zure morroiari pakean joaten

ikusi bait-dute nere begiak zure salbatzallea erri guztien aurrean agertu dezuna; atzerriai argi egiteko argia eta zure erri Israelen goragarria.

ANT.

Jauna: Salba gaitzazu gaualdian; gorde loaldian; Kristorekin esna gaitezen eta pakean atseden dezagun. (P. A. Aleluia.)

G. Entzun, Jauna, nere otoitza.

E. Eta iritxi bedi Zugana nere deia.

OTOI-DEZAGUN: Zatoz, Jauna, etxe ontara ta etsaiaren maltzurkeri guztiak bidali itzazu emendik urruti; daudela emen zure Aingeru santuak gu pakean zaitzen; eta bego gugan beti zure bedeinkapena. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

G. Entzun, Jauna, nere otoitza.

E. Eta iritxi bedi Zugana nere deia.

Bedeinkatu ta zaitu gaitzala gu Jaungoiko guztialdun eta errukitsuak: Aitak eta Semeak eta Espiritu Santuak. Amen.

Ama Birjiñaren antifona. (Aldian aldikoa)

G. Bego beti gugan Jaungoikoaren laguntza.

E. Amen.

lial ber-dute bere begak eruz salbatzaila
erri guzian onaraz agerri dena;
aztertu erri egiteko argi
eta zure erri baten kongarria

Jauna, zula kontzen gundin; gure beldin; Kristoekin
eruz gurean eta baten aztertu dena. **H. A. A. A.**

G. Jauna, jauna, nere otaitza

H. Eta itxi bedi Xogara nere deia

OTOITZAKIN: Jaun, Jauna, etze onen ta etzaren
maitasun guziaz bidali naxa emendik urrut, dundela eruz
zure Aingeru santuak gu baten zaitzen eta beko gigan
bedi zure bedinkapena. Xara zure kaitzetan gure jantzen
bitartez. Amen

G. Jauna, jauna, nere otaitza


H. Eta itxi bedi Xogara nere deia

Bedinkatu ta zaitu gaitza gu jaungoiko gundin eta
eruktuak; Aiaz er zomok eta Espiritu Santuak. Amen.

Ara Bifjansen onlona. **Alaian alikoat**

G. Bgo bedi guran jaungoikoren laguntza;

H. Amen.



ASTELENA

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA - AD MATUTINUM

Otoitzerako deia - Invitorium

Lelo. Zatozte * Gora dezagun Jauna.

1. Zatozte; gora dezagun Jauna... (7 orr.)

Gorasarrea - Hymnus

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Jauna Adan'en semeetara begira dago zerutik.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 13 -

1. Ala dio zoroak berekiko:
«Ez da jaungoikorik!».
Usteldu egin dira nazkagarrikeriak egiñaz;
ez dago bat ere on egiten duanik.
2. Jaungoikoa Adan'en semeetara begira dago zerutik,
zentzundunik ba ote dagon ikusteko,
Jaungoikoaren billa dabillenik.
3. Guztiak okerrean gogor daude;
ez dago bat ere on egiten duanik,
ezta bat bakarrik ere!
4. Ez ote dira zentzatuko gaizkilleak,
nere erria ogia bezela jaten dutenak,
eta Jainkoari dei egiten ez diotenak?».
5. Ikara gorrian egongo dira,
Jauna zintzoakin bait-dago;
6. Zuek aularen asmoai irri-parra egiten diezute;
baño, Jaungoikoa da aren gordeleku.
7. Ai ba'letor Sion'dik Israel'en osasuna!
Jaunak bere erriaren zoria aldatzen duanean,
Jakob alaitu egingo da eta Israel poztu.

ANT.

Jauna Adan'en semeetara begira dago zerutik.

ANTIFONA 2

*Zuzentasuna egiten duana, Jauna, zure mendi santuan
biziko da.*

- 14 -

1. Jaungoiko, nor biziko da zure oial-txabolan?
Nor bizi izango da zure mendi santuan?
 2. Zintzoki bizi dana,
eta zuzentasuna egiten duana,
asmo onak dituana;
 3. eta bere mingañez gezur beltzik ez diona,
bere anaiari kalterik egiten ez diona,
eta auzoaren izen ona galtzen ez duana.
 4. gaiztoari txar-irizten diona,
eta Jaungoikoaren bildurrekoak aintzat artzen dituana;
bere buruaren kaltez ziñ-eginda ere,
ziñari uko egiten ez diona;
 5. dirua korritu aundiegian ematen ez duana;
eta errugabearen kaltetan eskupekorik artzen ez duana.
- Orrela jokutzen duanak
ez du beñere utsik egingo.

ANT.

*Zuzentasuna egiten duana, Jauna, zure mendi santuan
biziko da.*

ANTIFONA 3

Makur, Jauna, belarria nere eskabidera; entzun nere deadarra.

- 16 -

1. Entzun ezazu, Jauna, nere eskabidea,
aditu nere deadarra,
makurtu belarria nere eskabidera,
nere ezpañetan ez dago-ta engañiorik;

2. Betor zuregandik epaia,
ikus bezate zure begiak zuzen dana.
3. Nere biotza arakutzen ba'dezu ere,
gauaz ikustaldia egiñaz,
su-katilluan aztertzen ba'nauzu ere,
ez didazu okerrik arkituko.
4. Nere agoak ez du utsik egin,
gizonak oi duten bezela;
zuk agindu bezela,
ipiñitako bidean iraun det nik.
5. Nere oñak sendo iraun dute zure bideetan,
eta ez dute dardarrik egin.
6. Nik dei egiten dizut,
Zuk, ene Jaungoiko, erantzun egiten bait-didazu;
makur neregana zure belarria ta entzun nere itzak.
7. Erakutsi izkidazu zure errukiaren mirariak;
zure eskualdean babesten dana
etsaietatik zaitzen dezun orrek,
8. Zaitu nazazu zure begi-ninia bezela,
gorde nazazu zure egoen babespean,
9. erasotzen didaten gaiztoetatik,
ingurutzen nauten etsai galgarrietatik;
10. Beren erraiak itxi egin dituzte
eta arropuzturik mintzo dira;
aien oñatzak inguraturik naukate,
ni lurrera botatzeko, alkarri kiñuka ari dira,
12. atzaparrak sartzeko amorratzen dagon leoiaren antzera,
zuloan ezkutatuta dagon leoikumearen antzera.
13. Altxa zaitez, Jauna, aurkeztu zakizkio, mendera ezazu;
askatu nazala zure ezpatak gaiztoengandik,

14. eta zure eskuak, Jauna, ilkorrengandik,
mundu ontako ilkorrengandik; bizitza au bekie ondare
Zure janaritegitik beteko diezu sabela,
aien semeak aseko dira,
eta kondarrak seme txikiak utziko dizkiete.
15. Ni, berriz, gora jo, ta zure aurrera nator,
eta esnatzean, zure aurpegiaz aseko naiz.

ANT.

Makur, Jauna, belarria nere eskabidera; entzun nere deadarra.

ANTIFONA 4

Maite zaitut, Jauna; Zu zera nere indar.

- 17 -

2. Maite zaitut, Jauna; Zu zera nere indar.
3. Jauna, nere arkaitz, nere gaztelu, nere askatzalle,
nere Jainko, nere arri, nere gordeleku, nere babes-arma,
nere indar askatzalle, nere ezkutaleku.
4. Goragarri zaidan Jaungoikoari egiten diot dei
eta nere etsaietatik askatuta gelditzen naiz.
5. Eriotz-olatuak inguraturik nendukaten,
ur-mendi galgariak ikaraturik,
6. leizeko sareak biltzen ninduten
eriotz-lakioak lotzen.
7. Arrixkuan Jaunari egin nion dei,
nere Jaungoikoari deadar;
eta entzun egin zidan nere deia bere jauretsetik,
eta nere deadarra aren belarrietara iritxi zan.

8. Orduan lurra ikaraz eta dardarka jarri zan,
mendien oñarriak kolokatu egin ziran,
Aren sumiñak astinduta;
9. Aren sudurretik ke-mordoa ateratzen zan,
Aren aotik su kixkalgarría,
eta illintiak botatzen zituan.
10. Zerua beera-erazi ta jetxi egin zan,
oñazpian laño illunak zituala;
11. kerubiñ baten gañean ibilli zan egaz,
aizearen ega-gañean kulunka;
12. illunezko soñekoa jantzita,

gañeko estalki antzera bildurik zeukaten
13. euri-zapar beltzak eta odei lodiak;
aurrean zeraman dizdiraz,
odeiak txingor eta tximist-eraso biurtu ziran;
14. eta Jaunak trumoia jotzen zuan zerutik,
Goi-goikoak bere aotsa entzunazten zuan.
15. Azkonak bota zituan etsaiak sakabanatzeko,
eta eten gabeko tximistakin zoratu egiten zituan.
16. Itxas-ondoa agerian gelditu zan,
eta lurraren oñarriak ikusi egin ziran,
Jaunak, asarre bizian, bere sudurreko aize-erauntsiz
orru egin zuanean.

ANT.

Maite zaitut, Jauna; Zu zera nere indar.

ANTIFONA 5

Jaunak ordaindu zidan nere zuzentasuna.

- 17 - (II)

17. Goitik bere eskua luzatu, ta eutsi egin zidan,
ur sakonetatik atera ninduan,
18. askatu egin ninduan etsai altsuengandik,
ni baño indartsuago ziran etsaiengandik.
19. Ondamendi-egunean eraso zidaten,
baño, Jaungoikoa nuan laguntza,
20. zelai zabalera atera ninduan,
maite nindulako atera ninduan onez.
21. Jaunak ordaindu zidan nere zuzentasuna,
nere eskuen garbitasun-saria eman.
22. Jaunaren bideak gorde nitualako,
eta nere Jaungoikoaren aurka atera ez nitzalako;
23. Aren aginduak begien aurrean euki nitualako,
eta Aren legetikan okertu ez nitzalako,
24. Leial-leiala izan nintzaion,
utsegite guztietatik iges egiñaz;
25. Jaunak ordaindu zidan nere zuzentasuna,
nere eskuen garbitasuna bere aurrean.
26. Leialarekin leial zera zu,
zintzoarekin zintzo,
27. egitiarentzat egiti zera,
maltzurarentzat maltzur.
28. Zuk onik ateratzen dezu erri apala,
eta begi arroak makurrerazi egiten dituzu.
29. Zu zera, Jauna, nere argi-mutil,
Zuk argitzen dizkidazu illunpeak, nere Jaungoiko.
30. Zuregan usteon dedala, ekiten diot borrokari;
nere Jaungoikoagan usteon dedala, erasotzen diot arresiari.

31. Bikain-bikaña da Jaungoikoaren bidea,
garbi-garbia bere agintzaria,
laguntza-eske dijoazkienentzat Bera da babeskiñ.

ANT.

Jaunak ordaindu zidan nere zuzentasuna.

ANTIFONA 6

Gora Jauna! Bedeinkatua izan bedi nere Arkaitza.

- 17 - (III)

32. Nor da Jaungoiko, Jauna besterik?
Zer da arkaitz gure Jaungoikoa ezik?
33. Indar-gerrikoa jazten dit Jaunak,
eta bide bikaña erakusten;
34. basauntz-oñak ematen dizkit,
eta goietan ipintzen nau;
35. Berak ezitzen dizkit eskuak gudarako,
eta nere besoak uztaia erabiltzeko;
36. Zure babes-arma utzi zenidan,
zure eskuak eutsi zidan;
arreta aundiak izan zenituan neretzat,
37. zabaldu egin zenituan bideak nere oñentzat,
eta nere txorkatillak etziran makaldu,
38. etsaiaren ondotik ibiltzen nintzan, eskuratu arte,
eta ez nintzan biurtzen ura ondatu arte;
39. garaitu nituan eta ezin altxa izan ziran,
nere oñazpian erori ziran.

40. Burrukarako indarrez bete ninduzun,
gogor egiten zidatenak makurtu egin zenituan,
41. nere etsaiari iges egin-erazi zenien,
baztartu egin zenituan nere etsaiak.
42. Laguntza eskatzen zuten, baño etzituan iñork salbatzen;
Jaunari deadar egiten zioten, baño etzien erantzuten.
43. Aizeak eramaten duan auts biurtu nituan,
kaleetako lokatza bezela zapaldu.
44. Nere erriaren naspilletatik atera ninduzun,
atzerrien buru egin, erri arrotza menpeko izan nuan,
45. Arrotzak losintxaka neuzkan,
entzun eta esana egiten zidaten,
46. Arrotzak zurbildurik zeuden,
eta gorde-lekuak ikaraz uzten zituzten.
47. Gora Jauna! Bedeinkatua nere Arkaitza;
goratua izan bedi nere Jaungoikoa ta nere Salbatzallea;
48. neri lenerabidea eman,
eta erriak menpera ekarri zizkidan Jaungoikoa.
49. nere etsaiengandik askatu, nere erasotzalleen gain jaso,
eta biotz-gogorrarengandik onik atera ninduana.
50. Orregatik eskerrak emango dizkitzut,
Jauna, atzerrien artean,
eta zure izenaren omenez soñua joko det;
51. Zuk eman zenion garaitza aundia zure erregeari,
zure Igurtziari errukia izan zenion,
Dabid'i ta onen jatorriari beti-beti.

ANT.

Gora Jauna! Bedeinkatua izan bedi nere Arkaitza.

ANTIFONA 7

Entzun dezaizula Jaunak arrisku-egunean.

— 19 —

2. Entzun dezaizula Jaunak arrisku-egunean
Jakob'en Jaungoikoaren izenak gorde zaitzala!
3. Bialdu dezaizula laguntza bere jauretzetik,
izan dedilla zure sendogarri Sion-menditik;
4. izan ditzala gogoan zure eskeintza guztiak,
dakizkiola atsegin zure opariak;
5. eman dezaizula zure biotzak opa duana,
bete ditzala zure asmo guztiak;
6. Eta ospa al dezagula zure garaitza,
eta ikurriña jaso gure Jaungoikoaren izenean;
eman dezaizula Jaunak eskatzen diozun gutzia.
7. Ba-dakit orain Jaunak bere Igurtziari
garaipena ematen diola;
bere zeru santutik entzun diola,
bere esku garaitzallearen mirari-bidez.
8. Batzuek beren guda-gurdietan dute usteon,
beste batzuek beren zaldietan;
guk, gure Jaungoiko Jaunaren izenari dei egiten diogu.
9. Aiek erori ziran, lur jo zuten;
guk zutik irauten degu.
10. Jauna, emaiozu garaipena Erregeari,
eta entzun iguzu dei egiten dizugunean.

ANT.

Entzun dezaizula Jaunak arrisku-egunean.

ANTIFONA 8

Jauna, zure indarrarengatik poztu egiten da erregea.

— 20 —

2. Jauna, zure indarrarengatik poztu egiten da erregea
eta zenbat atsegintzen dan zure garaipenarengatik!
3. Bete diozu bere biotzaren ametsa,
ez diozu ukatu bere ezpañen eskabidea.
4. Onespén samurrez aurea artu zenion,
eta urre gorrizko koroia ipiñi diozu buruan
5. bizia eskatu zizun, eta zuk eman,
mugarik gabeko urte erreskada luzea.
6. Zure garaipenak aundi egin du aren izena,
edertasunez eta ospez jantzi dezu.
7. Eten gabeko onespénak ematen dizkiozu,
zure aurrean pozez betetzen dezu,
8. Erregeak Jaunagan itxaroten bait-du,
eta Goi-goikoaren graziz ez du uts-emango.
9. Zure ezkerak ar ditzala zure etsaiak,
eta zure eskuia eror dedilla zure aurka dituzunen gañera;
10. emaezu su labe bati bezela,
agertzen zeran egunean;
urtu ditzala Jaunak bere sumiñez
eta suak kixkali ditzala.
11. Ondatu ezazu lurrean aien jatorria,
eta gizartean aien azia.
12. Zure ondamentia gertatzen
eta azpikeriak eratzen ari ba'dira ere,
ez dute ezer iritxiko;

13. Zuk iges eragingo bait-diezu,
uztaia aien kontra luzatuaz.
14. Altxa zaitetz, Jauna, zure indarrez,
eta zure almenari kantatuko diogu soñu-laguntzez.

ANT.

Jauna, zure indarrarengatik poztu egiten da erregea.

ANTIFONA 9

Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atera bait-nauzu.

- 29 -

2. Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atera bait-nauzu;
eta ez diezu utzi nere etsaiari nere bizkar par-egiten.
3. Ene Jaungoiko Jauna, deadar egin nizun,
eta zuk sendatu egin ninduzun.
4. Jauna, zuk atera zenduan nere anima leizetik,
zulora ninjoanean, berpiztu egin ninduzun.
5. Jo soñua Jaunarentzat bere zintzoak;
eman eskerrak Aren izen santuari;
6. Aren asarrea une batekoa da;
Aren onginaia bizi guztikoa;
negarra datorkigu arratsaldean,
poz-atsegiña goizean.
7. Nik ala nion lasai nerekiko:
«beñere ez det kolokarik egingo»
8. Zure onginaiak, Jauna,
ospea ta indarra sendotzen zizkidan,
baño Zuk aurpegia ezkutatu zenidan,
eta larriturik gelditu nintzan.

9. Zuri egin nizun dei, Jauna,
nere Jaungoikoari egin nion erregu:
10. «Zer irabazten dezu nere eriotzarekin,
ni illobira jetxitzzarekin?
Eskerrik emango ote dizu autsak,
otsegingo ote du zure leialtasunik?»
11. Entzun Jauna, ta erruki zakizkit:
«lagun zakizkit, Jauna».
12. Nere negarra dantza biurtu zenduan,
zaku-soñekoa kendu ta jaietakoa jantzi didazu;
13. nere animak, ixildu gabe, abestuko dizu,
Nere Jaungoiko Jauna, beti emango dizkitzut eskerrak.

ANT.

Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atera bait-nauzu.

Fazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu... (19 orr.)



GORALTZAK I - AD LAUDES I

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Goratu ezazute Jauna poz-deadarka.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 46 -
2. Jo txaloak, erri guztiok;
goratu Jaungoikoa poz-deadarrez!
 3. Jauna goieneko da eta ikaragarri,
lurbira guziko errege aundi.
 4. Berak ipintzen dizkigu erriak gure mendean,
eta atzerriak gure oñazpian;
 5. Berak aukeratu ginduan beretzat sail;
Jakob, bere kutunaren aintza.
 6. Jainkoa oju-artean igotzen da,
Jauna turuta-otsetan;
 7. Jo soñua Jaungoikoarentzat, jo soñua!
jo gure erregearantzat, jo soñua;
 8. Jaungoikoa bait-da lur guztiaren errege;
jo ondo soñua!

9. Errege da Jainkoa atzerrietan,
Jainkoa bere jargoi santuan eserita dago;
10. Atzerritarren nagusiak Abraan'en Jainkoaren erriarekin
elkartzen dira;
Jaungoikoarenak bait-dira lurreko aundizkiak
ta Bera goi-goikoa da.

ANT.

Goratu ezazute Jauna poz-deadarka.

ANTIFONA 2

Egon erne nere otoitz-deadarretara, nere Errege ta Jaungoiko.

- 5 -

2. Entzun, Jauna, nere itzak,
entzun nere negar-zotiñak,
3. zaude erne nere otoitz-deadarretara,
nere Errege ta nere Jaungoiko.

Zuri erregutzen dizut!
4. Goizean goizik entzungo dezu nere eskaria;
goizean goizik agertzen dizut nere auzia
eta zai gelditzen naiz.
5. Etzera Zu gaizakeria maite dezun Jaungoikoa;
zure etxean ez da gaiztorik bizilagun,
6. arroak ere ez du irauten zure begien aurrean.

Gaizkilleai gorroto diezu,
7. gezurtiak ondatu egiten dituzu;
gizon odolzale ta ustela
gaitzetsi egiten du Jaunak.

8. Ni, berriz, zure onginai aundiagatik
zure etxean sartuko naiz,
zure Jauretxe santuan auzpestuko naiz, bildur-itzalez.
9. Eraman nazazu, Jauna, zure zuzenbidez,
etsaiak bait-ditut,
erreztu idazu zure bidea.
10. Aien agoan ez da egi-gogorik,
aien biotza gaiztoa da;
aien eztarria illobi zabal,
mingañez losintxatzen ba'dute ere.
11. Zigortu itzazu, Jaungoiko,
gal ditezela aien asmoak;
bota itzazu, aien oker ugariengatik,
zure aurka altxa bait-zaizkitzu.
12. Poztu ditezela zure babesean biltzen diranak,
betiko pozetan;
zaitu itzazu zure izena maite dutenak,
pozez bete ditezten.
13. Zuk, Jaun orrek, zintzoa bedeinkatu egiten bait-dezu,
eta zure onginaiak, babes-armaz bezela estaltzen.

ANT.

Egón erne nere otoitz-deadarretara, nere Errege ta Jaungoiko.

ANTIFONA 3

Aintzadun Jaunak trumoia jo du; otsegin ezazute Aren izenaren aintza.

- 28 -

1. Gora ezazute Jauna, Jaungoikoaren semeok,
goratu Jaunaren aintza ta almena!
2. otsegin ezazute Aren izenaren aundia;
auzpez zaitetzte Jaunaren aurrean, bere atari santuan.
3. Jaunaren AOTSA ur-gañean,
Aintzadun Jaunak trumoia jo du,
Jauna ugaldeen gañean!
4. Jaunaren AOTSA indartsua da,
Jaunaren AOTSA aundi-ederra!
5. Jaunaren AOTSAK autsi egiten ditu zedroak,
Jaunak autsi egiten ditu Libano'ko zedroak,
6. Libano'ri salto-eragiten dio idixkoari bezela,
baita Saron'i ere, basa-idiaren umeari bezela.
7. Jaunaren AOTSAK su-garrak botatzen ditu,
8. Jaunaren AOTSAK basamortua astindu egiten du,
Jaunak Kades'ko basamortua astindu egiten du.
9. Jaunaren AOTSAK arteak okertzen ditu,
eta basoak erabat zuritu.
Aren Jauretxean, guztiak batera «AINTZA» oju!
10. Ugoldearen gañean exertzen da Jauna,
Jauna betiko Errege bezela exertzen da.
11. Jaunak bere erriari indarra ematen dio,
Jaunak bere erria pakearekin bedeinkatzen du.

ANT.

Aintzadun Jaunak trumoia jo du; otsegin ezazute Aren izenaren aintza.

ANTIFONA 4

Zure izen ospetsua goratzen degu, Jauna!

Dabid'en abestia (1 Par., 29)

10. Bedeinkatua zera, Jauna,
gure aita Israel'en Jaungoikoa,
gizaldiz gizaldi.
11. Zureak dituzu, Jauna, almena ta aunditasuna,
aintza, edertasuna ta argitasuna;
zurea bait-da zeru-lurretan dagona;
Zu zera danaren errege ta Jauna!
12. Zuregandik datoz aberastasuna ta aintza;
Zu zera lurbiraren Jauna,
zure eskuan dago almena ta indarra,
Zuk jasotzen eta sendotzen dituzu guztiak.
13. Orregatik, guk eskerrak ematen dizkitzugu,
gure Jaungoiko orri,
zure izen ospetsua goraturik.

ANT.

Zure izen ospetsua goratzen degu, Jauna!

ANTIFONA 5

Gora ezazute Jauna atzerri guztiak!

- 116 -

1. Gora ezazute Jauna atzerri guztiak!
ospatu erri guztiak!

Aren guganako errukia sendoa da,
Aren leialtasunak beti irauten du.

ANT.

Gora ezazute Jauna atzerri guztiak!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Zakarias'en abestia

Benedictus

ANTIFONA

*Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna,
gu ikustatu ta erosi gaitualako.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



GORALTZAK II - AD LAUDES II

ANTIFONA 1

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko, zure onginaiaaren aundiz.

- 50 -

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANTIFONA 2

Erabilli nazazu, Jauna, zure zuzenbidez.

- 5 -

Entzun, Jauna, nere itzak... (75 orr.)

ANTIFONA 3

*Jaunak bere erriari indarra ematen dio
ta pakearekin bedeinkatzen du.*

- 28 -

1. Gora ezazute Jauna Jaungoikoaren semeok... (77 orr.)

ANTIFONA 4

*Baretu egin da zure sumiña, Jauna,
eta poztu egin nauzu.*

Isaias'en lenengo abestia (Is., 12)

1. Eskerrak ematen dizkitzut, Jauna,
nere kontra asarre zeunden;
baño baretu egin da zure sumiña
eta poztu egin nauzu.
2. Bera da nere Jaungoiko ta nere Salbatzalle;
usteon izango det eta ez bildurrik,
nere indar eta pozbide Jauna bait-det;
Bera izan zan nere osasun.
3. Eta osasun-iturrietatik
aterako dezute ura pozik;
4. Egun artan auxe esango dezute:
Emaizkiozute eskerrak Jaunari,
egiozute dei Aren izenari,
esan erriari Aren arrigarriak,
otsegin aren izena aundia dala.
5. Jo soñua Jaunarentzat, arrigarriak egin ditu-ta,
ager zaizkiozute lur guztiari;
6. egin deadar pozaren-pozez, Sion'en bizi zeratenak,
«Bai dala aundia Israel'go Santua
zuen erdian!»

ANT.

Baretu egin da zure sumiña, Jauna, eta poztu egin nauzu.

ANTIFONA 5

Gora ezazute Jauna, Aren guganako errukia aundia da-ta.

- 116 -

Gora ezazute Jauna, atzerri guztiok... (78 orr.)

Benedictus

ANTIFONA (Egunari dagokiona)

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



GOIZ-ALDEKO OTOITZA — AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Eskuak errugabe ta biotza garbi dauzkana igoko da Jaunaren mendira.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 23 -

1. Jaunarena da lurra ta bertan dagon guztia,
lurbira ta bertan bizi diran guztiak;
2. Ark jarri zuan itxasoen gañean,
Ark gogortu ibaien gañean.
3. Nor igo diteke Jaungoikoaren mendira?
Nor egon diteke Aren toki santuan?
4. Eskuak errugabe ta biotza garbi dauzkan gizona;
eta urkoaren kontra gezur-ziñik egiten ez duana,
5. Orlakoak artuko du Jaunaren bedeinkapena,
zuzenbidea egingo dio Jaungoiko Salbatzalleak.
6. Au da Jaunaren billa dabillen taldea,
Jakob'en Jaungoiko orri aurrera datorkizuna.
7. Ateok: Jaso itzazute zuen atal-buruak;
jaso ditezela antziñako atear,
sartzera dijoa aintzadun Erregea.

8. Nor da aintzadun Errege ori?
Jauna, indardun gizurena,
Jauna, gudatean kementsuena.
9. Ateok; jaso itzazute zuen atal-buruak;
jaso ditezela antziñako ateak,
sartzera dijoa aintzadun Erregea.
10. Nor da aintzadun Errege ori?
Jauna, Gudaritaldeen Jaungoikoa;
Bera da aintzadun Erregea.

- 18 -

2. Zeruak Jaungoikoaren aintza otsegiten du,
Izartegiak Aren eskuak egindakoa agertu;
3. egunak ematen dio albiste egunari,
eta gauak ixil-mixilka gauari.
4. Itzik esan gabe, ezer ogutzi gabe,
aotsik atera gabe,
5. lurbira osora irixten da aren deia,
eta aren mintzoa lurraren mugetaraño.
6. An goian ipiñi zion txabola eguzkiari;
senargaia gelatik bezela irten da bera,
gizaundi bat bezin pozik, bere bidea ibiltzera.
7. Zeruko ertz batetik irteten da,
eta aren itzul-ingurua beste ertzeraño iristen;
aren berotik ez du ezerk iges egiten.

- 18 - (II)

8. Jaungoikoaren legea bikaña da,
eta animaren atsedean;

- Jaunaren erabakia leiala da,
ezjakiñaren erakusmen.
9. Jaungoikoaren aginduak zuzenak dira,
ta biotzaren pozgarri;
Jaunaren araua ditzizaria da,
ta begien argi.
 10. Jaungoikoaren naia garbia da.
betirako iraunkor;
Jaunaren aginduak egiazkoak dira,
eta zuzenak betiko;
 11. urrea baño ederragoak,
urre gorria baño areago;
ebaraskatik darion ezta baño gozoagoak.
 12. Zure morroia oiek betetzeko erne ba'dago ere,
nork ezagutzen ditu bere utsegiteak?
 13. Ezkutua zaidanetik garbi nazazu.
 14. Zure morroia arrokeritik gorde zazu,
menderatu ez nazan;
orduak geldituko naiz
pekatu aunditik azke ta errugabe.
 15. Atsegingarri bekizkitzu nere agoko itzak,
eta iritxi bitez zure aurrera nere biotzeko gogoetak,
Jauna nere arkaitza, nere eroslea!

ANT.

*Eskuak errugabe ta biotza garbi dauzkana igoko da
Jaunaren mendira.*

BEDERATZIETAKO OTOITZA - AD TERTIAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Jauna det argi ta osasun.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 26 -

1. Jauna det argi ta osasun,
nori izan nik bildur?
Jauna det biziaren babes,
nork ni ikaratu?
2. Nere aragia jateko
gaiztoak nere kontra datozenean,
nere arerio ta etsaiak,
berak, oztopo egin eta erortzen dira.
3. Gudari-talde bat aurrez-aurre,
oial-txaboletan jartzen ba'zait ere,
nere biotza ez da ikaratzten;
nere kontra gudaketan asten ba'dira ere,
ni ez naiz estutzen.
4. Gauza bat eskatzen diot Jaunari,
orretxen billa nabil:
nere bizitzako egunetan

Jaunaren etxean bizi nadin;
Aren etxeari begira,
bere gozotan poztu nadin.

5. Ark zaituko nau bere oial-txabolan,
arrixku-egunean;
Ark gordeko nau bere etxearen ezkutuan;
jasoko nau arkaitz-gañera,
6. eta inguratzen nauten etsaien gañetik
jasoko det burua.
Aren oial-txabolan eskeñiko ditut
poz-opariak;
Jaunarentzat abestuko det eta soñua joko.

- 26 - (II)

7. Entzun, Jauna, deika naukazu,
Erruki zakizkit, erantzun zadazu.
8. Nere biotzean auxe entzuten det:
«Zabiltzate nere aurpegi-billa».
Jauna, zure aurpegi-billa ibilliko naiz,
9. ez gorde neri zure aurpegia.

Ez zapuztu morroi au zure asarrean;
Zu bait-zaitut nere laguntza.
Ez nazazu zapuztu, ez utzi ni,
nere Jaungoiko Salbatzalle orrek.
10. Nere aitak eta amak utzi ba'naute ere,
Jaunak jasoko nau.
11. Jauna, erakutsi idazu zure bidea;
eraman nazazu bide zuzenetik,
etsaiak ditut-eta.

12. Ez nazazu nere etsaiaren esku utzi,
gezur-testiguak ateratzen dira nere kontra
gogorkeriz beterik.
13. Ba-det uste on, bizitzaren errian,
Jaunaren zoriona izango dedala.
14. Izan usteon Jaunagan; kemen izan,
izan biotz, itxaron Jaunagan.

- 27 -

1. Zuri egiten dizut dei, Jauna,
nere arkaitz, ez egin entzungor nere aotsari;
entzuten ez ba'didazu,
zulora jeixten diranak bezela izango bait-naiz.
2. Entzun nere otoitz-aotsa, laguntza eskatzen dizudanean
nere eskuak zure etxe santura jasotzen ditudanean.
3. Ez nazazu gaiztoakin eraman,
ezta ere txarkeria egiten dutenakin;
urkoari pake-itzak esaten dizkiote,
baño gaiztakeria daramate biotzean.
4. Artu itzazu beren egiñai dagokienez,
beren egite gaiztoen neurriz;
ordain zaiezu beren eskuak egindakoa,
eman berak merezitakoa.
5. Jaungoikoaren egintzarik
eta Aren eskuak egindakorik
ez baitute ezagutzen;
Ark ondatu bitza bein-betiko.
6. Bedeinkatua Jauna,
entzun bait-du nere eskarien aots eskalea!

7. Jauna da nere indarra ta nere babeskiña;
Arengan du usteon nere biotzak;
lagundu zidan, eta pozik daukat biotza,
eta abestu egiten dio esker onez.
8. Jauna indarra da bere erriarentzat,
laguntza ta osasuna bere igurtziarentzat.
9. Salba ezazu zure erria ta bedeinka zure ondarea,
zakizkie artzai ta eraman itzazu beti.

ANT.

Jauna det argi ta osasun.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



AMABIETAKO OTOITZA - AD SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian, ezik:

Onez atera nazazu, Jauna, zure zuzentasunagatik.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 30 -

2. Zure babesera nator, Jauna,
ez nadilla beñere lotsatu;
zuzentasuna zera-ta onik atera nazazu,
3. makur neregana zure belarria;

atoz azkar ni salbatzera,
izan zakizkit aterpe-arkaitz,
ni onik aterako nauan babesleku;
4. zu bait-zera nere arkaitz eta gordeleku,

zure izenagatik zuzen erabil nazazu ta eraman;
5. gorde nazazu ipiñi didaten saretik,
zu bait-zera nere babes.
6. Zure eskuetan uzten det nere espiritua,
zuk askatuko nauzu, Jaungoiko leial orrek;
7. zuk gorroto dituzu
sasi-jainko bizigabeak gurtzen dituztenak;
nik, ordea, Jaunagan det uste on;
8. izan bedi zure errukia nere poz-atsegiñ,

Nere samiñari begiratu diozu,
arrixkuan daukadan bizia zaintzen didazu;

9. ez nauzu utzi etsaien esku,
nere oñak bide zabalean ipiñi dizkidazu.

- 30 (II)

10. Erruki zakizkit, Jauna, arrixkuan nago-ta,
nere begiak, nere eztarria ta nere erraiak.
oñazez igartzen ari zaizkit naigabetan
11. Nere bizitza urtzen ari zait
eta nere urteak aienetan;
nere indarra, miñaren-miñez, lur jota daukat,
nere ezurrak urtzen ari zaizkit.
12. Parragarri naiz nere etsaientzat,
nazkagarri nere auzokoentzat,
ikaragarri nere ezagunentzat,
kalean ni ikusi, ta iges egiten dute.
13. Ildako bat bezela aztuta naukate,
ezertarako ez dan ontzi bat bezela, baztartu naute,
14. Jendearen maxioak entzuten ditut,
eta danak bildur ematen dit;
nere kontra alkartu dira
ta neri bizia kentzeko asmotan dabiltz.
15. Nik, berriz, Jauna, zukan det usteon:
ta diotzut: «Zu zera nere Jaungoiko».
16. Zure eskuetan dago nere zoria;
aska nazazu aurrean narabilten nere etsaiengandik;
17. argi ezazu zure aurpegia zure serbitzariarentzat;
zure errukiagatik salba nazazu!
18. Ez nadilla lotsatu, Jauna, zuri dei egin dizudalako;
lotsa ditezela gaiztoak,
eta jetxi ditezela muturik leizera;

19. mututu bitez czpain gezurtiak,
zintzoaren kontra, arrokeriz, aundikeriz,
arronkak jotzen dituztenak.

— 30 — (III)

20. Zure zintzoai diezun onginaia
bai dala aundia, Jauna!
ta laguntza-eske dijoakizunai
guztien aurrean opa diezuna!
21. Zure aurpegiaren babesean gordetzen dituzu
gizonen maltzurkerietatik;
zure kutxategian gordetzen dituzu,
mingain lixkartietatik.
22. Bedeinkatua Jauna
arresiz inguratutako errian,
errukizko mirariak egin bait-ditu neregatik.
23. Nik nere larrialdian auxe esaten nuan:
«Zure begien aurretik bota egin nauzu»;
Baño, nik dei egiten nizunean,
Zuk entzun egin zenidan nere eskarien aotsa.
24. Maite ezazute Jauna, bere zintzo guztiak;
Jaunak bere zintzoa zaitu egiten du;
arroai, berriz, gañezka ordaintzen die.
25. Jaungoikoagan usteon dezuten guztiak.
zaitezte biotzdun eta kementsu.

ANT.

Onez atera nazazu, Jauna, zure zuzentasunagatik.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

IRURETAKO OTOITZA — AD NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Gora ezazute Jauna, zintzoak; merezi du zintzoen gorapena.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

— 31 —

1. Zorionsua bere errua barkatuta daukana,
bere pekatua lurperatu diotena;
2. zorionsua Jaunak gaiztakeririk
aintzat artzen ez diona!
3. Ni ixillik nengoenean,
ezurak urtzen zitzaizkidan,
egun osoan antsika;
4. gau ta egun zure eskua gañean bait-neukan;
nere bizi-zumua frutu legor biurtu zitzaidan.
5. Pekatu egin nuan; bai aitortu ere;
ez nizun ezkutatu nere gaiztakeria;
ala esan nuan: «Aitortu egingo diot Jaunari nere errua».
eta zuk barkatu egin zenidan nere errua ta nere pekatua.
6. Orregatik, eska dezaizutela zintzo guztiak zoritxar-aldian;
ugoldeak ez ditu murgilduko azpian.

7. Zu zaitut babesleku: zuk aterako nauzu arrixkutik,
askatasun-abestiz inguratzen nauzu.
8. Njk eskolatuko zaitut eta erakutsiko dizut
artu bear dezun bidea,
nere begiak zukan josiko ditut.
9. Etzaitzete zentzugabeak izan, zaldiak eta mandoak bezela;
aien bizitasuna muturrekoaz eta ao-ubelez ezi bear da,
bestela, ezingo zera inguratu.
10. Ugariak dira gaiztoen naigabeak;
Jaunagan usteon duana, errukiak inguratzen du.
11. Poztu zaitzete zintzoak, eta gozatu Jaunarengan,
gora ezazute, biotz zuzenekoak.

- 32 -

1. Gora ezazute Jauna, zintzoak,
merezi bait-du zintzoen gorapena;
2. Emaizkiozute Jaunari eskerrak zitaraz,
jo soñua Berari amar aridun arpaz!
3. Abestu zaiozute kanta berria,
bordoi-laguntzarekin ojuka goratuaz;
4. Jaunaren itza egia bait-da;
eta Ark egindako guztia leiala;
5. maite ditu Ark zuzentasuna ta eskubidea,
eta Aren errukiz betea dago lur osoa.
6. Jaunaren itzak egin zuan zerua,
Aren aoko arnasak bere gudari-taldeak;
7. Itxasoko urak zaragi batean biltzen ditu,
itxasoa ur-aska batean sartu.

8. Bildur bezaio Jaunari lur osoak,
beude deadarka Aren aurean lurrekoak,
9. Ark esan eta sortu bait-zan,
Ark agindu eta izaten asi.
10. Ezereztu egiten ditu Jaunak errien burubideak,
uts biurtu errien asmoak;
11. Jaunaren burubideak, berriz, betiko irauten dute,
Aren biotzeko asmoak gizaldiz-gizaldi.
12. Zorionsua Jauna bere Jaungoiko duan erri aldea;
Ark bere sail aukeratu duan erria!

- 32 - (II)

13. Jauna zerutik begira dago,
gizaki guztiak ikusten ditu;
14. begira-begira dago bere bizitokitik,
lurrean bizi diran guztiai begira;
15. Ark eratu ditu biotz guztiak,
eta ba-daki oiek egin duten guztien berri.
16. Ez du irabazten erregeak gudari-taldeen aundiagatik;
ez du gudariak iges egiten bere indar galantagatik.
17. Gauza utsa dira zaldiak garaipenerako,
eta ez da onik ateratzen gudaritalde ugariagatik;
18. Jaunaren begiak bere zintzoai begira daude,
usteona Aren errukian dutenai begira.
19. Aren biziak eriotzatik ateratzeko,
eta goseteen indarberritzeko.
20. Gu Jaunaren zai gaude,
Ura da gure laguntza ta gure babeskiñ;

21. Arekin poztutzen da gure biotza,
Aren izen santuan degu usteon.
22. Betorkigu, Jauna, zure errukia,
zuregandik itxaroten degun bezela.

ANT.

Gora ezazute Jauna, zintzoak; merezi du zintzoen gorapena.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Jaunak makurtu du neregana bere belarria.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 114 -

1. Maite det Jauna,
entzun egiten bait-du nere otoitz-deia;
2. dei egiten diodan egunean,
makurtzen bait-du neregana bere belarria.
3. Eriotz-sareak inguratzen ninduten,
leizeko sareak bildu .
atsekabean eta larrialdian erori nintzan.
4. Jaunaren izenari egin nion dei:
«Salba zaidazu bizia, Jauna!».
5. Jauna onbera ta zuzena da,
gure Jaungoikoa errukiorra;
6. Jaunak zaitu egiten ditu xotillak;
indarrik gabe nengoela, salbatu egin ninduan.
7. Zereganatu ezazu berriro pakea, nere anima,
Jauna ona izan da-ta zurekin;

8. nere anima eriotzatic atera zuan,
nere begiak negar-malkoetatik,
nere oñak erortzetik.
9. Jaunaren aurrean ibilliko naiz,
bizien lurrean.

ANT

Jaunak makurtu du neregana bere belarria.

ANTIFONA 2

Beteko dizkiot Jaunari nere ziñ-itzak, erri guztiaren aurrean.

- 115 -

- 1-10. «Ni bai zoritxarrekoa» esan nuanarren,
ba-nuan sinismen.
- 2-11. Nere estualdian ala nion:
«Gizonak gezurti utsak dira».
- 3-12. Nola ordainduko diot Jaunari
egin didan on guztia?
- 4-13. Osasun-ontzia jasoko det,
Aren izenari dei egiñaz.
- 5-14. Nere ziñ-itzak beteko dizkiot Jaunari
erri guztiaren aurrean.
- 6-15. Neke aundikoa da Jaunarentzat
Bere zintzoen eriotza.
- 7-16. Zure morroi naiz ni, Jauna,
zure morroi, zure mirabearen seme;
eten izkidazu nere kateak.
- 8-17. Gorapen-oparia eskeñiko dizut, Jauna,
zure izenari dei egiñaz.

- 9-18. Nere ziñ-itzak beteko dizkiot Jaunari,
erri guztiaren aurrean;
Jaunaren etxearen atarian,
Jerusalen, zure erdian.

ANT

Beteko dizkiot Jaunari nere ziñ-itzak, erri guztiaren aurrean.

ANTIFONA 3

Nik Jaunari dei egin nion eta Ark erantzun.

- 119 -

1. Nik larrialdian Jaunari dei egin nion
eta Ark erantzun.
2. Zaitu nazazu, Jauna, ezpain gezurtietatik,
mingain saltzalletik.
3. Zer emango dizu, ala zer aginduko Jaungoikoak
mingain saltzalle orri?
4. Uztaidunaren geziak
ote-illintiz zorroztuak.
5. Erruki ni! Nasan'en erbestetua,
Kadar'en oial-txabolatua!
6. Luzaroegei bizi naiz
pakea gorroto dutenakin:
7. Nik «Pakea» diodanean,
aiek «Guda» diote!

ANT

Nik Jaunari dei egin nion eta Ark erantzun.

ANTIFONA 4

Zeru-lurrak egin zituan Jaunarengandik datorkit laguntza.

— 120 —

1. Nere begiak mendietara jasotzen ditut;
nondik etorriko da laguntza?
2. Zeru-lurrak egin zituan Jaunarengandik
datorkit laguntza.
3. Ez dio utziko zure oñari irristatzen,
zure zaitzalleak ez du lorik egiten;
4. Israel'en zaitzalleak
ez du lorik egiten ez atsedetik artzen.
5. Jaunak zaitzen zaitu bere itzalpean;
zure eskuian dago;
6. egunaz ez dizu kalterik egingo eguzkiak,
gauetz ere ez illargiak.
7. Jaunak zaitzen zaitu gaitz guztitik,
Ark zaitzen du zure anima;
Jaunak zaitzen ditu zure sartu-irtenak,
orain da beti.

ANT

Zeru-lurrak egin zituan Jaunarengandik datorkit laguntza.

ANTIFONA 5

Ura poza nerea, «Jaunaren etxera goaz» esan zidatenean.

— 121 —

1. Ura poza nerea:
«Jaunaren etxera goaz» esan zidatenean!

2. Jerusalem, or ditugu gure oñak
zure ate-ondo-aurrean.
3. Jerusalem, ondo batutako erria bezela,
jasoa dago.
4. Ara igotzen dira leiñuak,
Jaunaren leiñuak,
Israel'ko oitura danez.
Jaunaren izena ospatzera;
5. an daude auzi-maiak,
Dabid'en jauregian.
6. Opa iozute pakea Jerusalemi,
«Lasai bizi bitez zu maite zaituztenak;
7. bedi pake zure arresi-barruan,
lasaitasun zure jauregietan».
8. Nere senide ta lagunengatik,
esan dezadan: «Pakea zuregan».
9. Gure Jaungoiko Jaunaren etxearengatik,
ondasun guztia opa bait-dizut.

ANT.

Ura poza nerea, «Jaunaren etxera goaz» esan zidatenean.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Magnificat

ANTIFONA

Nere animak Jaunaren aunditasuna goresten du;
ni ain txikia ikusi naulako.

Nere animak Jaunaren aunditasuna goresten du... (55 orr.)

ARRATSEKO OTOITZA — AD COMPLETORIUM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Salba nazazu, Jauna, zure errukiagatik.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 6 -

2. Ez idazu erritik egin, Jauna, zure asarrean,
ez nazazu sumiñez zigortu.
3. Erruki zakizkit, Jauna, indar gabe nago-ta;
senda izkidazu nere ezur askatuak.
4. Zoraturik daukat anima,
eta Zu, Jauna, noiz arte?
5. Biurtu zakizkit, Jauna, askatu zazu nere anima,
salba nazazu zure erukiagatik;
6. eriotz-errian ez bait-dizu iñork dei egiten,
eta Leizean nork goratuko zaitu?
7. Antsika aulduta nago,
gauero oean negar egiten det,
negar-malkoz bustitzen det etzatokia.
8. Nere begiak, gorri-gorri, urtzen ari zaizkit,
zaartzen ari dira ainbeste ezbearrez.
9. Alde neregandik gaizkilleak,
nere negar-zotiñak entzun bait-ditu Jaungoikoak.

10. Entzun du Jaunak nere eskabidea,
aintzat artu du Jaunak nere otoitza.
11. Lotsaz bete ditezela nere etsaiak,
eta lotsaturik, berealako batean iges egin dezatela.

- 7 -

2. Nere Jaungoiko Jauna, zure babespera nator
askatu nazazu erasotzen didaten guztiengandik, eta salbatu;
3. Ez nazatela leoiak bezela arrapatu,
eta igesbiderik gabe txikitu.
4. Nere Jaungoiko Jauna! Errudun ba'naiz,
nere eskuetan gaizki egiñik ba'da,
5. nere ongilleari gaitzik egin ba'diot,
zapaltzalle bidegabeari lagundu ba'diot,
6. etsaiak jarraitu ta arrapa nazala,
bizi-bizirik lurrean zapaldu nazala,
nere sabela autsetan estutuaz.
7. Jaiki, Jauna, zure asarrearekin,
altxa sumiñez nere etsaien kontra,
zatozkit laguntzera,
egiañazi dezun auzian.
8. Errien batzarrak erdian artu zaitzala,
eta ipiñi zazu zure aulkia aien goien-goienean.
9. Errien epaille, Jauna da.

Epaitu nazazu, nere errugabearen neurriz,
ta nere zintzotasunari dagokionez.
10. Bukatu bedi errudunen biurrikeria,
eta lagun zaiozu errugabeari,
biotzak eta erriak aztertzen dituzun orrek,
Zuk, Jaungoiko zuzen orrek.


- 7 - (II)

11. Jaungoikoa det babeskiñ,
biotz-zuzenak salbatzen dituana.
12. Jaungoikoa epaille zuzena da,
Jaungoikoak egunero zematzen du.
13. Biurtzen ez ba'dira, ezpata zorroztu egingo du,
uztaia estutu ta gerturik euki.
14. Bere arma ilgarriak gertu ipintzen ditu,
eta prestatu bere zuzi kiskalgarriak.
15. Ara: gaiztakeriak sortu zuan,
okerkeria dauka sabelean,
eta maltzurkeria ume egin du.
16. Zuloa egin zuan lurrean eta ondo sakondu,
eror bedi egin zuan zuloan;
17. bijoakio bere gaiztakeria buru-gañera,
eror bekio gogorkeria bere buru-ezur-gañera.
18. Eskerrak emango dizkiot nik Jaunari,
bere zuzentasunagatik,
eta soñua joko det
Goi-goikoaren izenarentzat.

ANT.

*Salba nazazu, Jauna, zure errukiagatik.**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.**Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"*

ANTIFONA

*Jauna: Salba gaitzazu...**Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela... (58 orr.)***ASTEARTEA**

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA - AD MATUTINUM

*Otoitzerako deia - Invitatorium**Lelo.* Poz-irrintzi egiozute Jaungoikoari * Salbatu gaituan
Arkaitzari.

1. Zatozte; gora dezagun Jauna... (7 orr.)

Gorasarrea - Hymnus

ANTIFONA I

*Pazko-aldian ezik:**Borroka zaitetz, Jauna, nere kontra ari diranakin.**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

- 34 -

1. Borrokatu zaitez, Jauna, nere kontra datozenakin;
guda egin nere kontra gudan ari diranakin.
2. ártu itzazu babeskiña ta larru-adarga,
altxa zaitez eta etorri neri laguntzera;
3. dantzatu azta-makilla
eta itxi bidea erasotzen didatenai;
esan nere animari: «Ni naiz zure garaipena».
4. Ondamendi lotsagarria ar bezate ni iltzeko dabiltzanak.
egin bezate iges lotsa gorritan,
nere kaltez dabiltzanak.
5. Aizetan lasto izan bitez,
Jaunaren aingeruak erasotzen dienean,
6. bidea, illun eta irrixtakor izan bekie,
Jaunaren aingeruak aurrean daramazkinean;
7. Bidegabez aurrean sareak ipiñi,
eta zulo galgarriak zabaltsen bait-dizkidate;
8. Betorkie bat-batean ondamendia,
bil bitza ezkutatu zuten sareak,
eta eror bitez berak egindako zuloan.
9. Eta ni Jaunagan poztuko naiz,
Aren garaipenez alaituaz;
10. Nere izate guztiak auxe otegingo du:
«Nor zu bezelakorik, Jauna,
aula askatzen bait-dezu indartsuagandik,
eta beartsua lapurragandik?».

ANT.

Borroka zaitez, Jauna, nere kontra ari diranakin.

ANTIFONA 2

Zaitu ezazu, Jauna, nere bizia, orruka daudenengandik.

- 34 - II

11. Gezurrezko testiguak agertzen ziran,
ez nekizkian gauzak salatzen zizkidaten;
12. onaren ordain txarra biur zidaten,
laguntza gabe uzten nindutela.
13. Ni, ordea, aiek gaxorik zeudenean,
zakuz jazten nintzan,
barau gogorak egiten nituan,
eta otoitz eta otoitz nere barruak.
14. Adiskidearengatik edo anaiarengatik bezela
goibel nebillen;
buru-makur eta illun,
ama il zaiolako negar egiten duana bezela.
15. Baño, ni erori nintzanean,
poztu egin ziran; nere kontra bildu
eta uste gabeen jo ninduten,
asper gabe atzamarka ari zitzaizkidan.
16. Erruki gabe irri ta parra egiten zidaten,
ortzak gorrotoz karrazka.
17. Jauna, noiz ikusi bear dezu?
gorde zazu nere bizia orruka daudenengandik,
nere on bakarra leoiengandik.

ANT.

Zaitu ezazu, Jauna, nere bizia, orruka daudenengandik.

ANTIFONA 3

Altxa zaitetz, Jauna, egizu nere auziaren alde.

- 34 - III

18. Eta eskerrak emango dizkitzut batzar nagusian,
goratuko zaitut erriko jendetzaren aurrean.
19. Ez bitez gallen atera nere etsai gaiztoak;
bide gabe gorroto didatenak
ez bitez, kiñuka, parrez ari nere bizkar.
20. Ez dira bizi pakean,
jende paketsuarekin ere;
maltzurkeriz ari dira;
21. par-algaraka ari zaizkit, onela esaten:
«Gure begiz ikusi degu ori!»
22. Zuk ikusi dezu, Jauna; ez ixillik egon;
Jauna, etzaitetz urruti gelditu;
23. Esna zaitetz, altxa zaitetz, nere Jaungoiko!
nere Jauna, atera nere auziaren alde;
24. Epaitu nazazu zuk, zure zuzentasunaren neurritz;
nere Jaungoiko Jauna, ez bitez nere bizkar gallen gelditu;
25. ez bezate pentsa: «Ara! Guk nai genuana!»
ez bezate esan: «Irentsi degu!»
26. Ondamendi lotsagarria arki bezate,
nere zoritxarraz poztutzen diranak;
lotsaz eta itxuskeriz bete bitez,
nere lepotik arrotzen diranak.
27. Pozaren pozez kanta bezate,
nere garaipena opa dutenak;
esan bezate asper gabe: «Aundia da Jauna!»,
zure morroiari pakea opa diotenak.

28. Nere mingañaak zure zuzentasuna otsegingo du,
egunero goratuko zaitu.

ANT.

Altxa zaitetz, Jauna, egizu nere auziaren alde.

ANTIFONA 4

Ez sumindu txarkeria egiten duten gaiztoengatik.

- 36 -

1. Ez sumindu gaiztoengatik,
ez izan gaizkilleentzat bekaitzik;
2. laxter igartuko dira, belarra bezela,
zotal ezea bezela zimelduko dira.
3. Izazu usteon Jaungoikoagan eta egin on dana,
bizi zaitetz zure lurrean eta izan leiala;
4. izan bedi Jauna zure atsegia
eta berak emango dizu zure biotzak nai duana.
5. Jar ezazu zure bidea Jaunagan;
itxaron Argan; eta berak egingo du;
6. zure zuzentasuna egun-sentiaren antzeko egingo du,
zure eskubidea, eguerdiaren antzeko.
7. Bizi lasai Jaunagan eta itxaron;
ez sumindu, azpikeri-bidez, gallen atera dan gizonarengatik.
8. Ito sumiña ta utzi asarrea;
ez berotu, gaizki egin ez dezazun.
9. Gaiztakeria egiten dutenak
baztarturik geldituko dira;
Jaungoikoarengan usteon dutenak, berriz,
lurraren jabe izango dira.

10. Zaude pixka batean: ezkutatu zan gaiztoa,
begira aren lekua; ez dago an;
11. otzanak, berriz, lurraren jabe dira,
eta pake ederrean bizi dira.
12. Gaiztoa zintzoaren kontra dabil azpi-jorran,
ortz-karrazka ari da aren kontra
13. baño, Jaunak parra egiten dio,
ikusten bait-du bere ordua ba-datorkiola.
14. Gaiztoak ezpata ateratzen dute,
ta uztaia luzatzen,
beartsuak eta apalak txautzeko,
zuzen dabiltzanak iltzeko.
15. Baño, beren ezpata biotzean sartuko zaie,
eta uztaiak autsi egingo zaizkie.

ANT.

Ez sumindu txarkeria egiten duten gaiztoengatik.

ANTIFONA 5

*Gaiztoari besoak autsi egingo zaizkio; zintzoari, berriz,
Jaunak eusten dio.*

- 36 - II

16. Obe da gutxirekin ona izan,
ugaritasunean gaiztoa izan baño;
17. gaiztoari autsi egingo bait-zaizkio besoak,
zintzoari, berriz, Jaunak eusten dio.
18. Jaunak zaitzen ditu zintzoen egunak,
eta aien ondareak beti iraungo du;

19. ez dira igartuko legortean,
aseko dira gosetean.
 20. Gaiztoak, berriz, ondatu egingo dira;
Jaunaren etsaiak,
zelai baten edertasuna bezela igartu,
ketan ezereztu.
 21. Gaiztoak korrituan eskatu, ta biurtu-ez, egiten du;
zintzoak, berriz, biozpera da, eta barkatu egiten du.
 22. Jaunak bedeinkatzen ditunak lurraren jabe dira;
Ark madarikatzen ditunak, bazartuak.
 23. Jaunak zuzentzen ditu gizonaren oinkadak,
atsegin zaizkio aren bideak;
 24. Oztopo egin-da ere ez da eroriko,
Jaunak eusten bait-dio eskutik.
 25. Gazte izan nintzan; orain zaarra naiz;
ez det beñere ikusi laguntza gabe utzitako zintzorik,
ezta ere ogi-eske aren jatorrikorik.
 26. Egunero errukior da ta aurreratua ematen du;
bedeinkatua izango da aren jatorria.
 27. Egizu iges txarretik eta egin on;
eta izango dezu beti etxea.
 28. Jaunak maite bait-du zintzotasuna,
eta ez ditu uzten bere zintzoak.
- Gaiztoak betiko ondatuta geldituko dira,
eta gaiztoen azia galduta.
29. Zintzoak, ordea, lurraren jabe izango dira,
eta an bizi izango dira beti-betiko.

ANT.

*Gaiztoari besoak autsi egingo zaizkio; zintzoari, berriz,
Jaunak eusten dio.*

ANTIFONA 6

Ikus zintzoa, begira zuzenari.

- 36 - III

30. Zintzoaren aoak jakinduria azaltzen du,
aren mingañoak zuzentasuna erakusten;
31. bere Jaungoikoaren legea biotzean bait-darama,
eta aren oñak ez dute kolokarik egiten
32. Gaiztoa zintzoaren zelataka dago,
ari bizia nola kenduko.
33. Baño, Jaunak ez du aren eskuan uzten;
ezta ere auzian gal dezaten.
34. Izan usteon Jaunagan; jarrai aren bideari;
Berak jasoko zaitu lurraren jabe izatera,
eta gaiztoa andik botata ikusiko dezu.
35. Gaizto bat arronkak jotzen ikusi nuen,
zedro mardula bezela tantai azitzen;
36. berriro igaro nintzan, eta etzegon an,
billa ibilli, ta ez nuan arkitzen.
37. Ikus zintzoa, begira zuzenari;
pakea du etorkizuna;
38. Gaiztoak zearo ondatuta geldituko dira,
okerren etorkizuna galduta.
39. Jaunak salbatzen ditu zintzoak,
bera da arrixkuan aien gordeleku.
40. Jaunak zaitzen ditu eta askatzen,
eta, gaiztoetatik onez ateratzen;
Aren babespera jotzen bait-dute.

ANT.

Ikus zintzoa, begira zuzenari.

ANTIFONA 7

Ez idazu erritik egin, Jauna, zure asarrean.

- 37 -

2. Ez idazu erritik egin, Jauna, zure asarrean,
ez nazazu zigortu zure sumiñean;
3. zure geziak nigan josi dira,
zure esku astuna gañean daukat;
4. ez daukat nere aragian zauri gabeko zatirik,
zure asarrea dala-ta;
nere ezurrak ez dute atsedunik,
nere pekatuak dirala-ta.
5. Nere erruak buruz-gain dauzkat,
nere indarrentzat aztunegi dira;
6. ustela ta kiratsa darie nere ezurrai,
nere ergelkeriaren erruz;
7. makurtuta, guztiz aulduta,
goibel nabil egun guztian;
8. sorbaldak sukarrez kixkaltzen dauzkat,
ez dago zati osorik nere aragian;
9. jota nago, zearo ondatua,
leoiak baño aundiagoa egiten det orrua.
10. Nere irrika guztiak zure aurrean daude, nere Jauna,
nere intzirriak etzaikitzu ezkutatzen;
11. Biotza taupaka nabari det,
indarrak erabat uzten naute,
eta begietako argirik ere ez daukat.
12. Nere adiskide ta lagunak alde egin didate,
senitartekoak urruti gelditzen zaizkit;

13. eta nere kontra dabiltzanak
sareak ipintzen dizkirate;
nere ondamendia nai dutenak
eriotzarekin zematzen naute,
egun osoan azpikeriak asmatzen ari dira.

ANT.

Ez idazu erritik egin, Jauna, zure asarrean.

ANTIFONA 8

Zatoz azkar neri laguntzera, nere Jauna, nere salbatzallea!

- 37 - II

14. Nik, berriz, gor baten antzera ez det entzuten,
mutu baten antzera, aorik ez det zabaltzen.
15. entzuten ez duana bezela,
erantzun ezin duana bezela.
16. Zugan det usteon, Jauna,
eta Zuk entzungo didazu, nere Jaungoiko Jauna!
17. Au eskatzen det: ez ditezela poztu nere bizkar;
nere oña irrixtatzean, ez ditezela gallendu.
18. Ni eror-zorian bait-nago,
eta naigaberik etzait joaten;
19. Aitortzen det nere errua,
naigabetan nauka nere pekatuak;
20. Nere etsai amorratuak altsuak dira,
asko dira bidegabe gorroto nautenak,
21. onaren ordain txarra biurtu,
onegin naiean nabillela, erasotzen didatenak.

22. Ez nazazu erabat utzi, Jauna,
ene Jaungoiko, ez egon neregandik urruti!
23. Zatoz azkar neri laguntzera,
nere Jauna, nere Salbatzallea!

ANT.

Zatoz azkar neri laguntzera, nere Jauna, nere salbatzallea!

ANTIFONA 9

Ken nigandik zure zartadak, Jauna!

- 38 -

2. Auxe nion nerekiko: zaituko det nere jokabidea,
nere mingañoak ez-esatekorik esan ez dezan;
galga ipiñoiko diot nere aoari,
gaiztoa nere aurrean dagoken bitartean.
3. Etsi-etsian ixillik egon nintzan;
ez nuan ergelkeririk esan.
Baño nere zauria gaiztotu egin zan,
4. eta biotza sutan neukan barruan;
ori pentsatzeak erremindu egiten ninduan,
itzegiten asi nintzan artean.
5. Jakin-erazi idazu, Jauna, nere azkena,
eta nere urteen neurria zein dan,
zeñen suntsikorra naizen jakin dezadan.
6. Arrabete bizi eman zenidan,
nere egunak ezer ez dira zure aurrean;
aize-une bat besterik ez du irauten gizonak;
7. itzala bezela igarotzen da,
aize-une batengatik dabil kezketan,

aberastasunak pillatzen ditu,
ta ez jakin norentzat.

8. Eta orain, Jauna, zer itxaro dezaket?
Zu zaitut itxaropen.
9. Atera nazazu nere gaiztakerietatik,
ez nazazu utzi burugabeen parragarri.
10. Ixillik nago, ez det aorik zabaltzen,
Zu bait-zera egin dezuna.
11. Ken neregandik zure zartadak,
ezereztu egiten bait-nau zure eskuaren gogorak.
12. Utsegiteengatik zigortuaz,
zentzatzen dezu gizona,
pipiak bezela jaten dituzu aren ondasunak;
gizona aize-une bat besterik ez da.
13. Entzun, Jauna, nere eskabidea;
aintzat artu nere deadarrak;
ez egin entzungor nere negarrari.

arrotz bait-naiz zurean,
atzerritar, nere guraso guztiak bezela.
14. Eztitu zaitetz, idazu arnas,
igaro, ta izan ez nadin baño len.

ANT.

Ken nigandik zure zartadak, Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu... (19 orr.)

GORALTZAK I - AD LAUDES I

ANTIFONA I

Pazko-aldian ezik:

Abestu zaiozute Jaunari ta bedeinka Aren izena.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 95 -

1. Abestu zaiozute Jaunari kanta berria,
abestu Jaunari, lur osoa;
2. abestu Jaunari, bedeinka Aren izena,
otsegin egunero Aren garaipena.
3. Esan erriai Aren aintza,
atzerri guztiai Aren mirariak,
aundia bait-da Jauna, guztiz goragarria
jainko guztiak ez bezin bildugarria.
4. Atzerritarren jainkoak itxurakeri dira;
Jaunak, ordea, zerua egin du;
5. Aintza ta aunditasuna dijoaz Aren aurretik,
indarra ta edertasuna daude Aren jauretxean.
6. Gora ezazute Jauna, errietako sendiak,
goratu Jaunaren aintza ta indarra,
7. goratu Jaunaren izenaren aintza,
sar zaitetzte Aren atarietan, Berari opariak eramanez;

8. Auzpeztu zaitetze Aren aurrean Aterpe Donean,
bego dardaraz lur osoa Aren aurrean.
9. Esaiezute erriai: «Jauna errege da,
Ark gogortu zuan lurra eta ez da mugituko;
Ark agintzen du zuzenbidez errietan.
10. Poztu bedi zerua, alaitu lurra,
egin beza orru itxasoak, eta betetzen duan guztiak;
11. oju egin dezatela lurra eta bertan dagon guztiak
eta irrintzi basoko zugaitzak,
12. Jaunaren aurrean, ba-dator-ta;
ba-dator lurrean agintzera,
13. zuzenbidez aginduko du lurrean,
eta leialtasunez errietan.

ANT.

Abestu zaiozute Jaunari ta bedeinka Aren izena.

ANTIFONA 2

Nere aurpegiaren osasun, nere Jaungoiko!

- 42 -

1. Egidazu zuzenbide, Jaungoiko, atera zaitetz nere auzi-alde,
erruki gabeko jendeen kontra;
gorde nazazu gizon maltzur eta gaiztoengandik.
2. Zu zera nere Jaungoiko ta salbatzalle,
zergatik zapuztu nauzu?
zergatik nabill goibel,
nere etsaiak erasotzen didatela-ta?

3. Biali zure argia ta egia;
oiek zuzendu ta eraman nazatela
zure mendi santura, zure Bizitokira.
4. Igo nadin Jaungoikoaren aldarera,
nere poza dan Jaungoikoarengana;
eman dezaizkitzudala eskerrak zitara-otsez,
Jaungoiko, nere Jaungoiko!
5. Zergatik larritzen zera, nere anima?
zergatik kezkatzen zakizkit?
Itxaron ezazu Jaunagan, berriz ere goratuko dezu:
«Nere aurpegiaren osasun, nere Jaungoiko!».

ANT.

Nere aurpegiaren osasun, nere Jaungoiko!

ANTIFONA 3

Jauna, argi egin bezaigu zure aurpegiak.

- 66 -

2. Erruki bezaigu Jaunak eta bedeinka gaitzala,
argitu beza bere aurpegia gure gañera;
3. ezagutu bitza lurra zure bideak,
erri guztiak zure salbamena.
4. Ene Jaungoiko! gora zaitzatela erriak,
goratu zaitzatela erri guztiak!
5. Kanta bezate pozez atzerriak,
zuzenbidez bait-darabilkizu mundua
zuzentasunez erriak
eta munduko errialdeetan zuk agintzen dezu.

6. Ene Jaungoiko! gora zaitzatela erriak,
goratu zaitzatela erri guztiak!
7. Lurrak bere uzta eman digu:
gure Jaungoiko Jaunak bedeinkatzen gaitu,
8. bedeinka gaitzala Jaungoikoak;
bildur bezaiote lurraren azken-mugetarañoakoak.

ANT.

Jauna, argi egin bezaigu zure aurpegiak.

ANTIFONA 4

Gora ezazute zuen egiteen bidez gizaldien Erregea.

Tobias'en abestia. (Tob., 13)

1. Bedeinkatua izan bedi betierean bizi dan Jaungoikoa,
gizaldietan irauten bait-du bere erregetzak;
zigortu eta errukitu egiten da,
leizeraño amildu, eta atera egiten du andik;
eta ez da aren eskutik iges egingo duanik.
2. Emaizkiotzute eskerrak atzerritarren aurrean,
israeldarrak, berak zabaldu bait-giñuan aien artean.
3. Otsegin or Aren aunditasuna,
gora ezazute bizidun guztien aurrean:
bera bait-da gure Jaungoiko ta Jauna,
bera gure aita gizaldien gizaldietan.
4. Zigortu egiten gaitu gure gaiztakeriengatik,
baño, berriz errukituko da,
eta sakabanatuta zaudeten erri guztien artetik,
elkartu egingo zaituzte.

5. Biotz-biotzez eta gogo betez
Aregana biurtzen ba'zerate, leial ibilliaz,
biurtuko da zuengana
eta ez dizute bere aurpeirik ezkutatuko.
6. Ikusiko dezute zuekin egin duana,
eta eskerrak emango dizkiozute, aoa betean,
zuzentasunaren Jauna bedeinkatu egingo dezute,
eta gizaldien Erregea goratu.
7. Giltzapean, nik eskerrak ematen dizkiot,
eta Aren aunditasuna ta almena otsegin
erri pekatariari.

Biurtu zaitezte pekatariak,
egizute zuzen dana, Aren aurrean,
agian biotz-bigun agertuko zaizute,
eta zuen errukia izango du.
8. Zeruko errege dan nere Jaungoikoa goratuko det,
eta Aren aunditasunarekin poztu egingo naiz.

ANT.

Gora ezazute zuen egiteen bidez gizaldien Erregea.

ANTIFONA 5

Gora ezazute Jaunaren izena, Aren etxean zaudetenak.

— 134 —

1. Goratu ezazute Jaunaren izena,
goratu, Jaunaren morroiak,
2. Jaunaren etxean zaudetenak,
gure Jaungoikoaren atarian zaudetenak.

3. Gora ezazute Jauna, ona da-ta,
jo soñua Aren izenari, maitagarria da-ta.
4. Jakob aukeratu bait-zuan beretzat,
Israel bere sailtzat.
5. Ba-dakit nik Jauna aundia dala,
gure jainko guztiak baño jabeago.
6. Jaunak nai duan guztia egiten du zeru-lurretan,
itxasoetan eta uraundietan.
7. Odeiak zeru-mugatik gora igoerazten ditu,
tximistaz erausia sortu.
beren zuloetatik aizeak askatu.
8. Berak zauritu zitun Egitoko lensemeak,
gizonetatik abereetañoakoak.
9. Ezaugarriak eta mirariak bialdu zituan,
- Egito zure erdian -
Faraon'en eta onen morroien kontra.
10. Erri ugariak zauritu zituan, eriotzaz,
errege altsuak il:
11. Sijoan, amorreotarren erregea,
Og, Basan'go erregea,
eta Kanan'go errege guztiak,
12. Eta aien lurra, Israel, bere erriari,
eman zion ondare.
13. Jauna, zure izena betikoa da;
gizaldiz-gizaldi, Jauna, zure oroipena.
14. Jaunak zuzentzen bait-du bere erria,
eta erruki du bere morroia.
15. Atzerritarren sasi-jainkoak zillar eta urre dira,
giza-eskuz egina;

16. agoa bai, ta ez dute itzegiten,
begiak bai, ta ez dute ikusten,
17. belarriak bai, ta ez dute entzuten,
ez da arnasik aien agoan.
18. Izan bitez berdin oiek egiten dituztenak,
oietan usteon dutenak.
19. Israel'en etxea, bedeinka ezazu Jauna;
Aaron'en etxea, bedeinkatu Jauna.
20. Lebi'ren etxea bedeinka ezazu Jauna,
Jaunaren zintzoak bedeinkatu Jauna.
21. Bedeinkatua Sion'en,
Jerusalen'en bizi dan Jauna!

ANT.

Gora ezazute Jaunaren izena, Aren etxean zaudetenak.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Benedictus

ANTIFONA

*Jaunak osasun-indarra sortu du,
bere morroi Dabid'en etxean.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)

GORALTZAK II - AD LAUDES II

ANTIFONA 1

Garbitu nere errua, Jauna, zure errukiaren aundiz.

- 50 -

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANTIFONA 2

Egizu nere alde auzian, Jaungoiko, erruki-gabeko jendeen aurrean.

- 42 -

Egidazu zuzenbide, Jauna... (118 orr.)

ANTIFONA 3

Erruki izan eta bedeinka gaitzala Jaunak.

- 66 -

Erruki bezaigu Jaunak... (119 orr.)

ANTIFONA 4

Sendatu egin nauzu, Jauna; berriro birpiztu.

Ezekias'en abestia. (Is., 38)

10. Auxe esan nuan nerekiko: «Nere egunen erdian, ba-nijoa Leizeko ateetara, gelditzen zitzaizkidan urteak kendu dizkidate.
11. Auxe esan nuan nerekiko: «Ez det Jauna geiago ikusiko bizien lurrean, ez det onezkeru gizonik ikusiko, lurreko bizilagunen artean.
12. Artzaien oial-txabol bat bezela, jasotzen eta biltzen dute nere bizia; euleak bezela ariltzen nuan nere bizia, eta ebaki egin didate euna».
Gau ta egun ari zera ni suntsitzen,
13. egunsentirarte nago negarrez.
Leoi batek bezela austen dizkidazu ezurrak;
gau ta egun ari zera ni suntsitzen.
14. Enara bezela, txioka nago,
usoa bezela urrumaka.
Urtu egiten zaizkit begiak zerura begira;
larri nago, Jauna; erantzun ezazu nere ordezi!
15. Zer asmatuko ote det eta zer esango
Berak egiten ba' du ori?
Loak iges egiten du neregandik,
nere animako naigabearengatik.
16. Jaungoikoak laguntzen dienak bizi dira,
eta aien artean biziko da nere espiritua;
sendatu egin nauzu; berriro bizi-erazi.

17. Naigabea pake biurtu zitzaidan,
nere anima illobi utsaren aurrean gelditu zenduanean,
eta nere pekatu guztiai atzea eman zenienean.
18. Leizak ez dizu eskerrik ematen,
eriotzak ere etzaitu goratzen;
eta illobira dijoazenak ere
ez dute usterik zure leialtasunean.
19. Bizidunak, bai, bizidunak dira goratzen zaituztenak,
nik gaur bezela.
Aitak erakusten dio semeari zure leialtasuna.
20. Salba nazazu, Jauna; eta egunero joko ditugu arpak,
Jaunaren etxean.

ANT.

Sendatu egin nauzu, Jauna; berriro birpiztu.

ANTIFONA 5

Goratu ezazute Jauna, ona da-ta; erruki ditu bere morroiak.

- 134 -

Gora ezazute Jaunaren izena... (121 orr.)

Benedictus

ANTIFONA

*Jaunak salbamen-indarra sortu du
bere morroi Dabid'en etxean.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)

GOIZ-ALDEKO OTOITZA — AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Ene Jaungoiko! Zugan det usteon, ez nadilla lotsatan gelditu.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 24 -

1. Zuregana jasotzen det, Jauna, nere anima,
2. Zugan det usteon;
nere Jaungoiko, ez nadilla lotsatan gelditu.
Ez bezizkit gallendu nere etsaiak
3. Zugan usteon dutenak,
ez bait-dira lotsatan gelditzen;
billauak, ordea, ezbearrak galtzen ditu.
4. Jauna, erakutsi izkidazu zure bideak,
azaldu zure bidexkak;
egizu leial ibilli nadin;
5. erakutsi idazu, zu bait-zera nere Jaungoiko ta askatzalle,
ta zure zai nago egun guztian.
6. Gogora ezazu, Jauna, zure errukia
ta zure maitasuna betikoak dirala;
7. ez gogoratu nere pekatuak,
eta gazte nintzaneko nere gaitakeriak;

oroi zaitetz nitzaz errukiz,
zure maitasunarengatik, Jauna.

- 24 - (II)

8. Jauna ona ta zuzena da,
eta pekatariai bidea erakusten die;
9. apalak zuzenbidez daramazki,
eta apalai bidea erakusten die.
10. Jaungoikoaren bideak maitasuna ta leialtasuna dira,
Aren elkarrea ta aginduak gordetzen dituztenentzat.
11. Zure izenaren ederragatik, Jauna,
barka izkidazu nere erruak, asko dira-ta.
12. Bai al da iñor Jaungoikoaren bildur danik?
Ark erakutsiko dio aukerako bidea;
olakoaren anima zoriontsu biziko da,
olakoaren jatorria lurraren jabe izango da.
14. Jaungoikoak ba-du uste bere zintzoetan,
eta bere elkarrea jakin-erazten die.

- 24 - (III)

15. Nere begiak Jaunagan dauzkat,
Ark ateratzen bait-dizkit saretik oñak.
16. Begira idazu, Jaungoiko, eta erruki zakizkit,
errukarri ta bakarrik bait-nago.
17. Lasaitu zaidazu nere biotz estutua
eta atera nazazu nere zoritxarretatik.
18. Ikusi itzazu nere atsekabea ta nere samiña,
ta barkatu nere pekatu guztiak;

19. Ikus zenbat diran
gorroto bizia didaten etsaiak.
20. Zaitu zuk nere bizia ta askatu nazazu,
ez nadilla, zuregana joan-da, lotsa gorritan gelditu.
21. Errurik-ezak eta zuzenbideak babestuko naute,
Zugan bait-det usteon.
22. Ene Jaungoiko, atera ezazu Israel,
bere arrixku guztietatik.

ANT.

Ene Jaungoiko! Zugan det usteon, ez nadilla lotsatan gelditu.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEDERATZIETAKO OTOITZA — AD TERTIAM

ANTIFONA

*Pazko-aldian ezik:**Jauna makurtu egin zan eta entzun zidan nere deadarra.**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

- 39 -

2. Ni Jaunaren zai-zai nengon;
makurtu zan ta entzun zuan nere deadarra;
3. jaso egin ninduan leize galgarritik, loi-zulotik;
nere oñak arkaitz-gañean sendotu zituan,
eta nere oinkadak indartu;
4. abesti berri bat ipiñi zidan agoan,
gure Jaungoikoarentzat gorasarrea.
Ori ikusita, asko bildurturik gelditu ziran
eta Jaunagan ipiñi zuten ustea.
5. Zorionsua bere ustea,
Jaunagan ipiñi duan gizona,
eta sasi-jainkozaleetara joaten ez dana,
gezurraren atzetik bait-dabiltza.

6. Ene Jaungoiko Jauna! zenbat mirari egin dituzun!
zenbat asmo on gure onerako!;
ez dago zure aldekorik ere!
Nik otsegin eta jakin-erazi nai nituke,
baño, zenbatu-eziñak dira.

7. Ez dezu nai Zuk, ez erre-oparirik, ez eskeintzarik,
ordez, belarria zabaldu didazu;
ez dezu eskatzen erre-oparirik;
8. orduan ala diot nik: «Ona emen ni;
- nere liburuan idatzirik dagonez -
9. zure naia egiteko»:

Ene Jaungoiko, nai det,
eta erraietan daramat zure legea.

- 39 - (II)

10. Zure salbamera otsegin det,
batzar nagusiaren aurrean;
ez det ezpañik itxi:
ba-dakizu Zuk, Jauna.
11. Ez det kolkoan gorde zure babesa,
esan ditut zure leialtasuna ta zure osasuna;
ez ditut ukatu zure errukia ta zure leialtasuna,
batzar aundiaren aurrean.
12. Zuk, Jauna, ez itxi neri zure erraiak,
gorde nazatela beti zure errukiak eta zure leialtasunak.
13. Ezin konta ala ezbearrez inguratzen bait-naute,
Nere erruak gañera datozkit,
eta ezin det egin igesik;
nere buruko illeak baño ugariago dira,
eta ez det kemenik.

- 39 - (III)

14. Arren, Jauna, askatu nazazu,
etorri azkar neri laguntzera;
15. betorkie azpiratze lotsagarria
ni il-naiean dabiltzanai,
lotsaturik iges egin bezate,
nere kaltea nai dutenak;
16. Lotsaz mutu geldi bitez
nere bizkar parrez daudenak.
17. Zurekin poztu ta alaitu bitez
zure billa dabiltzan guztiak,
esan bezate asper gabe: «Aundia da Jauna!»
Zuk emandako salbamena nai dutenak.
18. Ni beartsu ta gizarajo bat naiz;
baño Jaunak zaitzen nau;
Zu zera nere laguntza ta nere salbamena;
ez luzatu, nere Jaungoiko!

ANT.

Jauna makurtu egin zan eta entzun zidan nere deadarra.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



AMABIETAKO OTOITZA — AD SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Osasuna gordetzen didazu, Jauna; zure aurrean
naukazu beti.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 40 -

2. Zorionsua aularen eta beartsuaren ajola duana!
egun beltzean onik aterako du Jaunak.
3. Jaunak zaitu ta bizia gordetzen dio,
lurrean zorionsu izan dedin,
eta ez du etsaien gorroto-pean uzten.
4. Jaunak eutsiko dio naigabe-ocan,
arindu egingo dizkio gaitzaren nekeak.
5. «Erruki zakizkit, Jauna, —esan nuan—
senda nazazu, zure kontra egin bait-det pekatu».
6. Nere etsaiak txarrena opa didate:
«Ea iltzen dan eta gaitzen dan bere deitura!»
7. Ni ikustera datoztenak zuri-zuri mintzo zaizkit;
asmo txarra ezkutatu egiten dute,
eta irtetean, agertu.
8. Nere etsaiak ni maxiatzeko biltzen dira,
burubide txarrak agertzen dituzte.
9. «Sendatuko ez dan gaitza dauka;
geiago ez jeikitzeke etzan zan».

10. Nere adiskideak berak, uste on nionak,
nere ogia nerekin jaten zuanak,
lenen egin zidan saldukeria.
11. Zu, ordea, Jauna, erruki zakizkit;
egizu altxa nadilla, berak merezia eman dezaiedan
12. Nere etsaia ez bait-zait gallentzen;
ortan ezagutzen det maite nauzula.
13. Neri, ordea, osasuna gordetzen didazu,
beti zure aurrean naukazu.
14. Bedeinkatua Jauna, Israel'en Jaungoikoa,
orain da beti. Amen, amen.

- 41 -

2. Basauntza ur bizien billa bezela,
alaxe dabil, nere Jaungoiko, zure billa nere anima;
3. Jaungoikoaren egarri da; Jaungoiko biziaren egarri;
Noiz sartuko naiz Jaungoikoaren aurpegia ikustera?
4. Gau ta egun malkoak ditut ogi,
«Nun da zure Jaungoikoa?»
egunero esaten didaten bitartean.
5. Beste denbora batzuk datozkit gogora,
eta anima lasaitzen zait:
taldearen aurrean nola joaten nintzan,
Jaungoikoaren etxeruntz,
pozez kantari ta goraka,
jai-eguneko zarata-artean.
6. Zergatik larritzen zera, ene anima nerea,
zergatik kezkatzen zatzakit?
Itxaron Jaunagan, goratuko dezu berriro:
«Nere aurpegiaren osasun, nere Jaungoiko!»

- 41 - II

7. Nere anima naigabe danean, zu gogoratzen zaitut nik,
Jordan'dik eta Hermon'dik eta Mendi Txikitik.
8. Uraundiak uraundiari oju egiten dio,
ur-jauzien zarata-otsez;
zure ugaldeak eta olatuak
gañetik igaro zaizkit.
9. Jaunak egunez errukia izango dit,
gauzez nere bizia dan Jaungoikoaren gorapenak
kantatuko ditut nik.
10. Au esango diot Jaungoikoari:
Nere arkaitz, zergatik naukazu aztuta?
zergatik nabil, goibel,
nere etsaiak astinduta?
11. Ezurrak austen zaizkit,
etsaien ixekengatik;
«Non da zure Jaungoikoa?»
galdezka ditut egun osoan.
12. Zergatik larritzen zera, ene anima nerea,
zergatik kezkatzen zatzakit?
Itxaron Jaunagan, goratuko dezu berriro:
«Nere aurpegiaren osasun, nere Jaungoiko!»

ANT.

*Osasuna gordetzen didazu, Jauna; zure aurrean
naukazu beti.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

IRURETAKO OTOITZA - AD NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Zuk salbatu ginduzun, Jauna; beti ematen dizkiogu eskerrak zure izenari.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 43 -

2. Jaungoiko!, gure belarriak entzun zuten,
gure gurasoak esan ziguten;
Zuk, aien egunetan, antziñako egunetan,
zure eskuz egin zenduan lana.
3. Zuk, zere eskuz, kendu zenien atzerritarrai,
eta aiek landatu zenituan;
erridiak puskatu egin zenituan,
eta aiek aundierazi.
4. Ez bait-zan aien ezpata izan lurraz jabetu zana,
ezta aien besoa ere garaipena eman ziena;
baizik eta zure eskua ta zure besoa
eta zure aurpegiaren argia,
zuk maite bait-zenituan.

5. Zu zera nere Errege ta nere Jaungoiko,
Jakob'i garaipena ematen diozun ori.
 6. Zure laguntzarekin eraso genion etsaiari,
zure izenean zapaldu genduan aurka zetorkiguna;
 7. Ez bait-daukat itxaropena nere uztaian,
nere ezpatak ere ez nau garalle egin;
 8. Zuk ematen didazu garaipena etsien aurka,
Zuk menderatzen dizkiguzu etsaiak.
 9. Jaungoikoa izan da beti gure arrotasun
eta beti ematen dizkiogu eskerrak zure izenari.
- 43 - II
10. Orain, ordea, baztatu ta lotsatu egin gaituzu,
orain etzera ateratzen, Jauna, gure gudari-taldeakin.
 11. iges egiñerazten diguzu etsaien aurrean,
eta gure etsaiak lapurretan ari zaizkigu,
 12. Ardiak bezela uzten gaituzu,
eta atzerrietan sakabanatu;
 13. utsaren alde saltzen dezu zure erria,
ez diozu ipiñi salneurri aundia.
 14. Gure auzokoen lotsagarri uzten gaituzu,
gure ingurokoen parragarri ta ixekagarri.
 15. Esankizun biurtu gaituzu atzerritarrentzat,
kiñuka burla egiten digute atzerriak.
 16. Beti aurrean daukat nere lotsaria,
lotsak gorritzen du nere aurpegia,
 17. irañak eta biraoak entzutean,
nere etsaiak eta arerioak ikustean.

- 43 - III

18. Au guzti au datorkigu gañera, zutzaz aztu gabe,
zure elkarte autsi ez degun arren,
19. gure biotzak atzera biurtu gabe,
eta gure oñak zure bidetik atera ez arren;
20. eta zuk, mendi-txakurren zulora bota ginduzun,
eta illunez estali.
21. Gure Jaungoikoaren izena aaztu ba'litzaigu,
eta jainko arrotz batengana eskuak jaso ba'genitu,
22. Jaunak jakingo zigun,
biotzeko ezkutuak ezagutzen bait-ditu.
23. Zuregatik lepamozten gaituzte egunero,
arategirako ardiak bezela garabilzkite.
24. Esna zaitez, Jauna! Zertan zaude lo?
Altxa zaitez, ez gaitzazu luzaro baztatu.
25. Zergatik gordetzen diguzu zure aurpegia?
zergatik daukazu aztuta gure morrontza ta larria?
26. Gure arnasa autsetan sartuta dago,
gure sabela lurrari itsatsita.
27. Zutitu zaitez guri laguntzeko,
askatu gaitzazu, zure errukiagatik.

ANT.

*Zuk salbatu ginduzun, Jauna; beti ematen dizkiogu
eskerrak zure izenari.*

*Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

*Pazko-aldian ezik:**Zeruan bizi zeran ori, erruki zakizkigu!**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

- 122 -

1. Zuregana jasotzen ditut nere begiak,
zeruan bizi zeran orrengana.
2. Morroien begiak nagusiaren eskuetara
begira-begira dauden bezela,

mirabearen begiak etxekoandreaken eskuetara
begira-begira deuden bezela,
alaxe daude gure begiak,
Jaungoiko gure Jaunari begira-begira,
Aren errukiaren zai.
3. Erruki, Jauna, erruki,
purrustaz okituak bait-gaude;
gure anima okiturik dago
arroputzen ixekaz.
aundi-maundien purrustaz.

ANT.

Zeruan bizi zeran ori, erruki zakizkigu!

ANTIFONA 2

Jaunaren izena da gure laguntza.

- 123 -

1. Jauna gure alde izan ez ba'genu,
- aitor dezala Israel'ek -
2. Jauna gure alde izan ez ba'genu,
gizonak erasotzen zigutenean,
3. bizirik irentsiko ginduzten.
alako sua zeukan gure kontra aren amorruak;
4. Urak eramango ginduzten,
ura leporaño irixten zitzaigula;
5. urak aparra zeriela,
leporaño iritxiko zitzaizkigun.
6. Bedeinkatua izan bedi Jauna,
ez bait-ginduan aien ortzen janari utzi;
7. Gure bizia gorde degu,
txoriak eiztariaren saretik bezela;
sarea ausi egin zan eta guk iges.
8. Jaunren izena da gure laguntza:
Ark egin zituan zeru-lurrak!

ANT.

Jaunaren izena da gure laguntza.

ANTIFONA 3

Jaunak bere erria inguratzen du orain-da-beti.

- 124 -

1. Jaunarengan usteon dutenak, Sion Mendia bezela dira;
ez du kolokarik egiten; betiko gogortuta dago.
2. Jerusalem mendiz inguratuta dago,
eta Jaunak inguratzen du bere erria,
orain-da-beti.
3. Ez da egongo gaiztoen aginte-zigorra
zuzenen sallaren gañean;
zuzenak beren eskuak gaiztakerira
luzatu ez ditzaten.
4. Jauna, emaizkiezu ondasunak onai,
biotzez zintzoai;
5. bide okerretatik dijoazenak,
baztartu bitza Jaunak gaizkilleakin.
Pakea Israeli!

ANT.

Jaunak bere erria inguratzen du orain-da-beti.

ANTIFONA 4

Jaunak bikain jokatu du gurekin eta pozik gaude.

- 125 -

1. Jaunak Sion'en zoria aldatu zuanean,
ametsa zeritzaigun;
2. agoa parrez betetzen zitzaigun,
mingaña bertsoz.

Atzerritarrak ere ala zioten:

«Jaunak bikain jokatu du aien alde»,

3. Jaunak bikain jokatu du gure alde,
eta pozik gaude.
4. Aldatu beza Jaunak gure zoria,
Negeb'eko uraundia bezela.
5. Negarrez ereiten zutenak,
kantari biltzen dute.
6. Joan, negarrez zijoan,
azia eramaten;
biurtu, kantari biurtzen da,
sortak ekartzen.

ANT.

Jaunak bikain jokatu du gurekin eta pozik gaude.

ANTIFONA 5

Etxea Jaunak egin dezaigula ta erria zaitu.

- 126 -

1. Etxea Jaunak egiten ez ba'du,
alperrik nekatzen dira etxegilleak;
erria Jaunak zaitzen ez ba'du
alperrik dabilta ertzañak.
2. Alperrik zaizute goiz jeikitzea,
berandu arte esna egotea,
zuen nekeetako ogia jatea:
Jaungoikoak ematen dio bere maiteari lo dagon bitartean!
3. Jaungoikoak ematen duan ondarea semeak dira,
lan-saria, sabeleko frutua:

4. gudariaren eskuan azkon dira,
gatzetako semeak;
5. Zorionsua azkon aiekin
azkon-zorroa betetzen duan gizona!
ez du galduko, enparantzan
bere etsaiakin auzia duanean.

ANT.

Etxea Jaunak egin dezaigula ta erria zaitu.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Magnificat

ANTIFONA

Nere biotza poz-pozik dago nere Salbatzalle Jaungoikoagan.

Nere animak Jaunaren aunditasuna goresten du... (55 orr.)



ARRATSEKO OTOITZA — AD COMPLETORIUM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Zuk gordeko gaituzi, Jauna; betiko zuk askatu.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 11 -

2. Salba gaitzazu, Jauna! onak bukatzen ari dira, ezkututzen leialtasuna gizartetik,
3. alkarrekin gezurretan dabilta, ezpain maltzurrez eta biotz biurritz mintzo dira.
4. Atera bitza Jaunak zuztarretik ezpain maltzurak, eta mingain arroputza. Ala bait-diot:
5. «Mingaña degu indar, ezpañak babes, nor izango da gure nagusi ta jabe?»
6. Jaunak erantzuten du: «Apalen menpetasunagatik, beartsuen negar-zotiñengatik, ni altxako naiz, eta, nik onik aterako det, ala nai duana».
7. Jaunaren itzak, itz egitiak dira, zoirik gabeko zillarra bezela, zazpi aldiz garbitua.

8. Zuk, Jauna, gordeko gaituzu, zuk betiko askatuko gaituzi jentillaje ortatik.
9. Izaiak bezela, giza-odola zupatzeko, inguruan dabilzan gaiztoetatik.

- 12 -

2. Noiz arte egongo zera, Jauna, nerekin aztuta? Noiz arte ezkutatuko didazu zure aurpegia?
3. Noiz arte biziko naiz kezketan, biotza naigabez beterik egun guztian? Noiz arte ibilliko zait gallen nere etsaia?
4. Begira idazu, nere Jaungoiko Jauna, eta erantzun; argitu izkidazu begiak, ez nazala eriotz-loak artu;
5. ez beza esan nere etsaiak: «Menderatu det»; ez dedilla etsaia, nere ondamentian poztu!
6. Nik zure errukian bait-det usteon; poztu idazu biotza zure laguntzaz, eta abestuko diot Jaunari egin didan onagatik!

- 15 -

1. Zaitu nazazu, nere Jaungoiko, zukan bait-det babes.
2. Nik ala diotsat Jaungoikoari: «Zu zera nere ondasun».
3. Lurreko jainkoak eta aundizkiak ez naute gogo betetzen.
4. Jainko arrotzen irudiak ugaritzen ari dira; nik ez det, nere eskuz, aien odol-oparirik ixuriko, aien izenik ere ez det nere ezpañetan artuko.

5. Jauna da nere ondarearen zatia, nere salla ta nere ontzia,
zure eskuan dago nere zoria;
6. sail bikaña egokitu zait,
nere soroa eder zait.
7. Burubide ematen didan Jauna bedeinkatuko det;
gabaz ere erakutsi egiten dit biotz-barnean.
8. Jauna daukat beti aurrean,
Bera nere eskuian dedala, ez det kolokarik egingo.
9. Orregatik poztu egiten zait biotza,
alaitu egiten zaizkit erraiak,
eta nere aragia lasai dago.
10. Ez bait-nauzu eriotzara eramango,
ez dezu utziko zure adiskideak
ustelkeria ezagutu dezan.
11. Bizitzako bidea erakutsiko didazu,
atsegiñez beteko nauzu zure aurrean,
betiko pozez zure eskui-aldean.

ANT.

Zuk gordeko gaituztu, Jauna; betiko zuk askatu.

Pazko-aldian:


Aleluia, aleluia, aleluia.

Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"

ANTIFONA

Jauna: Salba gaitzazu...

Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela... (58 orr.)



ASTEAZKENA

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA — AD MATUTINUM

Otoitzerako deia — Invitatorium

*Lelo. Jauna, Jaungoiko aundia * Zatozte; gurtu dezagun!*

1. Zatozte; gora dezagun Jauna... (7 orr.)

Gorasarrea — Hymnus

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Zu zera gizasemeetan ederrena; zure ezpañai grazia darie.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

-44-

2. Olerki eder bat dario nere biotzak,
erregeari esaten dizkiot nik nere bertsoak;
idazlariaren luma azkarra da nere mingaña.
3. Ederra zera, giza-semectan ederreña;
zure españai grazia darie;
Jaunak beti onesten zaitu.
4. Kementsu, lotu saietsean ezpata;
edergallu zaizu ta goragarri;
5. zoaz zaldiz garaille, egiaren eta zuzenbidearen alde;
zure eskuiak erakutsi bezaizu arrigarriak egiten.
6. Zorrotzak dira zure geziak.
mendean jartzen zaizkitzu erriak,
kokildu egiten dira erregearen etsaiak.
7. Zure jargoia, Jauna, beti-betikoa da;
Zure errege-makilla, zuzentasun-makilla.
8. Zuzentasuna maite izan dezu,
eta gaiztakeria gorrotatu.
Orregatik, zure Jaungoiko Jaunak,
poz-oloz igurtzi zaitu,
zure lagun guztien artean.
9. Mirra, eta aloe ta kasia-usaia darie zure jantziai;
arpa-soñuak poztutzen zaituzte marfil-jauregietatik.
10. Errege-alabak dijoazkitzu bidera,
zure eskui-aldean zutik erregeña dago,
Ofir'ko urrez apaindua.

ANT.

Zu zera gizasemeetan ederreña; zure españai grazia darie.

ANTIFONA 2

Erriak gizaldiz-gizaldi goratuko zaituzte, Jauna.

-44- II

11. Entzun, alaba, begira: makurtu ezazu belarria,
aaztu zure erria ta zure aitaren etxea.
12. Erregea zure ederrez zoratu-ta dago;
auspeztu zakizkio, bera bait-dezu zure jaun.
13. Tiro'ko erria opariakin dator,
erririk aberatsenak zure adiskide nai dute.
14. Ba-dijoa barrura Errege-alaba, guztiz apain,
arripitxiz eta urre-lorez jantzia;
15. Erregearen aurrera daramate; atzetik neska-taldearekin,
bere lagunak dijoazkio ondoren.
16. Soñu ta txalo-artean daramazkite,
erregearen jauregian sartzen dira.
17. «Zure gurasoen orde, semeak izango dituzu,
agintari izendatuko dituzu lur zabalean.
18. Zure izena gogoangarri egingo det,
gizaldiz-gizaldi,
eta erriak goratuko zaituzte
mendirik-mende.

ANT.

Erriak gizaldiz-gizaldi goratuko zaituzte, Jauna.

ANTIFONA 3

Jaungoikoa degu zaitzalle arrixkuan.

- 45 -

2. Jaungoikoa degu babesleku eta indar,
zaitzalle altsu arrixkuan.
3. Orregatik ez degu bildurrik, lurra dardaratzen ba'da ere,
mendiak itxasora amiltzen ba'dira ere.
4. Onen olatuak irakin eta orru egin bezate,
eta bere indarrez mendiak astin ditzatela;
Gudari-taldeen Jaungoikoa gurekin dago,
Jakob'en Jaungoikoa degu gaztelu.
5. An dijoazen errekek poztutzen dute erria,
Goi-goikoak sagaritzen du bere etxea.
6. Jaungoikoa erdian duala, ez du kolokarik egiten;
Jaungoikoak laguntzen dio egunsentia datorrenean.
7. Erriak asaldatu egiten dira, erregeak altxa:
baño, Ark jo du bere trumoia, eta lurak koloka egin
8. Gudari-taldeen Jaungoikoa gurekin dago;
Jakob'en Jaungoikoa degu gaztelu.
9. Atozte Jaunaren egintzak ikustera
lurrean egiten dituan mirariak,
10. lur-mugetaraño bukarazi du ark gudatea,
uztaiak autsi egiten ditu, aztamakilla erdibitu,
babeskiñai su eman.
11. «Amor eman ezazute; ezagutu ni Jaungoiko naizela;
erriak baño goragokoa, lurra baño goragokoa».
12. Gudari-taldeen Jaungoikoa gurekin dago;
Jakob'en Jaungoikoa degu gaztelu.

ANT.

Jaungoikoa degu zaitzalle arrixkuan.

ANTIFONA 4

*Aundia da Jauna, ta guztiz goragarria,
gure Jaungoikoaren errian.*

- 47 -

2. Aundia da Jauna, ta guztiz goragarria,
gure Jaungoikoaren errian!
3. Bere mendi santua,
goialde ederra, lur guztiaren poza;
Sion mendia, zeruaren gallur,
errege aundiaren erri.
4. Bere jauregien artean,
gaztelu bat bezela gallen.
5. Ara; erregeak alkartu egin ziran,
batera erasotzeko;
6. baño, ikusi-orduko, ikaraz bete ziran,
eta bildurrak jo-ta iges egin zuten.
7. An artu zituan ikara aundi batek,
eta aur-egiteko miñen antzekoak;
8. Tarsisko ontziak ondatzen dituan
basamortuko aizearen antzekoak.
9. Entzun izan genuana ikusi degu,
Gudari-taldeen Jaunaren errian,
gure Jaungoikoaren errian,
Jaungoikoak betiko egiña duan errian.
10. Jaungoiko, zure errukia darabilgu gogoan,
zure jauretxearen erdian,
11. zure izena bezela, Jaungoiko, zure gorespena
lurraren azken-mugararaño irixten da;

- zure eskuia zuzentasunez bete da dago;
12. Sion mendia poztu egiten da,
Judako erriak alaitu zure erabakiakin.
13. Sion ingura ezazute,
bere torreak zenbatuaz;
14. begira aren arresiak,
ikus aren jauregiak;
- ondorengo jatorriai esan al izateko:
15. «Auxe da Jauna gure Jaungoikoa».
Berak gidatuko gaitu beti ta beti.

ANT.

*Aundia da Jauna, ta guztiz goragarria,
gure Jaungoikoaren errian.*

ANTIFONA 5

*Nere agoak jakintsu itz egingo du ta oso zentzuzkoak
izango dira nere burubideak.*

- 48 -

2. Entzun au, erri guztiak,
aditu, lurreko bizilagunak,
3. xumeak eta aundizkiak,
aberatsak eta beartsuak;
4. Nere agoak jakintsu itz egingo du,
eta oso zentzuzkoak izango dira nere burubideak;
5. arretaz entzungo det esaera zarra,
eta nere arazoa zitara-soñuz agertuko det.
6. Zergatik izan nik bildur egun txarrai,
gaiztoak inguratuko eta zaituko nautenean:

7. ustea ondasunetan jarria daukatenak,
eta beren aberastasun aundietan arrotzen diranak,
8. iñor ezin ba'diteke salbatu,
ta ezin ba'dezaioke eman Jaungoikoari
erospen-saririk?
9. Biziaeren erospen-saria ain da aundia!
ez dute beñere naikorik izango,
10. zulora jetxi gabe, beti bizi izateko.
11. Ara: jakintsuak il egiten dira,
ezjakiñak eta ergelak iltzen diran bezela,
eta ondasunak arrotzentzat uzten dituzte.
12. Illobia dute betiko etxe,
eta bizileku gizaldiz-gizaldi,
errialdeai izena eman ba'diete ere.
13. Gizonak ez du bere ondasunetan irauten,
baizik eta, abereak bezelaxe iltzen da.

ANT.

*Nere agoak jakintsu itz egingo du ta oso zentzuzkoak
izango dira nere burubideak.*

ANTIFONA 6

Ez bildurtu: aunditasunik ez da jetxiko il-zulora aberatsarekin.

- 48 - II

14. Auxe da piya-errezen bidea,
eta gizon aundiusteen gerokoa;
15. leizerako artalde dira,
eriotza dute artzai,
eta zuzen-zuzen illobira dijoaz:

- ezereztu egiten da aien irudia.
Leiza dute etxe.
16. Ni, berriz, Jaungoikoak salbatu egiten nau,
Leizaren atzaparretatik atera,
eta Berekin eraman.
17. Ez buruausterik izan gizona aberasten ba'da,
eta bere etxeko erosotasuna aunditzen ba'du,
18. iltzen danean, ez du ezertxo ere eramango,
bere aunditasunik ez da arekin jexkiko.
19. Bizi zala, berekiko pozik ba'zion ere:
«Goresten ditek ire bizimodu ederra»,
geiago argirik ikusiko ez duten
bere aurrekoakin alkartzera joango da.
21. Gizon aberats-burugabea,
iltzen dan aberea bezela da.

ANT.

Ez bildurtu: aunditasunik ez da jexkiko il-zulora aberatsarekin.

LENENGO ERA

(Ikus egundegian noiz esan bear diran l'nengo erako salmoak eta noiz 2'garren erakoak).

ANTIFONA 7

Jainkoen Jaungoikoa, Jauna mintzo da.

- 49 -

1. Jainkoen Jaungoikoa, Jauna mintzo da,
lurrari dei egiten dio, sorkaldetik sarkalderaño.
2. Ederra dan Siondik, Jaungoikoa diz-diz ageri da:
ba-dator gure Jaungoikoa ta ez da ixilduko;

3. Su bizia dakar aurretik,
ekaitz aundia dauka inguruan.
4. Goitik dei egiten die zeru-lurrai,
bere erria epaitzeko:
5. «Bildu izkidazute nere zintzoak,
nere itumena odol-opariz sillatu zutenak».
6. Otsegin beza zeruak Aren zuzentasuna;
Jaungoikoa ber-bera da epaille!

ANT.

Jainkoen Jaungoikoa, Jauna mintzo da.

- 49 - II - ***

7. «Aditu, nere erri, itzezin bear dizut;
Israel, zure kontra aitor egin bear det;
- nik, Jaungoikoak, zure Jaungoikoak -
8. Ez diotzut gaizkirik opariengatik,
beti nere aurrean daude zure erre-opariak.
9. Baño, ez det onartuko zure etxeko zekorrik,
ez zure artaldeko antxumerik;
10. basoko piztiak nereak bait-dira,
eta millaka abere dabiltz nere mendietan.
11. ezagutzen ditut zeruko egazti guztiak,
lurbiran dabillen guztia nere esku daukat.
12. Gose ba'nintz, ez nizuke esango,
nerea bait-det lurbira ta betetzen duan guztia.
13. Zezen-aragia jango ote det,
antxume-odola edan?
14. Eskeñi ezaiozu Jaungoikoari gorespen-oparia
bete Goi-goikoari zure ziñ-itzak,
15. eta dei egidazu arrixku-egunean:
nik onez aterako zaitut eta zuk goratu egingo nauzu.

ANTIFONA 8

Kontu izan Jaungoikoa aztuta daukazutenak.

- 49 - (III)

16. Gaiztoari auxe diotsa Jaungoikoak:
«Zertako esaten dituzu nere aginduak,
eta beti aotan artzen nere itumena,
17. nere erakusbidea gorroto,
ta nere aginduak sorbaldara botatzen dituzun orrek
18. Lapur bat ikusten dezunean, arekin zoaz,
ezkon-ausleakin naastuta zabilta;
19. zure mingaiña gaiztakerirako darabilzu,
zure agoa engañiotan ari dezu;
20. zure senidearen kontra mintzatzeko exertzen zera,
eta zure amaren semeari izen ona kentzen diozu.
21. Zuk ori egiten dezu,
eta nik ixillik egon bear ote det?
Zu bezelakoa naizela uste al dezu?
Salatu egingo zaitut; aurpegi emango dizut.
22. Kontu Jaungoikoa aztuta daukazutenak,
naitanaiez betiko ondatu etzaitetzen:
23. Eskerron-opariak eskeintzen dizkidanak,
orrek goratu egiten nau;
bide onetatik dabilleniari,
Jaungoikoaren osasuna ikusiaraziko diot.

ANT.

Kontu izan Jaungoikoa aztuta daukazutenak.

ANTIFONA 9

*Opari jatorrak onartu egingo dituzu, Jauna, zure aldare-
gañean.*

- 50 -

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANT.

*Opari jatorrak onartu egingo dituzu, Jauna, zure aldare-
gañean.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu... (19 orr.)

BIGARREN ERA

ANTIFONA 7

Jainkoen Jauna mintzo da.

- 49 -

1. Jainkoen Jauna mintzo da... (154 orr.)

ANTIFONA 8

Eskeñi ezaiozute Jaungoikoari gorespen-oparia.

- 49 - II - ***


7.º Aditu, nere erri, itzezin bear dizut... (155 orr.)

ANTIFONA 9

Kontu izan Jaungoikoa aztuta daukazutenak!

- 49 - III

16. Gaiztoari auxe diotza Jaungoikoak... (156 orr.)



GORALTZAK I - AD LAUDES I

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Jauna da errege, lurra pozik dago.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 96 -

1. Jauna da errege, lurra pozik dago,
ugarte konta-eziñak pozez beterik daude.
2. Illunak eta Odeiak inguratzen dute,
Zuzentasuna eta Eskubidea dauzka jargoiari eusten,
3. Sua dijoakio aurretik,
etsaiak inguruan kixkaltzen;
4. bere tximistak itxutu egiten dute lurbira,
eta oiek ikustean, lurra dardarka asten da;
5. Mendiak argizaria bezela urtzen dira,
Jaunaren aurrean,
lur guztiaren jabe-aurrean.
6. Zeruak Aren zuzentasuna otsegiten dute
eta erri guztiak Aren aintzari begira daude;
7. Irudiak gurtzen dituztenak
lotsaz gorri daude,
beren arrokeria sasi-jainkoetan ipintzen dutenak:
Aren aurrean jainko guztiak auzpezen dira;
8. Sion'ek ori entzun eta poztu egiten da,
Juda'ko erriak alaitu egiten dira;
zure erabakiengatik, Jauna,

9. Zu, Jauna, goienekoa bait-zera,
lurbira osoaren gañean,
jainko guztien gañetik goratua.
10. Txarrari gorroto diona, Jaunak maite egiten du,
bere zintzoen bizia babestu,
eta gaiztoengandik onez atera.
11. Argia sortzen da zintzoarentzat
eta poza biotz-zuzenentzat.
12. Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunarekin,
ospatu ezazute Aren izen santua.

ANT.

Jauna da errege; lurra pozik dago.

ANTIFONA 2

Zuri zor zaizu, Jaungoiko orri, ereserkia Sion'en.

- 64 -

2. Zuri zor zaizu, Jaungoiko orri, ereserkia Sion'en;
eta zuri betetzen zaizkitzu ziñ-eskeintzak,
3. Zuk entzun egiten bait-dituzu eskabideak.
Zuregana dijoaz ilkor guztiak,
4. beren pekatuengatik;
lotsaturik gauzkate gure gaiztakeriak,
baño, Zuk barkatu egiten dizkiguzu.
5. Zorionsua, zure atarietan bizitzeko,
zuk aukeratu ta zureganatzen dezuna;
ase gaitezela zure etxeko ondasunez,
zure jaurettxeko doai gurenez.

6. Zuzenbidezko mirariz erantzuten diguzu,
gure Jaungoiko Salbatzalle orrek,
zuk, lurreko muga guztien
eta urrutiko itxasoan itxaropen orrek;
7. zuk, al-izatez jantzita,
zure indarrez, mendiak gogortzen dituzun orrek;
8. zuk, itxasoaren orroak, olatuen orroak,
eta errien ixkanbillak ixillerazen dituzun orrek;
9. Lurreko azken-mugan bizi diranak bildurrez daude,
zure ezaugarrien aurrean,
eta goiz-arratsetako atea pozez betetzen dituzu.
10. Zuk zaitzen eta ureztatzen dezu lurra,
eta neurri gabe aberasten;
Jaungoikoaren ibaia urez bete dijoa,
Zuk eratzen dituzu garitzak;
11. zuk ildoak ureztatzen dituzu,
sokorrak berdindu,
zure euri-txintxarrak biguntzen ditu,
zuk, galbegiak bedekintzen dituzu.
12. urtea zure ondasunez bururatzen dezu,
zure bideai ugaritasuna darie;
13. basamortuko larreak eze daude,
eta mendixkak pozez apaintzen dira;
14. zelaiak artaldez estali,
eta ibarrak gari-sallez jantzi;
irrintzika ta kantari!

ANT.

Zuri zor zaizu, Jaungoiko orri, ereserkia Sion'en.

ANTIFONA 3

Zuretzat da nere eresia, Jauna; bide bikaña agertu bear det.

— 100 —

1. Onginaia ta zuzentasuna abestu bear ditut,
zuretzat da nere eresia, Jauna;
2. bide bikaña agertu bear det,
noiz etorriko zera neregana?

Biotz zuzenez ibilliko naiz,
nere etxe-barruan;

3. ez ditut nere begiak
asmo txarretan jarriko;

Gorroto diot gaizkilleari,
ez da nerekin ibilliko;

4. urruti neregandik biotz okerra,
ez det onartuko txarra.

5. Urkoaren izena ezkutuka loitzen duana,
ixillerazi egingo det;
begi arroakin, biotz aundinaia-kin,
ez det nik burutuko.

6. Zintzo diranetan ipintzen ditut nere begiak,
oiek biziko dira nerekin;
bide onari jarraitzen dionak,
orrek mirabetuko nau;

7. Azpikeria egiten duanik
ez da nere etxean biziko;
gezurrak esaten dituanak
ez du nere aurrean iraungo;

8. Goizero ixilleraziko ditut
gizon gaiztoak;
gaizkille guztiak
Jaunaren erritik kanpora uzteko.

ANT.

Zuretzat da nere eresia, Jauna; bide bikaña agertu bear det.

ANTIFONA 4

Jauna, Zu Aundia zera, eta arrigarria zure indarrean.

Judit'en abestia. (Jud., 16)

15. Kanta berri bat abestuko diot Jaungoikoari;
16. Jauna! Zu aundia zera ta ospetsua,
arrigarria zure indarrez, garaitu-eziña.
17. Serbi zaitzala izadi guztiak,
zuk esan-da izaten asi bait-zan,
zure arnasa biali ta bizia eman zenion;
ez da zure itzari gogor egingo dionik.
18. Olatuak koloka egiñaziko diete mendi-oñarriai;
arkaitzak urtu egingo dira argizaria bezela;
baño, zure zintzoakin biotzbera izango zera.
19. Balio ere, gutxi balio dute zuretzat usai gozozko opariak,
eta ezer ez erre-oparien koipeak;
Jaunari bildur diona, berriz, aundi izango da beti.
20. Zoritzarrekoak nere erriari erasotzen dioten erridiak!
Jaun guzialsuak mengantza egingo die
auzi-egunean;

21. suari ta arrai emango die aien aragia,
eta miñaren-miñez negar egingo dute beti ta beti.

ANT.

Jauna, Zu Aundia zera, eta arrigarria zure indarrean.

ANTIFONA 5

Jauna goratuko det bizi naizen artean.

- 145 -

1. Gora ezazu Jauna, nere anima!
2. Jauna goratuko det bizi naizen artean,
nere Jaunari joko diot soñua naizen artean.
3. Ez jarri usterik aundizkietan,
iñor salbatu ezin dezaketen autsezko izakietan;
4. azken-arnasa eman eta autsera biurtzen dira,
egun artan galtzen dira aien asmoak.
5. Zorionsua Jakob'en Jaungoikoak laguntzen diona,
ustea bere Jaungoiko Jaunagan ipintzen duana!
6. Jauna bait-da zeru-lurra,
itxasoa ta bertan dagon guztia egin zituana;
leialtasuna beti gordetzen duana,
7. zapalduai zuzentasuna egiten diena,
gosestiai ogia ematen diena;
katiguak Jaunak askatzen ditu,
8. Jaunak idikitzen dizkio begiak itxuari,
Jaunak zuzentzen ditu okertzen asi ziranak,
Jaunak maite ditu zuzenak;

9. Jaunak gordetzen ditu bidaztiak,
umezurtza ta alarguna mantendu
eta gaiztoen bideak okertu.

10. Jauna errege da beti,
zure Jaungoikoa, Sion, gizaldiz-gizaldi.

ANT.

Jauna goratuko det bizi naizen artean.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Benedictus

ANTIFONA

Guri gorroto diguten guztien eskutik Jaunak onik ateratzen gaitu.

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



ANTIFONA 4

Poz-atsegiñetan daukat biotza Jaunarengatik, beeratu egiten bait-du eta jaso.

Ana'ren abestia. (Sam., I, 2)

1. Poz-atsegiñetan daukat biotza Jaunarengatik,
Jaungoikoaren bitartez goratzen da nere almena;
nere agoak parra egiten die nere etsaiak,
zure salbamenak poztu egiten bait-nau.
2. Ez da Jauna bezelako santurik,
ez da gure Jaungoikoa bezelako Arkaitzik.
3. Etzazute egin itzaldi arrorik,
ez bota zuen agotik arronkarik,
Jaungoiko jakintsua bait-da Jauna,
Bera da giza-egiteak neurtzen dituana.
4. Kementsuen gezi-uztaiak autsi egiten dira,
aulak, berriz, kemenez bete;
5. aserik zeudenak ogi-alde asten dira lanean,
gose ziranak, berriz, gizendu egiten dira,
len agor zanak zazpi ume izan ditu,
askoren ama, berriz, agor gelditu.
6. Jaunak ematen ditu eriotza ta bizia,
leizera amildu ta andik atera;
7. Berak egiten du beartsu eta aberats,
Berak beeratzen du ta goratzen.
8. Berak jasotzen du gaxoa autsetik,
eta beartsua zimaurretik,
aundizkien artean eseri dedin,
eta ondare aukli goragarria ar dezan;

GORALTZAK II — LAUDES II

ANTIFONA 1

Kendu zearo, Jauna, nere gaitzakeriak.

- 50 -

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANTIFONA 2

Barkatu egiten dizkiguzu, Jaungoiko, gure gaitzakeriak.

- 64 -

Zuri zor zaizu, Jaungoiko... (160 orr.)

ANTIFONA 3

Biotz zuzenez ibilliko naiz, Jauna.

- 100 -

Onginaia ta zuzentasuna abestu... (162 orr.)

izan ere Jaunarenak dira lurraren oñarriak,
eta aien gañean gogortu zuan lurbira.

9. Berak zaitzen ditu bere adiskideen oinkadak;
gaiztoak, berriz, illunpean ondatu;
-gizona ez bait-da bere indarrez gallentzen -

10. Jaunak txautzen ditu bere etsaiak,
Goi-goikoak zerutik trumoia jotzen du;
Jaunak egiten du auzia lur-mugarano,
Berak ematen dio indarra bere erregeari,
Berak jasotzen du bere Igurtziaren indarra.

ANT.

*Poz-atsegiñetan daukat biotza Jaunarengatik, beeratu egiten
bait-du eta jaso.*

ANTIFONA 5

*Gora ezazu, Jauna, nere anima; makur-zorian daudenak zu-
zendu egiten bait-ditu eta zintzoak maite.*

- 145 -

Gora ezazu Jauna, nere anima... (164 orr.)

Benedictus

ANTIFONA

Jaunak askatzen gaitu gorroto diguten guztien eskutik.

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)

GOIZALDEKO OTOITZA — AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Zure onginaia, Jauna, nere begien aurrean daukat eta zure
egian nabil.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 25 -

1. Egidazu auzi zuzen, Jauna, errugabe bait-nabil;
Jaunagan usteon dedala, ez det galdu biderik;
2. Aztertu nazazu, Jauna, neur nazazu,
ikus nere barrua ta nere biotza;
3. zure onginaia begien aurrean bait-daukat
eta zure egi-bidetik bait-nabil.
4. Ez naiz esertzen billauakin,
ez nabil gezurtiak;
5. gaizkille-taldeari gorroto diot,
ez naiz gaiztoen ondoan esertzen.
6. Nere eskuak errurik-ezean garbitzen ditut,
eta zure aldare-inguruan nago, Jauna,
7. zure gorespena otsegiten,
zure mirariak zenbatzen.

8. Zure etxeko edertasuna maite det, Jauna,
zure aintza bizi dan lekua.
9. Etzazu galdu-erazi nere anima pekatariakin,
nere bizia ere ez gizon odolgiroakin;
10. ezkerrean dollorkeria daramate,
eta eskubia azpikeriz betea daukate.
11. Ni, berriz, zintzo-bidean nabil;
salba nazazu, erruki zakizkit;
12. nere oña bide berdiñean dabil;
Jauna bedeinkatuko det batzarrean.

- 51 -

3. Zergatik arrotzen zera gaiztakeriagatik,
zergatik gallendu onaren aurka?
4. Egun osoan biurrikeriak asmatzen ari zera,
laban zorrotz dezu mingaña,
maltzurkeri-egille;
5. Txarra naiago dezu ona baño,
gezurra maiteago zuzentasuna baño;
6. itz kaltegarriak naiago dituzu,
mingain gaizto orrek!
7. Orregatik, Jaungoikoak ezereztu egingo zaitu betiko,
lur-joazi ta zure oial-txabolatik garbitu;
eta zain-da guzti aterako zaitu
bizien lurretik.
8. Zintzoak ori ikusi ta bildurtu egingo dira,
eta parra egingo diote:
9. «Begira! Ori da, bere babesa
Jaungoikoagan ipiñi etzuan arroputza;

- bere aberastasun aundietan izan zuan usteon,
eta bere gaiztakerietan arrotuta zegon».
10. Ni, berriz, olio-ondo adartsu baten antzera,
Jaunaren etxean,
Jaungoikoaren errukian det usteon
betierean.
 11. Eskerrak emango dizkitzut beti,
ari izan zeralako;
«Ona da zure izena», oju egingo det,
zure zintzoen aurrean.

- 52 -

2. Zoroak ala dio berekiko:
«Ez da Jaungoikorik».
Usteldu egin dira gaiztakeriak egiten;
ez dago ona egiten duanik.
3. Jaungoikoa zerutik
Adan'en semeai begira dago,
Jaungoikoaren billa dabillan
zentzundunik ote dan ikusteko.
4. Guztiak batera bide okerretik dijoaz,
biotz-gogorturik daude.
ez dago ona egiten duanik,
ez da bat bakarrik.
5. Ez ote dute ikasiko gaizkilleak,
nere erria ogia irentsitzen dutenak
eta Jaungoikoari dei egiten ez diotenak?
6. Ikararen ikaraz, dar-dar egingo dute,
Jaungoikoak sakabanatu egiten bait-ditu

erasotzalleen ezurrak,
garaituta geldituko dira
Jaungoikoak zapuzten ditualako.


7. Ai ba'letor Sion'dik Israel'en salbamena!
Jaungoikoak bere erriaren zoria aldatzen duanean,
Jakob poztu egingo da ta Israel alaitu.

ANT.

Zure onginaia, Jauna, nere begien aurrean daukat eta zure
egian nabil.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEDERATZIETAKO OTOITZA — AD TERTIAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Jaungoikoa da nere laguntza; Jaungoikoak eusten dio nere
biziari.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 53 -

3. Jaungoiko! Salba nazazu, zure izenarengatik,
atera nere alde zure indarrez.
4. Jaungoiko! entzun nere otoitza,
aditu nere itzak!
5. Arroak nere kontra atera bait-zaizkit;
eta gizon zakarrak ni il-naiean dabiltz,
Jaungoikoa aintzat artu gabe.
6. Baño, nik Jaungoikoa det lagun,
Jaunak eusten dio nere biziari.
7. Biurtu ezaiezu beren gaiztakeria nere etsaiari,
eta ondatu itzazu, zure leialtasunarengatik.
8. Gogoz eskeñiko dizut oparia,
ona dan zure izenari eskerrak emanaz,
arrixkutik onez atera bait-nauzu,
eta ikusi bait-det nere etsaien ondamendia.

-54-

2. Ene Jaungoiko, aditu zazu nere otoitza;
ez uko egin nere eskabideari;
 3. entzun idazu eta erantzun.
dardaraz narabilte nere kezkak,
 4. Etsaien ojuak larriturik naukate,
gaiztoaren deadarrak,
ez-bearrak bait-dakarzkidate gañera,
eta gogor erasotzen didate.
 5. Biurritu egiten zaizkit erraiak barruan,
eriotz-larriak erasotzen didate;
 6. bildurra ta ikara datozkit gañera,
larriak estalirik nauka.
 7. Ala diot nerekiko: «Ai emango ba'lizkidate uso-egoak,
egan egiteko ta kokatzeko!
Urrutira joango nintzake,
8. basamortuan biziko.
 9. Ekaitzari bereala iges egingo nioke,
aize zakar galgarriari, Jauna,
 10. aien mingañen erasoari.
- Gogorkeria ta asarreak ikusten ditut errian,
gau ta egun erne dabiltz arresietan;
aren erdian gaiztakeria ta bidegabekeria;
12. erri-barruan zoritxarrak;
ez dute alde egiten enparantzetatik.
gogorkeriak eta maltzurkeriak
 13. Etsaiak gaizki esango ba'lida,
eramango nuke;

- nere etsaia kontra aterako ba'litzaida,
alde egingo nioke.
14. Baño zu zera, nere adiskide,
nere lagun, nere kutun maite,
 15. nerekin artu-eman xamur batek lotzen zinduana;
biok alkarrekin ibilli oi giñan, poz-deadar-artean,
Jaungoikoaren etxean.
- 54- (II)
16. Ar ditzala eriotzak bat-batean,
amildu ditezela bizirik Leizean,
gaiztakeriak bait-du bizileku aien erdian!
 17. Nik, ordea, Jaungoikoari egiten diot dei,
eta Jaungoikoak salbatzen nau;
 18. arratsaldean, goizean, eguerdian,
antsika nago negar batean.
 19. Jaungoikoak entzuten dit nere deadarra;
Aren pakeak ateratzen du nere anima,
ari didaten gudaketatik,
asko bait-dira nere kontra.
 20. Jaungoikoak entzuten dit neri,
eta lotsarazi ditu betidanik errege danak,
ez bait-dute damutu nai,
ez bait-diote bildurrik Jaungoikoari.
 21. Lagunen kontra jasotzen dute eskua,
elkarteak autsiaz;
 22. agoa gantza baño bigunagoa dute,
baño guda nai;
itzak olioa baño legunagoak dituzte,
baño eztenak dira.


23. Utzi itzazu Jaungoikoaren gain zure buruausteak;
Ark eutsiko dizu;
ez du utziko zintzoa betiko eror dedin.
24. Eta zuk, nere Jaungoiko orrek,
amilduko dituzu zulo sakonean.
Gizon odolgiro ta maltzurra
ez dira beren urteen erdira ere iritxiko.
Nik, ordea, Zuregan det usteon!

ANT.

Jaungoikoa da nere laguntza; Jaungoikoak eusten dio nere biziari.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



AMABIETAKO OTOITZA — AD SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Jaungoikoagan det usteon, eta ez det bildurrik;
zer egin dezaidake neri gizon ilkorrak?*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 55 -

2. Erruki zakizkit, nere Jaungoiko,
egun guztian eraso eta gogor egiten bait-didate;
3. egun guztian erasoka,
nere etsaiak estu-estu narabilte,
guztiak batean ekiten didate.
4. Jaso nazazu egun bildurgarrian,
Zuregan det usteon.
5. Jaungoikoagan det usteon,
bere agintzaria goersten diodan Jaungoikoagan,
zer egin dezaidake gizon ilkorrak?
6. Egunero ari dira zer egingo asmatzen,
ni galtzeko asmo utsez;
ezkutu-billa dabilta andik ni zaitzeko
ni nun nabillen, bizia kentzeko.

8. Utzi itzazu ondamendirako,
lur-jo eragiezu erriai, zure asarrean, Jaungoiko.
9. Idatzi zure liburuan nere noragabeko bizitza,
bildu nere malkoak zure zaragian, ene Jaungoiko!
10. Nik dei egiten dizudanean,
atzera egin bezate nere etsaiak,
eta orrela jakingo det nere Jaungoiko zerala.
11. Jaungoikoagan det usteon,
bere agintzaria goستن diodan Jaungoikoagan;
zer egin dezaidake gizon ilkorrak?
12. Egindako opari-eskeintzak zor dizkitzut, ene Jaungoiko,
eskerrak emanaz beteko dizkitzut nik;
13. nere anima eriotzatic atera bait-zenidan,
nere oñak erortzetik;
Jaungoikoaren aurrean ibilli nadin,
bizi-argitan.

- 56 -

2. Erruki, ene Jaungoiko, erruki,
zugan babesten da-ta nere anima;
zure agalpean babesten naiz,
zoritxarra igaro arte.
3. Goi-goiko Jaungoikoari egiten diot dei,
ainbeste egiten didan Jaungoikoari.
4. Zerutik osasuna bialiko dit,
lotsatuta utziko ditu ni il-naiean dabiltzanak,
bere grazia ta leialtasuna bialiko ditu.
5. Leoi gizajaleen erdian nago etzanda,
auen agiñak aztamakil eta gezi dira,
mingaña ezpata zorrotz.

6. Igo zaitez, ene Jaungoiko, zeruen gañeraño,
eta bete beza lurra zure aintzak.
7. Nere oñazpian sarea bota zidaten,
erori nendin;
nere aurrean zuloa egin didate;
baño berak erori dira.
8. Sendorik daukat biotza, ene Jaungoiko!,
sendorik daukat biotza,
abestu egin bear det eta soñua jo;
9. esna zaitez, nere aintza;
esna zaitezte, zitara ta arpa,
egunsentia esnaraziko det.
10. Errien aurrean, Jauna, eskerrak emango dizkitzut,
atzerrikoen aurrean soñua joko dizut;
11. zeruak baño aundiagoa dan zure onginaiatatik,
odeitarañokoa dan zure leialtasunagatik.
12. Igo zaitez, ene Jaungoiko, zeruen gañeraño,
eta bete beza lurra zure aintzak.

- 57 -

2. Egia al da, aundizkiok, epai zuzenak ematen dituzutela?
gizonak zuzenbidez epaitzen dituzutela?
3. Bestera, biotz-barruan bidegabekeriak asmatzen dituzute,
eta lurean gizon zakarraren alde
iraultzen du pixua zuen eskuak.
4. Okerturik daude gaiztoak amaren sabeletik;
gezurtiak gaizto dira jaiotz-ordutik;
5. subeak bezela, pozoia daramate,
belarriak ixten dituzten larresube entzungor dira,


6. sorgin-itzak esaten yayoa dan
zorabiatzallearen aotsik ez entzuteko.
7. Ene Jaungoiko! Puska zaizkietzu ortzak aoan,
Jauna, autsi leoiari let-agiñak!
8. Gal bitez, joan dijoazen urak bezela,
igar bitez zapaltzen dan belarra bezela,
9. suntsitu bitez lerdjarioka barea ibillian bezela,
eguzkirik ikusi ez duan aur denbora-gabea bezela!
10. Jaio baño len, sasi-arantzak bezela!
astalarra bezela kixkali ditzala suak.
11. Poztu bedi zintzoa mengantza ikustean,
busti bitza oñak gaiztoaren odoletan;
12. Esan bezate gizonak: «Bai, ba-da saria zintzoarentzat;
ba-da-ta lurrean zuzen epaitzen duan Jaungoikoal!»

ANT.

*Jaungoikoagan det usteon, eta ez det bildurrik;
zer egin dezaidake neri gizon ilkorrak?*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



IRURETAKO OTOITZA — AD NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Aurrea artu dezaidala, Jaungoiko, zure laguntzak.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

-58-

2. Atera nazazu, ene Jaungoiko, nere etsaien mendetik!
gorde nere kontra dabilzaneanatik,
3. libra nazazu gaizkilleengandik,
gizon odolgiroengandik onez atera nazazu!
4. Ikus altsuak begira-begira dauzkadala,
eta eraso egiten didatela.
Jauna, nik gaizkirik eta pekatuak egin gabe,
5. nere errurik gabe, datozkit nere aurka.
Esna zaitetz, irten zakizkit bidera ta ikus:
6. Zuk, gudari-taldeen Jaun orrek, Israel'go Jaungoiko orrek!
Altxa zaitetz eta zigortu itzazu erriak;
ez izan errukirik billaudentzat;
7. Arratsaldero biurtzen dira, zakurrak bezela zaunkaz,
eta errian ara-ta-ona ibilli oi dira;

8. ikus nola dantzaten duten mingaña,
ezpatak dira aien ezpañak:
«Nork entzuten digu?»
9. Zuk, ordea, Jauna, parra egiten dezu aien bizkar,
ixeka egiten dezu arroen lepotik.
10. Zurekin nago esna, nere indar ori,
Zu bait-zaitut, Jaungoiko, nere gaztelu.
- 58 - (II)
11. Aurrea artu dezaidala, Jauna, zure laguntzak,
eta ikuserazi etsaiaren ondamendia.
12. Ill itzazu, nere Jaungoiko, nere erria aztu ez dedin;
bota itzazu lurrera zure indarrez, eta sakabanatu,
gure babeskiñ zeran Jaun orrek!
13. Aien ezpañetako itz bakoitza, aien agoko pekatu bat da;
geldi bitez beren arrokerian lotuta,
esaten dituzten gezur eta biraoetan.
14. Gal ditzala zure asarreak,
gal ditzala; eta ez bezate aztarrenik utzi,
jakin dezadan Jaungoikoa dala agintari, Jakob'en,
eta lurraren azken-mugetaraño.
15. Arratsaldero biurten dira, zakurrak bezela zaunkaz,
eta errian ara-ta-ona ibilli oi dira:
16. jateko billa dabilta batera ta bestera,
eta asetzen ez diran bitartean, antsika dabilta.
17. Nik, berriz, zure indarra kantatuko det,
zure errukia otsegingo det goizaldean;

- zu izan bait-zera nere gaztelu,
eta nere babes galbidean.
18. Eta Zure aintzaz, nere indar, joko det soñua,
Zu bait-zera, Jaungoiko, nere gaztelu.

- 59 -

3. Aurka egin diguzu, Jaungoiko,
ta gudari-taldeak sakabanatu dizkiguzu;
asarreturik zeunden; baño indarberritu gaitzazu.
4. Lurraldea astindu ta artezitu egin dezu;
bete zaizkiozu arteziak, ondatzera dijoa-ta.
5. Zure erriari ondamendia ikusarazi diozu,
zorabio-ardoa edateko emanaz;
6. Sakabanatzeko siñalia egin zenien zure zintzoai,
uztaietatik iges erin eziaz;
7. Zure esku salbatzalleak erantzun dezaigula,
zure kutunak onik atera ditezen.
8. Jaungoikoak itzegin du bere jauretxean:
«Garaille sartuko naiz Sion'en,
Sukot-eko ibarra zatitu egingo det;
9. nerea det Galaad, nerea Manasen,
Efrain buru-babeskiñ det,
Juda nere aginte-makil.
10. Joab, nere burua garbitzeko ontzi,
Edom'en gañera botatzen det oñetakoa,
Filistearn gañean aterako naiz garaille.»
11. Baño, nork eramango nau arresidun errira,
nork zuzenduko nau Edom'era,

12. Zuk, Jaungoiko, zapuztu ba'gaituzu,
eta orain gure gudari-taldeakin ez ba'zaitugu?
13. Lagun iguzu etsaien aurka,
alperrik bait-da giza-laguntza.
14. Jaungoikoarekin aundiak egingo ditugu;
Berak zapalduko ditu gure etsaiak.

ANT.

Aurrea artu dezaidala, Jauna, zure laguntzak.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Zoriontsuak Jaunari bildur dioten guztiak!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 127 -

1. Zoriontsua Jaunari bildur diona
eta aren bideai jarraitzen diena!
2. Zure lanaren uztatik jango dezu,
zoriontsu izango zera, ondo biziko zera.
3. Zure emaztea matsondo ugaria bezela,
zure etxearen erdian;

zure seme-alabak, muskillak bezela,
zure mai-inguruan.
4. Au da Jaunaren bildur dan gizonaren onespena.
5. Jaunak bedeinka zaitzala Sion'dik,
ikusi dezazula Jerusalem'en goraldia,
zure bizitzako egun guztietan;
6. Ikusi ditzazula zure semeen semeak.
Pakea Israel'i!

ANT.

Zoriontsuak Jaunari bildur dioten guztiak!

ANTIFONA 2

Egin bezate atzera, lotsaturik, Sion'i gorroto diotenak.

- 128 -

1. Zenbat eraso didaten gaztetandikan!
- esan beza Israel'ek-
2. zenbat eraso didaten gaztetandikan!
baño, ez ninduten menderatu.
3. Goldea sartu zidaten sorbaldetan,
eta ildo luzeak atera.
4. Baño, Jaunak, zuzena bait-da,
eten egin zituan gaiztoen uztarri-edea.
5. Egin bezate atzera, lotsaturik,
Sion'i gorroto diotenak;
6. izan bitez tellatuko belarra bezela;
igartu egiten da ta ez du iñork ebakitzen:
7. ez du itailariaren eskurik betetzen
ezta bala-egillearen besorik ere.
8. Igarotzen diranak ere ez diote esaten:
«Jaunak bedeinka zaitzala!»
Jaunaren izenean bedeindatzen zaituztegu!

ANT.

Egin bezate atzera, lotsaturik, Sion'i gorroto diotenak.

ANTIFONA 3

Barren-barrendik egiten dizut dei, Jauna!

- 129 -

1. Barren-barrendik egiten dizut dei, Jauna;
2. entzun, Jauna, nere deia;
beude adi-adi zure belarriak,
nere otoiitz-deira.
3. Gaiztakeriak gogoan artzen ba'dituzu,
nork iraun dezake?
4. Baño, zuregandik dator barkamena,
eta orrela bildur-itzala sartzen dezu.
5. Nere animak Jaunarengan itxaroten du,
Aren itzean du usteon;
6. gau-zaitzalea egun sentiaren zai dago;
oraindik irrika aundiagoarekin nago ni Jaunaren zai.
7. Bego Israel Jaunaren zai,
gau-zaitzalea egunsentiaren zai bezela;
Jaunarengandik bait-dator errukia,

ANT.

Barren-barrendik egiten dizut dei, Jauna!

ANTIFONA 4

Jauna, nere biotza ez da aundizale.

- 130 - (131)

1. Jauna, nere biotza ez da aundizale,
ezta nere begiak ere arto;
ez nabil, neretzat baño geiago diran,
aundi-maundien atzetik;

2. baizik eta, nere naiak ixilerazi egiten ditut eta neurtu, aurrak amaren besoetan bezela.
5. Izan beza usteon Jaunagan Israelek, orain-da-beti.

ANT.

Jauna, nere biotza ez da aundizale.

ANTIFONA 5

Jaunak Sion aukeratu du bertan bizitzeko.

- 131 -

1. Jauna, artu izkiozu gogoan Dabid'i bere asmo guztiak;
2. nola ziñ egin zion Jaunari: eta Jakob'en Indartsuari ziñ-eskeintza.
3. «Ez naiz nere etxean sartuko, ez naiz nere atsedeen-ora igoko,
4. nere begiai ez diet lorik emango, ezta nere betazalai atsedetik ere,
5. Jaunarentzat tokia arkitu arte, Jakob'en Indartsuarentzat aterpe.»
6. Efrata'n zala entzun genduan, Jaar'ko oianean arkitu:
7. sar gaitezen aren etxean, auzpeztu gaitezen aren oñaulki-aurrean.
8. Altxa zaitetz, Jauna, zatoz zure bizitokira, zatoz zure indarraren kutzarekin;

9. zure apaizak jantzi ditezela soñeko ederrez, gora zaitzatela ojuka zure zintzoak,
10. Zure morroi Dabid'en maitasunagatik, etzaiozu zure Igurtziari izketaldirik ukatu.
11. Jaunak Dabid'i ziñ egin dio autsiko ez duan agintzaria: «Zure jatorriko bat jarriko det zure jargoi-gañean.
12. Zure semeak nere ituna gordetzen ba'dute, eta erakusten dizkiedan aginduak, zure semeak ere betiko, eseriko dira zure jargoi-gañean».
13. Sion aukeratu bait-du Jaunak, an bizi nai izan du:
14. «Auxe da nere bizitokia betiko, emen biziko naiz; auze nai bait-det.
15. Bedeinkatu egingo ditut ango janariak, ango beartsuak ogiz ase;
16. ango apaizak soñeko ederrez jantziko ditut, eta ango zintzoak gora ta gora oju egingo dute.
17. Dabid'en indarra ernaraziko det, nere Igurtziarentzat argi-ontzi bat piztu.
18. Lotsa gorriz jantziko ditut aren etsaiak, aren bekokian nere koroia diz-diz egingo du».

ANT.

Jaunak Sion aukeratu du bertan bizitzeko.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Magnificat

ANTIFONA

*Jainak ain txikia ikusi nau ta Altsuak gauza
aundiak egin ditu neregatik!*

Nere animak Jaunaren aunditasuna goresten du... (55 orr.)

**ARRATSEKO OTOITZA — AD COMPLETORIUM**

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Jaunaren aingeruak, bere zintzoen inguruan guda-txabolak
ipiñi, ta zaitu egiten ditu.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

-33-

2. Une guztietan bedeinkatzen det Jaungoikoa,
beti nere agoan daukat aren gorespena;
3. nere anima Jaunagan poztutzen da;
entzun bezate apalak eta pozkida bitezi!
4. Otsegin ezazute nerekin Jaunaren aunditasuna,
gora dezagun Aren izena guztiok alkarrekin.
5. Jaungoikoari galde egin nion eta erantzun zidan,
nere larri guztietatik atera egin ninduan;
6. Begira zaiozute ta dirdaitsu geldituko zerate,
ez du lotsik izango zuen aurpegiak.
7. Naigabetuak Jaunari dei egiten ba'dio, Ark entzun,
eta bere estualdietatik atera egingo du.
8. Jaunaren aingeruak bere zintzoen inguruan
guda-txabolak ipiñi ta zaitu egiten ditu.
9. Txasta ezazute ta ikus zeñen ona dan Jauna;
zorionekoak Aren babespean jartzen diranak!
10. Jaungoikoaren santu guztiak zaitetze Aren bildur,
Aren bildur diranak ez bait-daukate ezeren bearrik.

11. Aberatsak beartsu biurtzen dira ta goserik gelditu;
Jaungoikoaren billa dabiltzanak, ez dute ezeren utsik.

- 33 - II

12. Zatozte, semeok, entzun zaidazute;
Jaungoiko-bildurra erakutsiko dizutet.
13. Bai al da inor bizia maite duanik,
eta ondasun egunak opa dituanik?
14. Gorde ezazu txarretik zure mingaña,
eta zure ezpañak gezurretik;
15. alde egizu txarretik, egin on dana;
ibilli pake-billa ta zoazkio atzetik.
16. Jaunaren begiak zintzoai begira bait-daude,
Aren belarriak aien deadarrak entzuten;
17. baño, Jauna aurrez-aurre jartzen zaie gaiztoai,
aien oroipena lurretik garbitzeko.
18. Batek deadar egiten dionean, Jaunak entzun,
eta estualdi guztietatik atera egiten du;
19. Saminduetatik urbil dago Jauna,
azpiratuak onik ateratzen ditu;
20. Zintzoaren ezbearrak ugariak dirala ere,
Jaunak guztietatik atera egiten du;
21. ezur guztiak zaitzen dizkio,
bat bakarrik ere etzaio autsiko.
22. Gaiztoa gaiztakeriak iltzen du,
eta zintzoari gorroto diotenak,
beren zigorra artuko dute.
23. Jaungoikoak askatu egiten ditu bere morroiak,
ez dute zigorrik artuko
Aren babespera dijoazenak.

- 60 -

2. Entzun zaidazu, Jauna, nere deadarra,
aditu nere eskabidea;
3. lurraren ertzetik deadarka nagokizu,
biotza uzkuriturik;
4. eraman nazazu arkaitz igo-eziñera,
Zu bait-zera etsaien aurka nere gordeleku
eta nere gaztelu.
5. Ni beti zure etxean biziko naiz,
zure egapean gordeta;
6. Zuk, Jaungoiko orrek, nere ziñ-itzak entzungo dizkidazu,
eta zure izena maite dutenen salla emango didazu.
7. Erantsi zaizkiezu egunak erregearen egunai,
luza ditezela aren urteak gizaldietan;
agindu beza beti Jaungoikoaren aurrean;
zure grazia eta leialtasuna ditzala zaitzalle.
9. Nik beti zure aintzaz joko det soñua,
eta egunero beteko ditut nere ziñ-eskeintzak.

ANT.

*Jaunaren aingeruak, bere zintzoen inguruan guda-txabolak
ipiñi, ta zaitu egiten ditu.*

Pazko-aldian:


Aleluia, aleluia, aleluia.

Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"

ANTIFONA

Jauna: Salba gaitzazu...

Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela... (58 orr.)



OSTEGUNA

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA - AD MATUTINUM

Otoitzerako deia - Invitatorium

Lelo. Jauna, Errege audia * Zatozte, gurtu dezagun!

1. Zatozte; gora dezagun Jauna... (7 orr.)

Gorasarrea - Hymnus

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Jaungoikoa da nere osasun eta aintza, Jaungoikoarengan dago nere itxaropena.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 61 -

2. Jaungoikoagan bakarrik du atsedean nere animak,
Arengandik bait-datorkit osasuna;
3. Ura bakarrik da nere arkaitz eta osasun,
nere gaztelu: ez det kolokarik egingo.
4. Noiz arte erasoko diozute guztiok batean
gizon bakarrari lurrera botatzeko,
amor ematen duan ormari bezela,
erdi-erorian dagon arresiari bezela?
5. Nagon toki goienetik ni amiltzea dute asmo bakar,
eta gezurra dute atsegini;
Aoz onetsi egiten dute,
biotzez madarikatu.
6. Jaungoikoagan bakarrik zaitez atsedean nere anima!
Bera bait-det itxaropen:
7. Ura bakarrik da nere arkaitz eta osasun,
nere gaztelu: ez det kolokarik egingo.
8. Jaungoikoarengandik datoz osasuna ta aintza;
Bera da nere arkaitz sendo,
Jaungoikoa da nere gordeieku.
9. Bere erri! Izan Arengan usteon,
lasaitu biotza Aren aurrean,
Jaungoikoa bait-da gure babesleku.
10. Gizonak ez dira aize-aldi bat besterik;
aundizkiak itxura uts dira:
guztiak batera, pisuan gora egingo luteke,
aizea baño ariñago dira.
11. Ez jarri ustea zapalkerian,
lapurretarekin ez egin ametsik;

eta zure aberastasunak ugaritzen ba'dira,
ez ipiñi aietan biotzik.

12. Jaungoikoak gauza bat esan du,
eta bi gauza esan ditu, eta nik entzun:
«Jaungoikoak duala almena
eta Jaunak duala grazia;
Zuk ordaintzen diozula bakoitzari,
bere egiteen neurrian».

ANT.

*Jaungoikoa da nere osasun eta aintza; Jaungoikoarengan
dago nere itxaropena.*

ANTIFONA 2

*Zatozte Jaungoikoaren lanak ikustera; ospatu itzazute
Aren gorespentak.*

- 65 -

2. Gora ezazute Jauna, lur osoa;
jo soñua Aren izenari;
abestu eresiak Aren aintzari:
3. Esan Jaungoikoari: «Zure lanak bai dirala bildurgarriak;
zure almen aundiagatik losintxaka dauzkazu zure etsaiak».
4. Auzpeztu bedi zure aurrean lur osoa,
jo dezala soñua zure omenez;
jo dezaiola zure izenari.
5. Zatozte Jaunaren lanak ikustera,
gizakien onerako egin dituan lan bikain-bildurgarriak.

6. itxasoa legor biurtu zuan,
ibaia oñez igaro zuten:
7. Poztu gaitezen Jaungoikoarekin,
beti agintzen bait-du bere almenez;
Aren begiak atzerriai begira-begira daude,
biurriak matxinadarik sortu ez dezaten.
8. Bedeinka ezazute Jauna, erriak;
entzunerazi Aren goraltzak;
9. Berak biurtu bait-digu bizia,
eta ez die utzi gure ofnai oztoporik egiten,
10. Zuk azterkatu ginduzun, Jaungoiko,
zillarra garbitzen duten bezela garbitu ginduzun;
11. sarera bultza egin zenigun,
lepora zama eman:
12. gure bizkar-gañean zebiltzan zaldiz,
sutan eta uretan igaro giñan,
baño arnas eman diguzu.

ANT.

*Zatozte Jaungoikoaren lanak ikustera; ospatu itzazute
Aren gorespenak.*

ANTIFONA 3

*Zatozte entzutera, Jaungoikoaren zintzuok,
nerekin egin duana azalduko dizutet.*

- 65 - II

13. Opariakin sartuko naiz zure etxean,
nere zifi-eskeintzak betetzeko;

14. nere ezpañak estualdian esandakoak,
nere agoak estualdian agindutakoak.
15. Opari-gai gizenak eskeñiko dizkitzut,
adariak erre,
idiak eta auntzak ilko ditut opari.
16. Zatozte entzutera, Jaungoikoaren zintzoak,
nerekin egin duana azalduko dizutet.
17. Ari deadar egin zion nere aoak,
Ura goratu zuan nere mingañak;
18. Nik asmo txarrak izan ba nitu,
Jaunak etzidan entzungo;
19. Baño, Jaungoikoak entzun egin zidan,
nere oju larria entzun egin zuan.
20. Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa,
ez bait-du nere eskabidea baztertu,
ezta ere neri bere errukirik kendu.

ANT.

*Zatozte entzutera, Jaungoikoaren zintzuok,
nerekin egin duana azalduko dizutet.*

ANTIFONA 4

Jaungoikoa zutitu, ta bere etsaiak sakabanatu egiten dira.

- 67 -

2. Jaungoikoa zutitu ta bere etsaiak
sakabanatu egiten dira,
iges egiten dute Aren aurretik gorroto diotenak;

3. kea bezela ezerezten dira,
argizaria sutan urtzen dan bezela,
ala ondatzen dira gaiztoak Jaungoikoaren aurrean.
4. Zintzoak, berriz, poztu egiten dira,
alaitu Jaungoikoaren aurrean, pozaren-pozez.
5. Abestu zaiozute Jaungoikoari, jo soñua bere izenari,
apaindu bidea basamortuan aurrera dijoanari,
Jauna du izena,
poztu zaitzete bere aurrean.
6. Umezurtzen aita, alargunen zaitzalle,
Jaungoikoa bere etxe santuan bizi da.
7. Jaungoikoak beartsuak etxea gertutzen die,
katibuak askatu ta aberastu egiten ditu;
biurriak bakarrik gelditzen dira lur kixkalian.
8. Jaungoiko, zure erriaren aurrean ateratzen ziñanean,
eta basamortuan aurrera zinjoazenean,
9. lurra ikaraka asi zan, zerua urtu egin zan,
Jaungoikoaren aurrean, Sinai'ko Jaungoikoaren aurrean,
Jaungoikoaren aurrean, Israel'go Jaungoikoaren aurrean.
10. Euri ugaria egin zenduan, Jaungoiko, zure lurrean,
lur nekatua indarberritu!
11. eta zure onginaiak beartsuak eratu zien lurrean,
bizi izan zan, Jaungoiko, zure artaldea.

ANT.

Jaungoikoa zutitu, ta bere etsaiak sakabanatu egiten dira.

ANTIFONA 5

*Jaungoiko salbatzalea da gure Jaungoikoa; berak iges
egiñerazten digu eriotzatik.*

-67- II

12. Jaunak esaten du erantzun-itz bat
millakak otsegiten dute berri pozgarria:
13. «Erregeak, gudaritaldeak; igesi dijoaz, igesi,
emakumeak banatzen dituzte guda-arrapakiñak.
14. Zuek eskortetan lasai zeundeten bitartean,
usoak zillarrezko egoai eragin zieten,
urreak diz-diz egiten zuan aien egoetan.
15. Guztiz Altsuak erregeak sakabanatzen zituan bitartean
Mendi Itzaltsuan elurra ari zan.»
16. Basan'go mendiak erpiñak dira,
Basan'go mendiak aldapatsuak;
17. zergatik diozute bekaitz, mendi aldapatsuak,
Jaungoikoak bizileku aukeratu zuan mendiari,
Jaunaren betiko bizitokiari?
18. Jaungoikoaren gurdiak millakak eta millakak dira
Jaungoikoa Sinai'tik jauretxera dijoa,
19. katibuak eramanaz, igo ziñan gallurrera;
giza-petxa eman zizuten,
baita Jaungoiko Jaunak bizi-lekurik izan etzezan,
gogor egiten zutenak ere.
20. Bedeinkatua Jauna egunero!
Jaungoikoak daramazki gure zamak; Bera degu osasun.
21. Jaungoiko salbatzalea da gure Jaungoikoa,
Jaungoiko Jaunak iges egiñerazten digu eriotzatik.
22. Jaungoikoak zapaltzen ditu bere etsaien buruak,
gaizto damugabeen buruezurrak.
23. «Basan'dik ekarriko ditut» dio Jaunak,
itxas-ondotik ekarriko ditut;

24. etsaiaren odoletan gorrituko dituzu oñak,
zakurrak miazkatuko dizkitzute beren mingañez».

ANT.

*Jaungoiko salbatzalea da gure Jaungoikoa; berak iges
egiñerazten digu eriotzatik.*

ANTIFONA 6

Bedeinka ezazute Jauna batzarrean.

- 67 - III

25. Ageri da, Jaungoiko, zure taldea,
jauretxera dijoan nere Jaungoikoaren,
nere Erregearen taldea.
26. Abeslariak dijoaz aurretik,
arpa-jotzalleak atzetik,
erdian neskatxak zaldabea jotzen.
27. «Bedeinka ezazute Jaungoikoa, jai-erdian,
bedeinkatu Jauna, Israel-jatorrikoak».
28. Benjamin, gazteena dijoa aurretik,
Juda'ko aundizkiak, beren taldeakin,
Zabulon'go aundizkiak, Neftali'ko aundizkiak.
29. Zabal ezazu, Jaungoiko, zure indarra,
gure alde ari dan zure indarra, Jaungoiko;
30. Jerusalem'go zure jauretxera
ekarri bezate erregeak beren petxa.
31. Ezi ezazu Kañaberadi'ko Piztia,
Zezen-taldea, errietako Idizkoak.

- Mendera bekizkitzu zillar-pillakin;
sakabanatu itzazu erri gudazaleak.
32. Betoz Ejito'tik aundizkiak,
Luza bitza besoak Jaungoikoarengana Etiopiak!
33. Abestu Jaungoikoari, lurreko erregeak,
jo soñua Jaungoikoarentzat,
34. zeruetan, antziña-antziñako zeruetan
aurrera dijoanarentzat,
bere aotsa, bere aots indartsua zabaltzen duanarentzat;
35. «Aitortu ezazute Jaungoikoaren almena».
- Israel'en gañean egiten du diz-diz Aren aundiak,
Aren almena, laño-gañean.
36. Bildur ematen du Jaungoikoak bere jauretxetik:
- Israel'go Jaungoikoa da -
bere erriari indarra ta almena,
ematen dizkion Jaungoiko Jauna.
Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa!

ANT.

Bedeinka ezazute Jauna batzarrean.

ANTIFONA 7

Nere Jaungoiko, salba nazazu; ura leporaño igo zait.

- 68 -

2. Onik atera nazazu, nere Jaungoiko!
ura leporaño igo zait;
3. lokatz zikiñetan ondatzen ari naiz
eta ez det oña non ipiñirik;
uretan ondoraño sartu naiz,
urbiziak zurrunbilloan narama.

4. Deadarka etenda nago,
eztarria marrantatua daukat;
lausotu egiten zaizkit begiak,
nere Jaungoikoaren zai ain luzaro egoten.
5. Nere buruko illeak baño geiago dira,
bidegabe gorroto didatenak;
nere ezurrak baño gogorrakoak,
bidegabe erasotzen didatenak.
Lapurtu ez dedana biurtu bearco ote det?
6. Ba-dakizu, ene Jaungoiko, nere ezjakiña,
nere gaiztakeriak etzaizkitzu ezkutatzen.
7. Ez ditezela, ni naizelako, etsi-ta gelditu,
zuregan usteon dutenak; gudari-taldeen Jauna!

ez dezatela, ni naizelako, lotsarik izan,
Israel'go Jauna, zure billa dabiltzanak.
8. Zuregatik artu ditut ixekak,
nere aurpegia lotsak gorritu du.
9. Arrotz naiz nere senideentzat,
atzerritar nere amaren semeentzat;
10. erre egiten bait-nau zure jauretxearen maite-griñak,
eta gañera datozkit, zu iraintzen zaituztenen iraiñak.
11. Nere burua barauz samintzen dedanean,
irri-parra egiten didate;
12. zakuz jazen naizenean,
iji-ajaka asten zaizkit;
13. ixil-mixilka ari dira atondoan eserita,
ardoa edanaz, bertsoak jartzen dizkidate.

ANT.

Nere Jaungoiko, salba nazazu; ura leporaño igo zait.

ANTIFONA 8

Askatu nazazu, Jauna, nere etsaiengandik.

- 68 - II

14. Baño, nere otoi-ta zuregana dijoa
ene Jaungoiko, zure mesede-egunean;
entzun dezaidala zure onginei aundiak,
lagun dezaidala zure leialtasunak;
15. atera nazazu lokatzetik, ez nadilla ondoratu,
libra nazazu gorroto didatenengandik,
eta ondo-gabeko uretatik.
16. Ez nazala urbiziak eramán,
ez nazala zurrunbilloak irentsi,
ez dedilla ur-zuloa nere gañetik itxi.
17. Erantzun zaidazu, Jauna, zure graziaren ondasunez,
biur zaitez neregana zure erruki aundiagatik;
18. ez ezkutatu aurpegia zure morroiari;
arrixkuan nago, erantzun zaidazu bereala.
19. Urreratu zakizkit, aska nazazu,
libra nazazu nere etsaiengandik.
20. Agirian daukazu nere iraiña,
nere lotsakizuna, nere izen txarra,
zure aurrean daude erasotzen didatenak.
21. Lotsakizunak biotza lertu egiten dit,
eta auldurik nago.
Erruki-zai nago, eta errukirik ez,
poz-emalleen zai, ta ez ditut arkitzen.
22. Nere janean, beazuna nastu zidaten,
nere egarrían ozpiña eman.

23. Beren maia gerta dakiela galbide,
janariak sare;
24. lausotu bekizkie begiak eta ez dezatela ikusi,
bizkarra makal euki dezatela beti.
25. Irauli iezu gañera zure asarrea,
artu ditzala zure asarrearen suak;
26. aien lurrak soil geldi ditezela,
aien oial-txaboletan ez dedilla inor bizi,
27. zuk zauritu dezunari erasotzen bait-diote;
eta zuk urratu dezunari zauriak zenbatu.
28. Agertu izkiezu beren erruak bana-banaka,
ez aitortu errugabe;
29. bizen liburutik ken itzazu,
ez ditzatela zintzoakin izendatu.

ANT.

Askatu nazazu, Jauna, nere etsaiengandik.

ANTIFONA 9

Billa ezazute Jauna ta biziko da zuen biotza.

- 68 - III

30. Ni zauritu gaxo bat naiz;
ene Jaungoiko, jaso nazala zure laguntzak.
31. Jaungoikoaren izena kantuz goratuko det,
eskerrak emanaz otsegingo det Aren aundia;
32. zezen bat baño atsegiñago izango zaio Jaungoikoari,
adar eta azkazaldun idixko bat baño atsegiñago.
33. Ikus, apalok, eta poztu,
billa zazute Jauna, eta biziberrituko da zuen biotza.

34. Jaunak entzun egiten bait-die bere beartsuui,
eta ixkintxorik egiñ ez katibuai.
35. Gora bezate zeru-lurrak,
urak eta aietan bizi diran guztiak.
36. Jaunak salbatuko du Sion,
Judako erriak berriro jasoko ditu,
eta jabe egin-da, an biziko dira.
37. Aien morroien jatorriak artuko dute ondare,
eta an biziko dira Aren izena maite dutenak.

ANT.

Billa ezazute Jauna ta biziko da zuen biotza.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu... (19 orr.)



GORALTZAK I — AD LAUDES I

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Gora ezazute Errege-Jauna, bere aurrean.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 97 -

1. Abestu zaiozute Jaunari kanta berri bat mirariak egin bait-ditu;
 2. bere eskuiak eman dio garaipena, bere esku santuak;
- Jaunak bere garaipena jakinerazten du; bere zuzentasuna agertzen die atzerriai; errukia ta leialtasuna gogoratu zitzaizkion Israel'eko etxearen onerako.
3. Eta lurreko mugak ikusi dute gure Jaungoikoaren garaipena.
 4. Lur osoa, gora ezazu Jauna, egin deadar, oju, jo soñua,
 5. jo zitara Jaunarentzat, asi bitez soñugalluak;
 6. tutuz eta turutaz, gora ezazute Errege-Jauna.
 7. Asi bedi orruka itxasoa ta an dagon guztia, lurra ta bertan bizi diran guztiak;

8. jo bezaiote txalo ibaiak, irrintzi egin mendiak, lurrean agintzeko datorren Jaunari.

9. Zuzenbidez aginduko du lurbiran, eta zuzentasunez errietan.

ANT.

Gora ezazute Errege-Jauna, bere aurrean.

ANTIFONA 2

Zu izan zera, Jauna, gure babesleku.

- 89 -

1. Zu izan zera, Jauna, gure babesleku gizaldiz-gizaldi.
2. Mendiak jaio baño len, naiz lurbira sortu aurretik, betidanik eta betiko Jaungoiko zera Zu.
3. Zuk auts biurtzen dezu gizona esanaz: «Biur zaitetze, Adan'en semeok».
4. Zure aurrean milla urte joandako atzo aña, gualdi bat aña.
5. Urterik urte ereiten dituzu, berriztatzen dan belarra bezela;
6. goizean loratu eta berritu, eta arratsaldean, moztu ta zimeldu.
7. Nola suntsitu gaituan, gero, zure asarreak, eta zure sumiñak naastu!
8. Gure erruak zure aurrean ipiñi zenituan, eta gure ixilpekoak zure begien argitan.

9. Eta gure egun guztiak zure asarrepean igaro dira,
eta gure urteak intziri bat bezela amaitu.
10. Bat irurogei ta amar urte biziarren,
eta sendoena, larogearaño,
geienak alperrrikako neke dira,
azkar igarotzen bait-dira ta egaz joan.
11. Nork ezagutzen du zure asarrearen indarra,
nork sumatu du zure sumiñaren aztuna?
12. Erakutsi iguzu gure urteak zenbatzen,
biotz-zugurtasuna iritxi dezagun.
13. Biurtu zaitetz, Jauna; noiz arte?
erruki zakizkie zure morroiak;
14. bete gaitzazu goizean zure errukiz,
eta gure bizitza osoa poza ta atsegiña izango da;
15. poztu gaitzazu, samindu gaituzun egunen ordez,
zoritxarrak izan genituan urteen ordez.
16. Zure morroiak ikusi dezatela zure egintza,
ta beren semeak zure aintza.
17. Jetxi bedi guregana Jaunaren onginaia,
eta biur bitza onuratsu gure eskuen egiteak.

ANT.

Zu izan zera, Jauna, gure babesleku.

ANTIFONA 3

Jauna, zeruetaraño irixten da zure errukia.

- 35 -

2. Gaiztoak, biotz-barruan,
pekatuaren mintzo ixil bat entzuten du;

- «Ez diot bildurrik Jaungoikoari,
ezta bere aurrean ere».
3. Bere errua, ez ezagutu, ez gorrotatuko ez duten
iritzian bait-dago.
 4. Aren agoko itzak gaiztakeria ta billaukeria dira;
alde batera utzi ditu zentzundun izatea ta on egitea.
 5. Etzanda, gaiztakeria du ausnartzen,
bide gaiztoan setati dabil,
eta ez du gaiztakeria uzten.
 6. Jauna, zeruetaraño irixten da zure errukia,
zure leialtasuna odeietaraño;
 7. zure zuzentasuna mendi-mutur garaietaraño,
zure epaiak itxas aundi sakona bezela dira.
- Gizonai eta piztiaia ona egiten diezu Zuk.
8. Jaungoiko, bai dala neurrigabea zure errukia!
gizakiak zure egapean babesten dira,
 9. zure etxearen gozoz mantentzen dira,
zure atsegiñ-errekan edanarazten diezu;
 10. zuregan bait-dago iturri bizia
eta zure argiak ikustarazten digu argia.

11. Luza ezazu zure errukia ezagutzen zaituztenentzat,
eta zure zuzentasuna biotz-zuzenentzat;
12. ez nazala zapaldu arroputzaren oñak,
ez nazala baztartu gaiztoaren eskuak.
13. Lur jo dute gaiztoak,
amilduta, ezin dira altxa.

ANT.

Jauna, zeruetaraño irixten da zure errukia.

ANTIFONA 4

Nere erria nere ondasunez aseko da, dio Jaunak.

Jeremias'en abestia. (Jer., 31)

10. Entzun, erriak, Jaunaren itza,
entzunerazi urrutiko ugarteetaraño:
«Sakabanatu zuanak berak bilduko du Israel,
artzaiak artaldea zaitzen duan bezela zaituko du.
11. Jaunak birrerosi bait-du Jakob,
eta esku indartsuagokotik askatu.
12. Poz-ojuka etorriko dira Sion'go mendira,
Jaunaren ondasunetara elduko pillaka;
gari, ardo ta olioetara,
arkume ta zekor-taldeetara
baratz ezea bezela izango da aien anima,
eta ez dira berriro erkinduko.
13. Orduan neskatxa poztu egingo da dantzan,
gazteak eta zaarrak alaitu;
atsekabea poz biurtuko diet;
atsegiñez beteko ditut eta samiña arindu egingo diet.
14. Gantzuz aseko ditut apaizak,
eta nere erria nere ondasunez aseko da.

ANT.

Nere erria nere ondasunez aseko da, dio Jaunak.

ANTIFONA 5

Gure Jaungoikoari gorespen atsegiña dagokio.

- 146 -

1. Gora ezazute Jauna; ona bait-da soñua,
gure Jaungoikoari gorespen atsegiña dagokio.
2. Jerusalem Jaunak berriztaten du,
eta Israel'dik erbestetuak biltzen;
3. Berak sendatzen ditu biotz urratuak,
eta aien zauriak lotzen.
4. Berak zenbatzen ditu izarrak,
bakoitzari bere izenez deitzen dio;
5. Gure Jauna aundia da ta altsua,
bere jakinduriak ez du mugarik;
6. Jaunak eutsi egiten die apalai
gaiztoak autsetaraño amildu.
7. Kanta Jaunari esker-on-abestia,
jo zitara gure Jaungoikoarentzat;
8. Berak estaltzen du zerua odeiez,
euria gertutzen lurrarentzat;

Berak sortzen du belarra mendietan,
gizonaren serbitzuan dabilzanentzat.

9. Berak ematen die janaria abereai,
eta karraska ari diran belakumeai.
10. Ez du aintzat artzen zaldien indarrik,
ezta ere gizonen zankorik;
11. Jaunak maite ditu bere zintzoak,
ustea Aren errukian dutenak.

ANT.

Gure Jaungoikoari gorespen atsegiña dagokio.

Pazko-aldian:


Aleluia, aleluia, aleluia.

Benedictus

ANTIFONA

*Santutasunean serbi dezagun Jauna,
eta onik aterako gaitu etsaiengandik.*

“ Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



GORALTZAK II — AD LAUDES II

ANTIFONA 1

Zure kontra bakarrik egin det pekatu.

— 50 —

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANTIFONA 2

Biurtu zaitetz, Jauna; erruki zakizkie zure morroiari.

— 89 —

Zu izan zera, Jauna... (209 orr.)

ANTIFONA 3

Zure errukia bai dala gain-gañekoa, Jaungoiko!

— 35 —

Gaiztoak biotz-barruan... (210 orr.)

ANTIFONA 4

Jauna da nere indar eta almen; Bera izan zan nere salbamen.

Moises'en lenen-abestia. (Irteera, 15)

1. Jaunari abestuko diot, aundia da bere garaitza,
zaldi ta gurdi amildu ditu itxasoan.
2. Jauna da nere indar eta almen,
Bera izan zan nere salbamen,

Bera da nere Jaungoiko; goratu egingo det;
Bera da nere gurasoen Jaungoiko; ospatu egingo det.
3. Jauna gudari da,
Jauna du izen.
4. Faraon'en gurdiak itxasora amildu zituan,
eta aren buruzagirik onenak itxas-Gorrian ito;
5. olatuak estali zituzten,
arriak bezela ondora joan ziran.
6. Zure eskua, Jauna, indartsua da ta ikaragarria,
zure eskuia, Jauna, etsaia txautu egiten du;
7. Zure garaipen aundiak etsaia ondatu,
zure sua botatzen diezu, ta lastoa bezela kixkaltzen ditu.
8. Zure sudur-aizez urak pillatu ziran,
urbiziak orma bezela zutitu,
ta olatuak itxas-ondoan mamitu.
9. Au zion etsaiak: «Atzetik joan, eta arrapatuko ditut,
aien guda-ondakiña banatuko det,
eta aseko da nere ondasun-gosea.
Ezpata aterako det eta nere eskuak eutsi egingo diete».

10. Baño, zure arnasak aize egin zuan,
eta itxasoak estali zituan;
beruna bezela ondoratu ziran ur bildurgarrietan.
 11. Nor zu bezelakorik, Jauna, jainkoen artean?
Nor zu bezela bildurgarri santuen artean,
ikaragarri zure egite aundiagatik, mirarigille?
 12. Zure eskua zabaldu zenduan;
lurrak irentsi zituan;
 13. Birrerositako zure erria errukiz
zuzendu zenduan,
zure almenez zure etxe santurano
eraman zenituan.
 14. Erriak jakin zuten eta dardarka asi ziran,
bildur-ikarak artu zituan filisteotar agintariak,
 15. Edom'go Zezenak bildurtu egin ziran,
Moab'ko Adariak ikaratu,
kanandar lagun guztiak kokildu;
 16. zure bildur-ikarak artu zituan,
arritu-ta utzi zituan zure besoaren aundiak,
zure erria igarotzen zan artean,
zuretzat erosi zenduan erria igarotzen zan artean.
 17. Zure ondareko mendian sartu ta jartzen dezu,
zuretzat aulki biurtu zenduan tokian, Jauna,
zure eskuak egin zuten jauretxean, Jauna.
 18. Jauna beti-betiko da Errege!
- ANT.
- Jauna da nere indar eta almen; bera izan zan nere salbamen.*

ANTIFONA 5

Gora ezazute Jauna; biotz urratuak sendatu ta zauriak
lotu egiten bait-ditu.

- 146 -

Gora ezazute Jauna... (213 orr.)

Benedictus

ANTIFONA

Jaunaren serbitzari izan gaitezen santutasunez,
eta gure etsaien menpetik aterako gaitu.

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



GOIZ-ALDEKO OTOITZA — AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Belardi gizenetan etzaten nau.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 22 -

1. Jauna det artzai nik,
eta ez daukat ezeren bearrik!
2. Belardi gizenetan nau etzaten,

ur geldietara eramaten,
3. eta indarberritu egiten nau;
bide zuzenetik narama,
bere izenaren aintzarako.
4. Menditarte illunean barrena ibilli arren,
ez det ezeren bildurrik, Zu nerekin bai-zatoz;
zure zigorra ta zure artzai-makilla lasaipide ditut.
5. Maia ipintzen didazu aurrean,
nere etsaien aurrez-aurre;
usai gozoz igurtzitzen didazu burua;
eta gañezka daukat edontzia.

6. Zure onginaia ta errukia ditut lagun,
nere bizitzako egun guztietan,
Jaungoikoaren etxean izango det bizileku,
amaigabeko urteetan.

- 71 -

1. Nere Jaungoiko, emaiozu zure auzibidea erregeari,
zure zuzentasuna erregeen semeari,
2. zure erriari zuzenbidez agindu dezaion,
eta zure umillai zuzentasunez.
3. Mendiak pakea ekarri dezatela,
eta mendixkak zuzenbidea.
4. Berak zaitu ditzala erriko umillak,
beartsuen semeai lagundu,
eta zapaltzallea ondatu.
5. Eguzkiak aña iraun dezala,
illargiak aña, gizaldiz-gizaldi;
6. jetxi dedilla curia bedartzara bezela,
lurra asetzen duan euri-txintxarra bezela.
7. Aren egunetan, zuzentasuna loratu dedilla,
eta pakea illargia itzali dedin arte.

- 71 - II

8. Itxasotik itxasora nagusi izan dedilla,
Ibai-Auditik legor-mugarano.
9. Aren etsaiak bere aurrean makur ditezela,
Aren arerioak lur-jo dezatela;
10. Tarsis'ko erregeak eta ugarteetakoak
zerga ordaindu dezaioleta;

- Saba'ko ta Arabia'ko erregeak beren doaiak eskeñi;
11. auzpeztu ditezela aren aurrean errege guztiak,
eta serbi dezaioleta erri guztiak;
 12. Ark aterako bait-du onik deadarka ari zan beartsua,
eta laguntzallerik etzuan errukarria;
 13. Ark izango dio erruki beartsuari ta txiroari,
eta salbatuko du beartsuen bizia;
 14. Ark aterako ditu gogorkeritik biziak,
aien odola baliotsu izango da aren begietan.
 15. Bizi dedilla ta Saba'ko urrea ekarri dezaioleta,
egin dezatela otoitz eten gabe aren alde,
eta egun osoan bedeinkatu.
 16. Garia ugari izan dedilla sorocetan,
aizeak mur-mur egin dezala mendi-tontorretan;
Libano'k bezela uzta eman dezatela,
eta zelaiko belarra bezela jaio ditezela galburuak;
 17. Betikoa izan dedilla Aren izena,
eta eguzkiak ainbat iraun dezala aren ospeak;
bera izan dedilla erri guztien onespen,
eta aitor dezatela zorioneko lurreko jatorri guztiak.
 18. Bedeinkatua izan bedi, Jauna, Israel'go Jaungoikoa,
mirariak egiten dituan bakarra;
 19. bedeinkatua betiko Aren izen ospatsua;
Aren aintzak bete dezala lurra.
Amen, amen!

ANT.

Belardi gizenetan etzaten nau.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

BEDERATZIETAKO OTOITZA — AD TERTIAM

ANTIFONA

*Pazko-aldian ezik:**Bai dala ona zuzenarentzat Jaungoikoa; biotz-garbientzat!**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

- 72 - I

1. «Bai dala ona Jaungoikoa, zuzenarentzat,
Jauna biotz-garbientzat».
2. Ni, berriz, eror-zorian egon naiz,
nere oñak ia-ia irrixta egin zuten:
3. gaiztoak goraka joaten ikusita,
lotsagabeen espa bait-nuen.
4. Aientzat ez da biotzmiñik,
osasuntsu ta gizen daude;
5. ez dute giza-nekerik,
ezta besteak bezela, naigaberik.
6. Orregatik arrokeria dute lepoko,
eta indar-jantziak soñeko;
7. aragietatik gaiztakeria dariote,
biotza asmo txarrez gañezka daukate.
8. Gaizki-esaka ta oker mintzo dira,
eta gainkaldetik zapaltzeko zema egiten dute.
9. Aien agoa zerurano ausartzen da,
lurrean zear dabil aien mingaña.

- 72 - II

10. Orregatik nere erria aiengana biurtzen da,
eta aien itzak edaten dituzte.
11. Ala diote: «Jakingo al du, ba, Jaungoikoak?
jabetuko al da Goi-goikoa?».
12. Orrelakoak dira gaiztoak:
beti lasai, aberastasunak pillatzen ari dira.
13. Beraz, zertarako garbitu det nik nere biotza,
eta nere eskuak errugabeen txukundu?
14. Zergatik burututzen det egun osoan,
eta goizean gogor artu nere burua?
15. «Aiek bezela mintzatuko naiz» esango ba'nu,
zure semeen jatorria ukatuko nuke.
16. Nola zan jakin-nai, ta ausnartzen nuan,
baño, oso zalla zitzaidan,
17. Jaungoikoaren misterioan sartu
eta aien azkena ulertu nuan arte.

- 72 - III

18. Egia da: irrixtalekuan jartzen dituzu,
ondamendira amildu,
19. larri bizia ematen dute beingoan,
eta bildur-ikarak suntsitzen ditu.
20. Esnatzean amets bat bezela, Jauna,
esnatzean ez-ikusi egiten diezu aien itzalai.
21. Nere biotza su-ta-gar zegonean,
eta nere barrua kezketan neukanean;
22. ni ergel eta ezjakin bat nintzan,
ni abere bat nintzan zure aurrean.

23. Baño, ni zurekin egongo naiz beti,
zuk artzen didazu nere esku-eskuia.
24. zuk zuzentzen nauzu, zure burubideen erara,
zuk naramazu elburu argitsura.
25. Ez al zaitut Zu zeruan?
eta zurekin, zer ajola zait lurra?
26. Nere biotz-aragiak urtzen ari zaizkit,
nere betiko sail dan Jaungoikoarengatik.
27. Bai; zuregandik aldentzen diranak, galdu egiten dira,
zurekin leial ez diranak, txautu egiten dituzu.
28. Jaungoikoaren ondoan egotea da on neretzat,
Jauna nere babesleku egitea,
eta Sion'go ateetan
zure egintza guztiak esatea.

ANT.

Bai dala ona zuzenarentzat Jaungoikoa; biotz-garbientzat!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



AMABIETAKO OTOITZA — AD. SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Gogora ezazu, Jauna, antziñatik zuretzat
artu zenuan lagunartea.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 73 -

1. Zergatik gauzkazu, Jauna, beti baztartuta?
zergatik dago sutan zure asarrea
zure artaldeko ardien aurka?
2. Gogora ezazu antziñatik zuretzat artu zenduan lagunartea,
zure sail izateko erosi zenduan jatorria,
zure bizitokia zenduan Sion-mendia.
3. Zuzendu itzazu zure oinkadak
konponketa gabeko orma auetar;
etsaiak leku santua guztiz ondatu du.
4. Etsaiak orruka ari ziran zure batzar-erdian
beren ikurriñak zabaldu zituzten.
5. Goiko sarreran, orma-zutoiak aizkoraz irauli zituzten;
gero malluz eta itaiez irudi guztiak txikitu,
6. zure jauregi-etxeari su eman zioten,
eta zure izenaren etxea, lurreratuz, kutsatuta utzi zuten.

7. Onela zioten berekiko: «Suntsitu egin bear ditugu»,
eta errialdeko jauretxe guztiai su eman zieten.
8. Orain ez degu ikusten gure ezaugarririk ta ez da igarlerik,
gure artean iñork ez daki noiz arte.

- 73 - II

9. Noiz arte, lotsarazi bear gaitu etsaiak, nere Jaungoiko?
ez ote da zure izena gaitzesten aspertuko?
10. Zergatik atzeratzen dezu zure ezkerreko eskua,
eta kolkoan sartuta daukazu zure eskubia?
11. Zu, ordea, nere Jaungoiko, errege zera betidanik,
Zuk eraman zenuan garaipeña lurraren erdian;
12. Zuk erdibitu zenduan indarrez itxasoa,
Zuk ausi zenion burua itxas-piztitzarrari,
13. Zuk lertu zenion burua Lebiatan'i,
eta itxas-arraiai jateko eman.
14. Zuk sortu zenituan iturriak eta ibaiak,
Zuk legortu ibai agor-eziñak.
15. Zurea da eguna, zurea gaua,
Zuk ipiñi zenituan illargia ta eguzkia;
16. Zuk jarri zenizkion lurrari mugak,
Zuk eratu zenituan udara ta negua.

- 73 - III

17. Izazu gogoan, Jauna, etsaiak iraindu egiten zaituala,
erri zoro batek zure izena ezetsi egiten duala.
18. Ez eman putreai zure tortolloaren bizia,
ez aztu nai-ta-ez zure beartsuen bizia.

19. Gogora ezazu zure alkartasuna; erri-aldeko baztarrak
indarkeriz beteta daudela.
Ez dedilla apala usteona galduta joan,
20. beartsuak eta saminduak gora dezatela zure izena.
21. Altxa zaitez, Jaungoiko, aldeztu zure auzia;
izan gogoan zoroaren betiko ixekak,
22. ez aztu zure etsaien deadarrak,
zure kontra gero-ta-aundiagoa dan biurrien ixkanbilla.

ANT.

Gogora ezazu antziñatik zuretzat artu zenduan lagunartea.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



IRURETAKO OTOITZA - AD NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Zure izenari dei egiten diogu, Jauna; zure arrigarriak esanaz.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 74 -

2. Eskerrak ematen dizkitzugu, Jauna,
eskerrak ematen,
zure izenari dei egiñaz,
zure arrigarriak esanaz.
3. «Egokiera aukeratzen dedanean,
zuzen epaituko det.
4. Lurrak bere biztanleakin dar-dar egiten ba'du ere,
nik gogortu egin dizkiot bere zutoiñak».
5. Nik diotset arropuzai: ez arrotu;
gaiztoai: ez jaso burua,
6. ez jaso burua zeruaren kontra,
ez esan lotsagabekeririk Arkaitzaren kontra».
7. Ez sorkaldetik, ez sarkaldetik,
ez basamortutik, ez mendietatik;
8. Jaungoikoak bakarrik agintzen du:
bat txautu egiten du, bestea gallendu.

9. Jaunak ontzi bat dauka eskuan,
pozoidun ardoz betetako ontzia;
lurreko gaizto guztiai ematen die,
ondo-ondoraño edan dezaten.
10. Eta nik beti otsegingo det Aren aunditasuna,
eta Jakob'en Jaungoikoarentzat soñua joko det;
11. gaiztoen almena ondatuko det,
eta zintzoen almena goratu egingo da.

- 75 -

2. Jaungoikoa Juda'n agertzen da,
Aren ospea aundia da Israel'en;
3. Aren txabola Jerusalem'en dago,
Aren bizitokia Sion'en.
4. Antxe ausi zituan uztai dizdizariak,
babeskiña, ezpata ta guda.
5. Zu dizdiratsua zera, bikaña,
irabazitako guda-arrapakiñ-pillakin,
6. Kementsuak lotan daude,
eta gudariai beren besoak utsegiten diete.
7. Deadar batekin, Jakob'en Jaungoiko orrek,
geldierazi zenituan gurdia eta zaldia.

- 75 - II

8. Zu ikaragarria zera; nork egin gogor zuri,
zure asarrearen erasoari?
9. Zerutik otsegiten dezu epaia:
lurra ikaraz bildurturik dago,
10. Jaungoikoa auzia egiteko zutitzen danean,
lurreko apalak salbatzeko.

11. Giza-asarreak goratu egin bearko zaitu
zigor-ondoren, bizirik ateratzen diranak
ospatu egingo zaituzte.
12. Egin ziñ-eskeintzak Jaunari eta bete,
eta mendekoak ekar bezaizkiote zergak Bildurgarriari;
arnasik gabe uzten ditu aundizkiak,
eta bildurgarria da lurreko erregeentzat.

ANT.

Zure izenari dei egiten diogu, Jauna; zure arrigarriak esanaz.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

*Ikus nolako atsegiña, nolako gozamina
senideak alkartu-ta bizitzea!*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

— 132 —

1. Ikus nolako atsegiña, nolako gozamina,
senideak alkartuta bizitzea!
2. Buruan gantzu eder da,
bizarrean beera dariona,
aren soñeko-barreneraño.

Aaronen bizarrean beera dariona,
3. Sion-mendi-gañera, Ermon'dik darion intza da.
Jaunak ara bialtzen bait-du onespena; betirako bizia.

ANT.

*Ikus nolako atsegiña, nolako gozamina
senideak alkartu-ta bizitzea!*

ANTIFONA 2

Emaizkiozute eskerrak Jaunari; betikoa bait-da Aren errukia.

- 135 -

1. Emaizkiozute eskerrak Jaunari, ona da-ta,
betikoa bait-da Aren errukia.
2. Emaizkiozute eskerrak jainkoen Jaungoikoari,
betikoa bait-da Aren errukia.
3. Emaizkiozute eskerrak jaunen Jaunari,
betikoa bait-da Aren errukia.
4. Ark bakarrik egin zituan mirari aundiak,
betikoa bait-da Aren errukia.
5. Ark egin zituan jakituriz zeruak,
betikoa bait-da Aren errukia.
6. Ark gogortu zituan zeru-lurrak ur-gañean,
betikoa bait-da Aren errukia.
7. Ark egin zituan argizagi aundiak,
betikoa bait-da Aren errukia.
8. Egunez agintzen duan eguzkia,
betikoa bait-da Aren errukia.
9. Gabaz agintzen duan illargia,
betikoa bait-da Aren errukia.

ANT.

Emaizkiozute eskerrak Jaunari; betikoa bait-da Aren errukia.

ANTIFONA 3

*Emaizkiozute eskerrak Jaunari; gogoratu bait-ginduan
lur-jota geundenean.*

- 135 - II

10. Ark zauritu zuan Ejito bere len-semeetan;
betikoa bait-da Aren errukia.

11. Eta Israel erri artatik atera;
betikoa bait-da Aren errukia.
12. Esku altsuaz, beso zabalez;
betikoa bait-da Aren errukia.
13. Ark erdibitu zuan Itxas Gorria;
betikoa bait-da Aren errukia.
14. Eta Israel erditik eraman;
betikoa bait-da Aren errukia.
15. Faraon Itxas Gorrian amildu;
betikoa bait-da Aren errukia.
16. Bere erria basamortuan barrena eraman zuan;
betikoa bait-da Aren errukia.
17. Ark zauritu zituan errege ospetsuak;
betikoa bait-da Aren errukia.
18. Errege altsuai eriotza eman zien;
betikoa bait-da Aren errukia.
19. Sijon, amorreotarren erregeari;
betikoa bait-da Aren errukia.
20. Eta Og, Basan'go erregeari;
betikoa bait-da Aren errukia.
21. Beren lurra eman zien ondare;
betikoa bait-da Aren errukia.
22. Israel, bere morroiari ondare;
betikoa bait-da Aren errukia.
23. Gogoratu ginduan, lur-jota geundenean;
betikoa bait-da Aren errukia.
24. Eta gure menderatzailleengandik atera;
betikoa bait-da Aren errukia.
25. Ark ematen die janaria bizidun guztiai;
betikoa bait-da Aren errukia.

26. Emaizkiotzute eskerrak zeruko Jaungoikoari;
betikoa bait-da Aren errukia.

ANT.

*Emaizkiozute eskerrak Jaunari; gogoratu bait-ginduan
lur-jota geundenean.*

ANTIFONA 4

*Itsatsi dakidala ao-sapaian mingaña, zu gogoan
ez ba'zaitut, Jerusalem!*

- 136 -

1. Babilonia'ko urbide-ondoetan eseri giñan,
Sion-errimiñez negar egiteko;
2. ango ibai-ertzeko saratsetan
geneuzkan zintzilik gure zitarak.
3. Erbesteratu ginduztenak,
kantatzeko esan ziguten,
gure zapaltzalleak jolasarazteko;
«Kanta zaiguzute Sion'go kantaren bat».
4. «Nola kantatu Jaunaren kanturik,
atzerrian?»
5. Zurekin aztutzen ba'naiz, Jerusalem,
igartu dakidala esku-eskuia;
6. itsatsi dakidala ao-sapaiean mingaña,
zu gogoan ez ba'zaitut;
nere pozen gallurrean,
Jerusalem jartzen ez ba'det.

7. Ar ezaizkiezu kontuak, Jauna, Idumeatarrai,
Jerusalem'go egun artzaz;
«Ondatu, ondatu oñarrietaraño» esanaz,
alkar berotzen zutenekoaz.
8. Babilonia'ko erri nagusi gaizkillea alena!
Nork ordaindu al dezaizkitzuen
egin dizkiguzun kalteak!
9. Nork artu al ditzaken zure umeak
eta arkaitzetan txikitu!

ANT.

*Itsatsi dakidala ao-sapaian mingaña, zu gogoan
ez ba'zaitut, Jerusalem!*

ANTIFONA 5

*Eskerrak emango dizkiot, zure izenari, Jauna,
zure errukiagatik eta leialtasunagatik.*

- 137 -

1. Jauna, biotz-biotzez ematen dizkitzut eskerrak;
aingeruen aurrean soñua joko det zuretzat.
2. Zure jauretzerutz auzpeztuko naiz,
eskerrak emango dizkiot zure izenari;
zure errukiagatik eta zure leialtasunagatik,
zure omena baño aundiagoa bait-da zure agintzaria.
3. Dei egin nizumean, entzun egin zenidan,
geitu egin zenidan kemena nere animan.
4. Eskerrak eman bezaizkitzute, Jauna, lurreko erregeak,
zure aoko erantzun-itza entzutean;

5. ospatu bitzate Jaunaren bideak,
aundia bait-da Jaunaren aintza.
6. Jauna gain-gañekoa da, apalari ondo begiratzen dio,
eta urrutitik ezagutzen du arroa.
7. Arrixku-artean nabillenean,
bizia gorde egiten didazu;
nere etsai-asarrearen aurka zure ezkerre luzatzen dezu,
eta zure eskuiak salbatu egiten nau.
8. Jaunak burutuko ditu bere mesedeak neregana:
Jauna zure errukia betikoa da,
ez utzi alde batera zure eskuen lana.

ANT.

*Eskerrak emango dizkiot, zure izenari, Jauna,
zure errukiagatik eta leialtasunagatik.*

*Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.***Magnificat**

ANTIFONA

*Jaunak arrigarriak egiten ditu bere besoaz;
biotz-arroak sakabanatu oi ditu.*

Nere animak Jaunaren aunditasuna goستن du... (55 orr.)

ARRATSEKO OTOITZA — AD COMPLETORIUM

ANTIFONA

*Pazko-aldian ezik:**Jauna, zu zaitut laguntza ta askatasun.**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

- 69 -

2. Nere Jaungoiko, arren, aska nazazu;
zatoz azkar, Jauna, neri laguntzera
3. Bezate ondamendi lotsagarria
ni il-naiean dabiltzanak;

atzera egin bezate lotsa gorritan,
nere kalte-billa dabiltzanak.
4. alde egin bezate lotsaturik,
neri parra egiten didatenak.
5. Poztu ta alaitu bitez Zurekin,
zure billa dabiltzan guztiak;
Zuregandik osasuna nai dutenak
esan bezate: «Aundia da Jaungoikoa!»
6. Ni beartsua ta zoritxarrekoa naiz;
lagun zakizkit nere Jaungoiko!
Zu bait-zaitut laguntza ta askatasun;
Ez luzatu, Jauna!

- 70 -

1. Zuregana natorkizu, Jauna,
ez nadilla betiko menderatuta gelditu;
2. zuzena zeran orrek, onik atera ta salba nazazu,
makur neregana zure belarria ta salbatu.
3. Izan zakizkit Zu babes-arkaitz,
salbatuko nauan gaztelu;
zu bait-zera nere arkaitz eta nere gaztelu.
4. Atera nazazu, nere Jaungoiko, esku gaiztotik;
ukabil gaizkille ta gogorretik;
5. Zu izan bait-zindudan, ene Jaungoiko, nere itxaropen!
eta nere usteon, Jauna, gazetandik.
6. Amaren sabelean Zuri eutsita nengoan,
altzoan Zuk eusten zenidan,
Zuregan izan det beti usteon.
7. Askorentzat mirari bat nintzan,
Zu bait-zifian nere babesleku sendo.
8. Zure gorapenez betea neukan agoa,
eta zure aintzaz egun osoan.
9. Orain, zartzaroan, ez nazazu zapuztu;
indarrak joaten ari zaizkit; ez nazazu baztatu;
10. nere etsaiak nitzaz ari bait-dira,
bizia kendu nai didatenak batzarra dute,
11. ala diote: «Jaungoikoak erabat utzi du;
jarrai orri, eutsi; ez dio inork laguntzen!»
12. Ene Jaungoiko, ez gelditu neregandik urruti,
ene Jaungoiko, zatozkit azkar laguntzera.

- 70 - II

13. Utsegin dezatela eta lur jo,
bizia kendu nai didatenak,
iguñez eta lotsaz beterik gelditu bitez
nere kalte-billa dabiltzanak.
14. Ni, berriz, beti itxaröten egongo naiz,
gero-ta-geiago goratuko zaitut;
nere agoak zure laguntza zabalduko du.
15. eta zure salbamenaren egun osoan,
bai bait-dakit neurri gabekoak dirala.
16. Zure arrigarriak esango ditut, nere Jauna,
zure garaipena agertuko, osorik zurea.
17. Gaztetandik erakutsi zenidan, ene Jaungoiko,
eta gaurdaño zure miragarriak jakinerazten ari naiz;
18. orain, zartzaroan, ille zuritan,
ez nazazu erabat utzi, ene Jaungoiko;
zure lan bikañak eta zure garaitza goragarriak,
19. egin zenituan lan arrigarriak
zure besoak, gizaldi berriari,
agertzen ez dizkion bitartean.
20. Nere Jaungoiko, nor Zu bezelakorik!
Arrixku asko ta aundiak
igaroazi zenizkidan;
berriro bizia emango didazu,
lurpe sakonetik igoeraziko nauzu;
21. nere ospea audituko didazu,
berirro poztu egingo nauzu;
22. eta Jaungoiko, arparekin eskerrak emango dizkitzut nik
zure leialtasunarengatik;

zitara joko det zuretzat,
Israel'go Santu orrentzat;

23. goraka oju egingo dizute, Jauna, nere ezpañak,
Zuk erosi zenduan nere animak;
24. eta nere mingañak egun osoan,
zure laguntza otsegingo du,
lur jota eta lotsatuirk gelditu bait-ziran
nere kalte-billa zebiltzanak.

ANT.

Jauna, zu zaitut laguntza ta askatasun.

Pazko-aldian:


Aleluia, aleluia, aleluia.

Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"

ANTIFONA

Jauna: Salba gaitzazu...

Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela... (58 orr.)



OSTIRALA

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA — AD MATUTINUM

Otoitzerako deia — Invitatorium

Lelo. Jaungoikoa da gure Jauna * Zatozte, gurtu dezagun!

1. Zatozte; gora dezagun Jauna... (7 orr.)

Gorasarrea — Hymnus

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Jaunak Jakob'entzat agindua ipiñi zuan;
Israel'i legea eman zion.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 77 -

1. Entzun ezazu, nere erri, nere erakusbidea,
makurtu belarria nere agoko itzetara;
2. esaera zaarrai nere agoa zabaldu bear diet,
antziñako ezkutukoak ager ditezen.

3. Guk entzun eta ikasi genduana,
gure gurasoak esan zigutena,
4. ez diegu gordeko gure semeai,
datorren gizaldiari esango diogu:

Jaunaren goraltzak, bere almena,
egin zituan mirariak.

5. Jakob'entzat agindua ipiñi bait-zuan,
Israel'i legea eman zion;

Gure gurasoai Ark agindu zien,
beren semeai erakutsi zezaietela,

6. urrengo gizaldiak jakin zezan;
gero jaioko ziran semeak.
7. Altxa ta beren semeai azaldu dezaietela,
beren usteona Jaungoikoarengan ipiñi dezaten,
eta Jaungoikoaren egiteak aztu ez ditzaten;
baizik eta Aren aginduak bete.

8. Gurasoen antzeko izan ez ditezen:
gizaldi biurri ta setatia;
gizaldi biotz-aldakorra,
Jaungoikoarentzat gogo leialik gabea.

ANT.

*Jaunak Jakob'entzat agindua ipiñi zuan;
Israel'i legea eman zion.*

ANTIFONA 2

Aien gurasoen aurrean mirariak egin zituan.

- 71 - II

9. Efraindarren uztaidunak
gudaketan atzera egin zuten.
10. Etzuten gorde Jaungoikoaren elkartea,
uko egin zioten Aren legea jarraitzeari,
11. Aren egintzak azturik
eta agertu zizkien mirariak.
12. aien gurasoen aurrean mirariak egin zituanean,
Ejito'ko lurraldean, Soan'go zelaiean.
13. Itxasoa erdi bi egin zien, bidea zabaltzeko,
urak orma bezela gogortuaz;
14. egunez odei batekin zuzentzen zituan,
gauaz suaren argitasunez;
15. basamortuan arkaitza zulatu zien,
eta ura eman oparo edateko;
16. arkaitzetik errekatxoak atera,
eta urak ibai antzera ibillian jarri zituan.

ANT.

Aien gurasoen aurrean mirariak egin zituan.

ANTIFONA 3

*Jaunak zeruko ateak zabaldu zituan;
mana-euria egin zien gañera.*

-77- III

17. Baño, aiek berriro pekatu egin zuten Aren kontra,
eta Goi-goikoaren kontra altxa ziran basamortuan;
18. zirikatu egin zuten Jaungoikoa beren biotzetan,
beren gogoko jana eskatuaz;
19. Jaungoikoaren kontra mintzatu ziran:
«Jaungoikoak mairik jarri ote dezake basamortuan?»
20. Ark arkaitza jo zuan, ura atera zan,
eta errekek gañezka egin zuten;
baño, ogia ere eman ote dezaiguke,
bere erria aragiz ornitu?
21. Entzun zuan Jaunak eta asarretu egin zan;
sua piztu zan Jakob'en kontra,
irakin zuan aren asarreak Israel'en kontra;
22. Jaungoikoari sinistu etziotelako,
eta Aren laguntzan usteonik etzutelako.
23. Baño goiko odeiai agindua eman zien,
zeru-ateak zabaldu zituan;
24. mana-euria egin zien gañera,
zeruko garia eman zien;
25. eta gizonak aingeruen ogia jan zuan,
asetzeko aña janari bialdu zien.
26. Zerutik ipar-aizea aterazi zuan,
eta bere indarrez ego-aizea zuzendu,
27. auts-pilla bezela aragia ixuri zuan,
eta egaztiak itxas-ondarra bezela;
28. txabolategi-erdian eroriazi zituan,
aien oial-txabola-inguruan.
29. Jan zuten eta ase ziran;
alaxe bete zuan aien gosea;

30. Baño gosea kendu ordukoxe,
jana oraindik agoan zutela,
31. Jaungoikoaren asarreak irakin zuan aien kontra,
sendoenak il zituan,
Israel'ko lorea ausi zuan.

ANT.

*Jaunak zeruko ateak zabaldu zituan;
mana-euria egin zien gañera.*

ANTIFONA 4

Jaungoikoa da aien arkaitz; Goi-goikoa erosle.

-77- IV

32. Ala ere, berriro pekatu egin zuten
eta etzituzten Aren mirariak aintzat artu;
33. orduan aizealdi batean bukatu zituan aien egunak,
une batean aien urteak;
34. eta il-zorian zeuzkanean, Aren billa asten ziran,
eta Jaungoikoarengana biurtzeko goiztar ibilli;
35. gogoratzen ziran Jaungoikoa beren arkaitz zala,
Goi-goiko Jaungoikoa, beren erosle.
36. Agoz losintxaka asten zitzaizkion,
baño, aien mingañak gezurra zioten;
37. aien biotza etzan egiti Arekin,
etziran zintzoak ere Aren alkartearekin.
38. Ark, berriz, errukia zien,
errua barkatu egiten zien eta etzitan ondatzen;
atzeratu egiten zuan bein-da-berriz bere asarrea,
eta etzuan bere sumiñ guztia piztutzen;

39. aragizkoak zirala gogoraturik,
biurtzen ez dan arnas igeskorra.

ANT.

Jaungoikoa da aien arkaitz; Goi-goikoa erosle.

ANTIFONA 5

Jaunak atera egin zituan menpetasunetik.

- 77 - V

40. Bai lepagogorrek izan zirala basamortuan,
bakartean Jaungoikoari gogait eragiñaz!
41. Berriro ere Jaungoikoa zirikatu egiten zuten,
Israel'ko Santua sumindu!
42. menpetasunetik atera zituan eskua
gogoratu gabetanik;
43. Ejito'n mirariak egin zituanean,
Soan'go zelaian arrigarriak;
44. urbideak odol biurtu zituanean,
eta errekek, edan etzezaten;
45. eztenak satrzeko liztorrak bialdu zizkionean,
eta igelak, zigortzeko,
46. aien uztak larrapotari eman zizkionean,
eta aien izerdien saria saltaperikoai;
47. aien mastiak arri-jasaz zapaldu zituanean,
eta aien pikondoak izotzez;
48. aien abereak arriari eman zizkionean,
eta aien artaldeak tximistari;

49. aien kontra bere asarrearen sua bota zuanean,
bere sumiña, bere amorrua, bere ezifieramanean;
50. eta mandatari biurriak bialdurik,
bere asarrea askatu zuanean;

etzituan eriotzatic atera,
aien biziak izurripean utzi zituan;

51. Ejito'n len-semek zauritu zituanean,
Kam'en txaboletan aien len-sortuak.
52. Artaldea bezela atera zuan bere erria,
abere-sail bat bezela eraman zituan basamortuan barrena;
53. lasai eraman zituan, iñolako kezka biderik gabe,
aien etsaiak itxasoak murgiltzen zituala;
54. muga santuetatik sar-erazi zituan,
bere eskuiak erosi zuan mendiraño;
55. aien aurretik baztatu zituan atzerriak,
beren lur-salla zotz-egiñaz eman zien;
oial-txaboletan jarri zituan Israel'go jatorriak.

ANT.

Jaunak atera egin zituan menpetasunetik.

ANTIFONA 6

Jaungoikoak lurrean egin zuan bere jauretzea.

- 77 - VI

56. Aiek, ordea, zirikatu egin zuten Jaungoiko Goi-goikoa,
eta Aren kontra altxa, bere aginduak gorde nai-ezik,
57. beren gurasoak bezela iges egin zuten eta saldukeri,
uztai okerrak bezela uts egin zuten;

58. asarrerazi egin zuten beren mendixkakin,
espak sortarazi beren sasi-jainkoakin.
59. Jaungoikoak entzun eta sumindu egin zan,
eta Israel erabat utzi zuan;
60. utzi egin zuan Silo'ko bere bizilekua
gizonakin bizi zan oial-txabola;
61. aien kementsuak morrontzan utzi zituan,
aien arrokeria, etsaien eskuetan;
62. bere erria ezpatari eman zion,
bere sallaren kontra asarretu-ta;
63. gazteak suak kixkaltzen zituan,
eta andregaiak etzuten abestirik;
64. apaizak ezpataz iltzen zituzten,
eta aien alargunak etzien egiten negarrik.
65. Baño, Jauna esnatu zan amets batetik bezela,
ardoak menperatutako gudari bat bezela;
66. zauritu zuan etsaia atzetik,
luzarorako ondamendia emanaz;
67. zapuztu zituan Jose'ren oial-txabolak,
etzuan aukeratu Efrain'en jatorria;
68. Juda'ren jatorria aukeratu zuan,
eta Sion mendia, bere kutuna.
69. Zerua bezela bere jauretzea egin zuan;
lurra bezela oñarritu zuan betiko.
70. Dabid bere morroia aukeratu zuan,
artaldetegitik atera;
71. ardien ondoren ibiltzetik
Jakob, bere erriaren artzai izatera eraman zuan,
Israel, bere sallaren artzai.

72. Biotz zintzoz larratu zituan,
csku trebez eraman.

ANT.

Jaungoikoak lurrean egin zuan bere jauretzea.

ANTIFONA 7

*Lagun zakizkigu, Jaungoiko gure salbatzalle,
ta barka izkiguzu gure pekatuak.*

- 78 -

1. Nere Jaungoiko! Atzerritarrak zure sallean sartu dira,
zure jauretze santua kutsatu dute,
lur-jota utzi dute Jerusalem;
2. Zure morroien gorputzak
zeruko egaztiai bota dizkiete janari,
eta zure zintzoen aragia lureko piztiai.
3. Ura bezela ixuri zuten aien odola
Jerusalem-inguruan,
eta iñork etzion lur-emanen.
4. Gure auzoen ixeka izan giñan,
gure inguruko en parragarri ta jostallu.
5. Noiz arte, Jauna?
Beti asarre egon bear al dezu?
Suak bezela garra atera bear al du zure asarreak?
6. Ixuri ezazu zure asarrea ezagutzen etzaituzten errietara,
zure izenari dei egiten ez dioten erregeetara;

7. Jakob jan bait-dute,
aren etxeak txautu dituzte.
8. Ez gogoratu gure kaltez
gure gurasoen erruak;
datorkigula laxter zure errukia,
kemenik gabe gaude-ta.
9. Lagun iguzu, Jaungoiko gure Salbatzalle,
zure izenaren aintzagatik.
Askatu gaitzazu ta barka gure pekatuak,
zure izenarengatik.
10. Zergatik esan bear dute atzerritarrak:
«Nun dago oien Jaungoikoa?»
Ikus bezate atzerritarrak gure aurrean,
zure morroiak ixuritako odolaren zigorra.
11. Iritxi bedi zure aurrera menpetuen antsia;
zure beso indartsuaz, askatu eriotzara galdutakoak;
12. eta zure auzokoai emaezu, Jauna, zazpi alako
egin dizuten beltzkeriaren ordaña.
13. Bitartean, guk, zure erri,
zure artaldeko ardi geranok,
eskerrak emango dizkitzugu beti,
zure gorespenak otsegingo ditugu gizaldiz-gizaldi.

ANT.

*Lagun zakizkigu, Jaungoiko gure salbatzalle,
ta barka izkiguzu gure pekatuak.*

ANTIFONA 8

*Ni naiz zure Jaungoiko Jauna, Ejitoko lurraldetik
atera zindudana.*

- 80 -

2. Gora ezazute ojuka Jaungoikoa, gure indarra.
egin irrintzi Jakob'en Jaungoikoari;
3. lagundu, jo atabalak,
zitara gozoak eta arpak;
4. jo turuta ilberrian,
ilbetean, gure jai nagusian;
5. ori lege bat bait-da Israelentzat,
Jakob'en Jaungoikoaren agindua,
6. Jose'rentzat ipiñitako erabakia,
Ejito'tik irtetean.
- 6.-b Izkuntza ezezagun bat entzuten det.
7. Kendu nituan zamatik bere bizkarrak,
eta bere eskuak utzi zuten otarra.
8. Samiñaldian deadar egin zenduan eta atera zindudan,
trumoi-artean gordeta erantzun nizun,
Meriba'ko iturri-ondoan aztertu zindudan.
9. Entzun, nere erri, zure kontra egiten det aitormen;
entzungo al didazu, Israel!
10. Ez dezu jaungoiko arrotzik izango,
ez dezu gurtuko erbesteko jainkorik;
11. ni naiz zure Jaungoiko Jauna.
Ejito'ko lurraldetik atera zindudana.
«Zabal ezazu agoa, bete dezaizudana».
12. Baño, nere erriak etzuan entzun nere aotsa,
Israel'ek etzuan esanik egin nai izan;
13. Beren biotz gogortuari utzi nizkion,
beren naikerien bidetik ibilli zitezen.
14. Entzungo ba'lida nere erriak,
eta ibilliko ba'litz Israel nere bidetik;

15. une batean zapalduko nituke here etsaiak,
eta nere eskua bere etsaiaen aurka biurtuko nuke.
16. Jauna gorroto dutenak losintxa egingo lizuteke,
eta aien zoria erabakita geldituko litzake;
17. gari-mamia emango nizuke jateko,
basa-eztiz aseko zinduket.

ANT.

*Ni naiz zure Jaungoiko Jauna, Ejitoko lurraldetik
atera zindudana.*

ANTIFONA 9

Jauna, ez egon ixilik; zure etsaiak gallentzen ari dira.

- 82 -

2. Jauna, ez egon ixilik,
mutu ta geldi, nere Jaungoiko;
3. begira: zure etsaiak zalapartan dabilta,
eta gorroto dizutenak gallentzen ari dira;
4. zure erriaren kontra zer egin asmatzen dabilta,
zure aukeratuen kontra alkar artu dute.
5. «Ondatu ditzagun, — diote — erri bezela,
ez bedi geiago aitatu Israel'en izena».
6. Asmo txarrean bat-datoz,
eta zure kontra alkartuta daude:
7. beduitarrak, idumetarrak, ismaeldarrak,
moabitarrak eta agartarrak;
8. Biblos, Amon, Amalek,
filisteotarrak, tirotarrakin;

9. asiritarrak ere alkartu zaizkiete,
eta Lot'en semeai laguntza eman zieten.
10. Artu itzazu Madian bezela, Sisara bezela,
Kison-erreka-ondoan Jabin bezela:
11. txautuak gelditu ziran Endor'en,
eta lurrarentzat simaur biurtu.
12. Aien nagusiak astindu itzazu Belea ta Otsoa bezela,
aien buruzagiak, Zeba ta Salmana bezela,
13. «Artu ditzagun Jaungoikoaren lurraldeak»,
zieten deadarka.
14. Nere Jaungoiko! Biurtu itzazu orbela,
mendebalaren aurrean lasto.
15. Zakarrak piztutzen dituan txinpartak bezela,
mendiak erretzen dituan suak bezela,
16. eraso iezu orrela zure ekaitzarekin,
ikaratu itzazu zure enbatarekin.
17. Gorritu iezu, Jauna, lotsaz aurpegia,
zure izenaren billa dabiltzan;
18. betiko lotsaz heterik,
gal bitez menderaturik;
19. eta aitor bezate, Jauna, zu bakarrik zerala
lur osoan Goi-goiko.

ANT.

Jauna, ez egon ixilik; zure etsaiak gallentzen ari dira.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu... (19 orr.)

GORALTZAK I — AD LAUDES I

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

*Gora ezazute Jaungoiko gure Jauna; auspez zaitetze
Aren mendi santuan.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 98 -

1. Jauna errege da, bildur bitez atzerriak,
kerubiñen gañean eserita dago; ikara bedi lur guztia.
2. Aundia da Jauna Sion'en,
erri guztien gañera goratua
3. Aitor bezate zure izena, aundia ta bildurgarria:
«Santua da Bera».
4. Indarrez agintzen dezu, eta zuzentasuna maite,
zuzenbidea Zuk ipiñi dezu;
zuzentasuna ta eskubidea Zuk erabakitzen dituzu,
Jakob'enean ari zera Zu.
5. Gora ezazute Jaungoiko Jauna,
auspez zaitetze aren jargoi-aurrean;
«Santua da Bera».

6. Moises'ek eta Aaron'ek beren apaizakin,
Samuel'ek Aren izenari dei egiten diotenakin,
Jaungoikoari dei egiten zioten, eta Ark erantzun.
7. Odei-abetik itz egiten zien Jaungoikoak,
entzun zituzten Aren aginduak eta eman zien Legea.
8. Zuk, gure Jaungoiko Jaun orrek erantzun egiten zenien,
Jaungoiko barkatzalle ziñan Zu aientzat,
eta aien gaiztakerien Jaungoiko zigortzalea.
9. Gora ezazute gure Jaungoiko Jauna,
auspez zaitetze Aren mendi santu-aurrean:
«Santua da gure Jaungoiko Jauna!».

ANT.

*Gora ezazute Jaungoiko gure Jauna; auspez zaitetze
Aren mendi santuan.*

ANTIFONA 2

*Atera nazazu, Jauna, nere etsaietatik,
zu bait-zaitut babesleku.*

- 142 -

1. Entzun, Jauna, nere otoitza;
leiala zeran orrek, aditu nere eskabidea;
zuzena zeran orrek, entzun idazu.
2. Etzaiozu deitu auzitara zure morroiari,
gizon bizidunik ez bait-da errugabe zure aurrean.
3. Etsaia ni il-naiean dabil,
nere biziari illobira eragiten dio,
illunpetara baztartzan nau,
aztuta dauden ildakoak bezela.

4. Makaltzen ari zait arnasa,
biotza nere barruan igartuta daukat.
5. Antziñako denborak datozkit gogora,
zure egite guztiak gogoan darabilzkit,
zure esku-lanak ausnartzen ditut
6. eta nere besoak zuregana luzatzen:
zure egarri naiz, lur elkorra bezela.
7. Entzun zaidazu bereala, Jauna,
arnasak utsegiten dit.
Ez idazu ezkutatu zure aurpegia,
zulora jeisten diranai bezela.
8. Goizean entzun-erazi idazu zure grazia,
zukan bait-det usteon.
Erakutsi idazu artu bear dedan bidea,
zuregana jasotzen bait-det nere anima.
9. Askatu nazazu, Jauna, nere etsaiengandik,
zu bait-zaitut babesleku.
10. Erakutsi idazu zure naia egiten,
zu bait-zaitut nere Jaungoiko.
Ona dan zure espirituak
eraman nazala lur berdiñetik.
11. Zure izenagatik, Jauna, bizirik gorde nazazu,
zure graziarengatik apurtu itzazu nere etsaiak,
zure errukiarengatik atera nazazu larrialditik;
ezereztu erasotzen didaten guztiak,
zure morroia naiz-ta.

ANT.

*Atera nazazu, Jauna, nere etsaietatik,
zu bait-zaitut babesleku.*

ANTIFONA 3

*Ona izan zera, Jauna, zure lurrarentzat;
barkatu egin dezu zure erriaren errua.*

- 84 -

2. Ona izan zera, Jauna, zure lurrarentzat,
berriztatu dezu Jakob'en zoria,
3. zure erriaren errua barkatu,
bere pekatu guztiak lurperatu,
4. eutsi egin diozu zure asarreari,
itzali egin dezu zure sumiñaren sua.
5. Leneratu gaitzazu, gure Jaungoiko Salbatzalea,
utzi gure kontra dezun asarrea.
6. Beti asarre egon bear al dezu?
gizaldiz-gizaldi luzatuko ote dezu zure sumiña?
7. Ez al diguzu bizia biurtuko,
zure erria Zurekin poztu dedin?
8. Ager iguzu, Jauna, zure errukia,
eta eman zure osasuna.
9. Jaunak diona entzungo det;
«Bere erriari ta bere adiskideai,
eta biotzez biurtzen diranai
Jaunak pakea adierazten die».
10. Gañean dute Aren zintzoak salbamena,
eta aintza gure lurrean biziko da;
11. errukia ta leialtasuna alkarrekin oi dira,
zuzentasunak eta pakeak musu ematen diote alkarri;

12. leialtasuna lurretik sortzen da,
ta zuzentasunak zerutik begiratzen du.
13. Jaunak bere ondasunak emango dizkigu,
eta lurra bere uzta ekarriko du.
14. Zuzentasuna Aren aurretik ibilliko da,
osasunak Aren oinkadai jarraituko die.

ANT.

*Ona izan zera, Jauna, zure lurrarentzat;
barkatu egin dezuz zure erriaren errua.*

ANTIFONA 4

Jaunarekin garaille aterako da ta goratuko Israel'en jatorria.

Isaias'en bigarren abestia

15. Egia: Jaungoiko ezkutua zera Zu,
Israel'en Jaungoikoa, Salbatzallea.
16. Guztiak batera lotsa gorrian gelditzen dira,
lotsaz beterik dijoaz sasi-jainkoen egilleak;
17. Jaunak, bitartean, onik ateratzen du Israel,
betiko salbamenez,
geroenean, beñere lotsatu ta gorritu ez ditezen.
18. Onela mintzo da Jauna, zeru-egillea,
— Bera da Jaungoiko —
Berak eratu zuan lurra eta egiñ eta gogortu;
etzuan utsik egoteko egin,
baizik bizidunen etxe izan zedin.
«Ni naiz Jauna, ta ez da besterik».

Ez nizun ezkutuan itzegin,
lurralde illunean;
ez nien Jakob'en jatorrikoai esan:
«Ibilli nere billa utsean».

20. Bildu, etorri, ingura zaitetze batera,
atzerrietan bizi zeratenak;
ez dute bururik zurezko jainkoak daramazkitenak,
eta salbatu ezin duan jainkoari
erregutzen diotenak.
21. Mintzo zaitetze; egin itz,
erabaki bezate alkarrekin.
Nork iragarri du au antziñatik?
nork esan zuan aurrez ordutik?
Ez al nintzan ni izan Jauna?
Ez da ni beste Jaungoikorik.
22. Ni naiz Jaungoiko zuzena ta Salbatzallea,
ta ez da besterik.
23. Biurtu zaitetze neregana, salba zaitetzen,
lurreko muga-baztarrak,
ni bait-naiz Jaungoiko ta ez da besterik.
24. Nere izenagatik egiten det ziñ,
erabakia irten zait agotik,
atzera biurtzen ez dan itza.
«Belaun guztiak nere aurrean makurtuko dira,
neregatik egingo dute ziñ mingain guztiak».
25. Auxe esango dute: «Jaunak bakarrik
ditu zuzentasuna ta al-izatea».

- Arengana etorriko dira lotsaturik,
bere kontra sutzen ziranak;
26. Jaunarekin garaille aterako da ta goratuko
Israel'en jatorria.

ANT.

Jaunarekin garaille aterako da ta goratuko Israel'en jatorria.

ANTIFONA 5

Jerusalen, ospa ezazu Jauna!

- 147 -

12. Jerusalem, ospa ezazu Jauna;
Sion, goratu zure Jaungoikoa;
13. Berak gogortu ditu zure ate-morrolloak
eta zure semeak, zure barruan, bedeinkatu;
14. zure mugetan pakea sartu du,
gari-mamiz asetzen zaitu;
15. Albistea bialtzen du lurrera
eta arin dabil aren itza;
16. elurra artillea bezela bialtzen du
gantxiorra autsa bezela zabaltzen;
17. izotza ogi-apurrak bezela jetxiazten du,
eta otzez urak ormatzen ditu;
18. Ark agindu, ta urtu egiten dira,
arnas egin, eta ba-dijoaz.
19. Bere itza agertzen dio Jakob'i,
bere erabakiak eta aginduak Israel'i.

20. Etzion orrelakorik egin beste inongo erriri,
ezta bere agindurik ere jakiñerazi.

ANT.

Jerusalen, ospa ezazu Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Benedictus

ANTIFONA

*Gure Jaungoikoaren erruki samurragatik agertuko zaigu
goitik sortzen dan eguzkia.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



GORALPEN OTOITZAK II - LAUDES II

ANTIFONA 1

Biotz urratu-apala ez dezu gutxietsiko zuk.

- 50 -

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANTIFONA 2

*Zure izenagatik, Jauna, zure biotz samurragatik
bizirik gorde nazazu.*

- 142 -

Entzun, Jauna, nere otoitza... (255 orr.)

ANTIFONA 3

Biurtu iguzu bizia, Jauna, zure erria zurekin poztu dedin.

- 84 -

Ona izan zera, Jauna... (257 orr.)

ANTIFONA 4

Asarrealdian, Jauna, gogora ezazu errukia.

Abakuk'en abestia (Ab. 3)

2. Zure izen ospetsua entzun det, Jauna,
arritu egin nau zure lanak!
Egizu lan ori urteen erdian;
agertu ezazu urteen erdian;
lur-ikaran, gogora ezazu errukia.
3. Teman'dik dator Jaungoikoa,
Faran-menditik Santua;
Aren diztirak zerua estaltzen du
Aren gorapenez beterik dago lurra.
4. Aren diztira eguna bezela da,
eskutik argi-izpiak darizkio, bere almena zaitzeko.
5. Izurria dijoa Aren aurretik,
Sukarra, berriz, atzetik.
6. Gelditzen da ta, lurra dardarka asten da;
Ark begiratu, eta sakabanatu egiten ditu erriak,
Mendi zaarrak ezereztu egiten dira,
muño nagusiak makurtu,
bide nagusiak bere aurrean.
7. Ikaraz bateak ikusten ditut Kusan'go oial-txabolak,
dardarka Madian'go bizitokiak.
8. Ibaien kontra sutzen ote da, Jauna, zure asarrea,
zure sumiña ibaien kontra?
itxasoaren kontra zure asarrea,
zure gurdi ta zaldi-gañean,
gallen esertzen zeranean?
9. Esnatu ta zure uztaiak eskuetan luzatzen dezu,
gezi-ontzia beterik daukazu.
10. Ur-errekaz artazitzen dezu lurra
mendiak bildurtu egiten dira Zu ikustean,

ugoldeak sortzen dira,
itxasoa orruka asi,
goruntz jasotzen ditu bere besoak.

11. Eguzki-illargiak etxean gelditzen dira,
zure geziak darien argitan,
zure aztamakillaren tximist-dizdoretan.

12. Asarre bizitan zabilta lurrean,
sumiñez zapaltzen dituzu atzerriak.

-3. Zure erria salbatzera ateratzen zera,
zure Igurtzia salbatzera;

14. gaiztoen buruzagia txautu egiten dezu,
goitik beraño larrutu.

Beren geziakin zulatzen diezu burua alderik-alde
ni galtzeko datozen gudariak,
laguntzarik gabeari ostutzera
ixilka bezin pozik datozenai.

15. Zure zaldiakin zapaltzen dezu itxasoa,
bere urak zakartuaz.

16. Entzun nuan eta nere erraiak dardarka asi ziran,
entzutean, nere ezpañak ikara egin zuten,
otz-ikara sartu zitzaidan ezurretaraño,
ibiltzen, balantza egiten zidaten oñak;
mendean gauzkan erriari datorkion
egun gorriaren aurrean negarrez nago.

17. Pikondoak begirik ermetzen ez ba'du,
eta maastiak alerik ez ba'dauka ere,
olio-ondoari arana aztutzen ba'zaio,
ta lurrak uztarik ez ba'dakarte,
artaldea ardirik gabe gelditzen ba'da,
ta ukulluak beirik gabe;

18. ni Jaunarekin poztuko naiz,
nere Salbatzalle Jaungoikoagan gallendu.

19. Nere indarra Jaungoiko Jauna da;
Ark ematen dizkit basautzaren oñak,
eta mendi-gañetan ibilliazten nau.

ANT.

Asarrealdian, Jauna, gogora ezazu errukia.

ANTIFONA 5

*Sion, gora ezazu zure Jaungoikoa; Berak ematen dizkio
aginduak Israel'i.*

- 147 -

Jerusalen, ospa ezazu Jauna... (260 orr.)

Benedictus

ANTIFONA

*Gure Jaungoikoaren erruki samurragatik agertuko zaigu
goitik sortzen dan eguzkia.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)

GOIZALDEKO OTOITZA - AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Ez urruti gelditu, Jauna, arrixkua gañean bait-da
ta ez det laguntzarik.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 21 -

2. Nere Jaungoiko! Nere Jaungoiko! zergatik utzi nauzu?
deadar egin-da ere, nere otoitzik ez da zuregana irixten.
3. Nere Jaungoiko! ni zuri deika egunez, eta zuk erantzun ez;
gauaz, eta zuk ez aintzat artu;
4. Zu jauretxean bizi ba-zera ere,
Israel'en itxaropen ori!
5. Gure gurasoak Zuregan izan zuten usteon,
Zuregan izan zuten usteon, eta Zuk salbatu egin zenituan;
6. Zuri egiten zizuten dei, eta onez ateratzen ziran;
Zuregan izan zuten usteon, eta etzenien utseman.
7. Ni, ordea, ar bat nintzan; gizona ez;
gizonen lotsagarri, erriaren nazkagarri;

8. ni ikusi, ta parra egin didate,
buruari eragin, eta kiñuka ari;
9. «Jaungoikoari dei egin dio; salba dezala!
onez atera dezala, ain maite ba'du».
10. Zuk atera ninduzun sabeletik;
nere amaren bularrean lasai Zuk nendukazun;
11. zure esku nago jaiotzatik,
Zu zaitut nere Jaungoiko, amaren sabeletik,
12. Ez urruti gelditu neregandik, arrixkua gañean bait-da;
eta ez det laguntzallerik.

- 21 - II

13. Ainbat idizkok erasotzen didate,
Basan'go zezenak inguraturik naukate;
14. ao-zabalik datozkit
zatitu ta orru egiten duten leoiak.
15. Isuri dan ura bezela nago,
nere ezurrak askaturik dauzkat,
biotza, argizaria bezela,
urtu egiten zait erraieran.
16. Eztarria tella bat bezin legor daukat
eta mingaña ago-sapaian itsatsita;
eriotz-autsetan naukazu estuturik.
17. Zakur-pilla batek erasotzen dit,
gaizto-talde batek nauka inguraturik;
18. esku-ofiak zulatu egin dizkidate
ta nere ezurrak zenbatu nitzake.
19. Gallendurik, begira dauzkat,
nere jantziak banatu dituzte,
nere soin-gañekoa zotz-egin dute.

20. Baño, Zu, Jaungoiko, etzaitetz urruti egon;
zatoz azkar neri laguntzera, nere indar ori!
21. gorde nazazu ezpatatik,
artzai-zakurraren ortzetatik nere bizi bakarra.
22. Salba nazazu leoiaren aotik,
ni gaxo au basa-iden adarretatik.

- 21 - III

23. Esango diet zure omena nere anaiai,
goratuko zaitut batzar-erdian!
24. Jaunaren zintzoak, gora ezazute,
Jakob'en jatorria, ospa ezazute,
Israel'en ondorengoak, bildur zakizkiote.
25. Ez bait-du izan ez iguiñik, ez nazkarik,
gaxo errukarriaren aurrean;
ez dio ezkutatu aurpegirik;
entzun egin zion laguntza eskatu zuanean.
26. Bera da nere gorespina batzar aundian;
beteko ditut nere ziñ-eskeintzak bere zintzoen aurrean.
27. Beartsuak, bete arte, jango dute;
Jaungoikoaren billa dabiltzanak goratu egingo dute;
bizi bedi beti aien biotza!
28. Ori gogoratu, ta Jaunarengana biurtuko dira,
hurraren mugetatik ere;
aurrean makurtuko zaizkio
errietako sendiak.
29. Jaunarena bait-da erregetza;
Ark agintzen du errietan.
30. Aren aurrean makurtuko dira illobiko autsak,
Aren aurrean auzpeztu autsetara dijoazenak.


31. Beretzat bizi-eraziko nau;
nere jatorriak Ari serbituko dio;
Jaunaz itzegingo diote etortzen dan gizaldiari;
32. Aren zuzentasuna jakin-eraziko diote
jaiotzeko dan erriari;
Jaunak egindako gutzia.

ANT.

*Ez urruti gelditu, Jauna, arrixkua gañean bait-da
ta ez det laguntzarik.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEDERATZIETAKO OTOITZA — AD TERTIAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Esnarazi ezazu zure indarra, Jauna, eta zatoz gu salbatzera.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 79 -

2. Entzun, Israel'en artzai,
Jose, artalde bat bezela darabilzun orrek;
3. kerubiñen gañean exertzen zeran orrek,
ager zaitetz Efrain'en, Benjamin'en eta Manase'ren aurrean.
4. esnarazi zazu zure indarra ta zatoz gu salbatzera;
«Leneratu gaitzazu, Jaungoiko,
argi beza zure aurpegiak eta salba gaitzala».
5. Gudaritaldeen Jaungoiko Jauna,
noiz arte egongo zera asarre,
zure erria eske daukazula?
6. Negarra eman zenien janari,
negar-malkoak zurrutaka edari;

- 79 - II

7. gure auzokoen aotan utzi ginduzun,
gure etsaiak parra egiten digute.
8. Gudaritaldeen Jaungoiko, lenera gaitzazu,
argi beza zure aurpegiak eta salba gaitzala.
9. Ejitotik matsondo bat atera zenduan,
atzeritarrak bota-ta, zearraldatu;
10. lurra gertutu zenion, eta itxatsi zan,
lurraldea betetzeraño;
11. bere itzalak mendiak estaltzen zituan,
eta aren mats-aienak, zedrорik aundienak;
12. bere adarrak itxasoraño luzatu zituan,
eta bere muskillak Ibai Aundiraño.
13. Zergatik irauli diozu esia;
andik dijoazenak lapurtu dezaten;
14. basurdeak zapaldu,
eta piztiak jan?
15. Gudaritaldeen Jaungoiko, biurtu zaitetz;
begira zerutik, ikus ondo,
zatoz zure maastia aztertzeraz;
16. nere eskuiak aldatu zuan maatsondoa,
eta zuk marduldu zenduana.
17. Ebaki ta su eman diote;
ondatu itzazu orru batez.
18. Zure eskuiak gorde dezala zure aukeratua,
Zuk indartu zenduan gizona.
19. Ez gera zuregandik urrutiratuko;
emaiguzu bizia, zure izenari dei egin dezaiogun.

20. Gudaritaldeen Jaungoiko Jauna, leneratu gaitzazu,
argi beza zure aurpegiak eta salba gaitzala.

- 81 -

1. Jaungoikoa zutitu da zeruko batzarrean,
aingeruz inguratua auzitan ari da;
2. «Noiz arte emango dezute epai okerra,
errudunaren alde atera-ta?
3. Lagun ezaiozute laguntza-gabeari ta zurtzari,
egiozute zuzenbide beartsuari ta apalari,
4. egin txiroaren eta eskekoaren alde,
errudunaren eskuetatik askaturik».
5. Aiek, ezjakiñ eta burugabeak, illunpetan dabilta,
lurbiraren oñarriak koloka egiten duten bitartean.
6. Ona nik esan: «Zuek jainkoak izanarren,
eta guztiok Goi-goikoaren seme,
beste edozein bezela eroriko zerate».
8. Altxa zaitetz, Jaungoiko, eta epaitu ezazu lurra,
Zu bait-zera erri guztien jabea.

ANT.

Esnarazi ezazu zure indarra, Jauna, eta zatoz gu salbatzera.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

AMABIETAKO OTOITZA — AD SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Bai zoriontsuak, Jauna, zure etxean bizi diranak!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 83 -

2. Bai dirala maitagarriak zure bizitokiak,
Gudaritaldeen Jauna!
3. Anima naigabeturik daukat,
eta Jaunaren aterpeak irrikatzen ditu,
nere biotza ta aragia
poz-jauzika dabiltz Jaungoiko biziarengatik.
4. Ormatxoriak ere arkitu du etxea,
enarak, kabia umeak jartzeko;
zure aldareak, Gudaritaldeen Jauna,
nere erregea ta nere Jaungoikoa.
5. Zoriontsuak zure etxean bizi diranak,
beti zu goratzen;
6. Zoriontsuak, bere ibillaldia gertutzean,
indarra Zuregan aurkitzen dutenak;
7. ibar elkorrak igarotzean,
baratz eze biurtzen dituzte,
lenengo euriak onespenez bete ba'litu bezela;

8. gazteluz-gaztelu dijoaz,
Jaungoikoa Sion'en ikusi arte.

- 83 - II

9. Gudaritaldeen Jauna, entzun nere eskabidea,
aditu zaidazu, Jakob'en Jaungoiko.
10. Begira, Jauna, gure Armariari,
begira, Jaungoiko, zure Igurtziaren aurpegiari.
11. Nere etxean milla egun baño,
zure aterpetan bat obe da,
eta gaiztoakin bizi baño,
naiago det Jaungoikoaren etxeko ataria.
12. Jauna eguzkia bait-da ta babeskiña,
Berak ematen dizkigu grazia ta aintza.
Jaunak ez die bere ondasunik ukatzen
errugabe diranai.
13. Gudaritaldeen Jauna, bai zorionekoa,
Zuregan usteon duan gizona!

- 86 -

2. Berak oñarritu du mendi santuan,
eta Jaunak naiago ditu Sion'go ateak
Jakob'en bizitoki guztiak baño.
3. Bai albiste ospetsua zuretzat,
Jaungoikoaren erri!
4. Nere zintzoen artean
artuko ditut Ejito ta Babiloni,
an jaio dira
filisteotarrak, tiritarrak eta etiopitarrak».

5. Sion'entzat esango da: «Banaka-banaka
an jaio dira guztiak:
Goi-goikoak ber-berak irazan du».
6. «Au an jaioa da» idatziko du Jaunak
errien izendegian.
7. Eta dantzan egiñaz kantatuko dute:
«Nere iturri guztiak zuregan daude».

ANT.

Bai zoriontsuak, Jauna, zure etxean bizi diranak!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



IRURETAKO OTOITZA - AD. NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Errukia ta zuzentasuna dijoazkitzu aurretik, Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 88 -

2. Jaunaren errukiak kantatuko ditut beti-beti zure leialtasuna otsegingo det gizaldiz-gizaldi.
3. Ala esan bait-nuan: «Zure errukia betiko etxea da; zerua baño geiago sendotu dezu zure leialtasuna».
4. Nere aukeratuarekin elkartasuna ziñatu nuan, Dabid, nere morroiarekin ziñ au egiñaz:
5. «Betiko jatorri bat sortuko dizut, gizaldi guztietarako jasoko det zure aulkia».
6. Zeruak zure mirariak otsegiten ditu, Jauna, eta zure leialtasuna, aingeruen batzarrean.
7. Nor da odei-gañean Jaungoikoaren antzekorik? Nor jaungoiko-izakietan, Jauna bezelakorik?
8. Bildurgarri da Jaungoikoa aingeruen batzarrean, aundi ta bildurgarri bere talde guztiaerentzat.

9. Gudaritaldeen Jauna, nor zu bezelakorik? indarrak ta leialtasunak zaukate inguratirik.
 10. Zuk eskuratzen dezu itxasoaren arrokeria, eta baretzen bere olatutzak;
 11. Zuk zulatu ta zatitu zenduan Raab, zure beso indartsuak ondatu zuan etsaia;
 12. Zurea dezu zerua, zurea lurra, Zuk oñarritu zenduan lurbira ta bertan dagon guztia;
 13. Zuk egin dituzu Iparraldea ta Egoaldea, Tabor'ek eta Ermon'ek zure izena otsegiten dute.
 14. Beso altua dezu: indartsua da zure ezkerria ta zure eskuia gallena.
 15. Zuzenbideak eta eskubideak eusten diote zure jargoiari. Errukia ta Leialtasuna aurretik dijoazkitzu.
 16. Bai zoriotsua Zu goratzen dakin erria: Jauna, zure aurpegiaren argitan ibilliko da;
 17. zure izena du egunero pozbide, zure aunditasuna bere arrobide;
 18. Zu bait-zera aren ospea ta indarra, eta zure laguntzaz, aunditzen dezu gure almena.
 19. Jauna bait-da gure babeskiña, eta Israel'go Santua gure Erregea.
- 88 - II
20. Bein ikuskizunez itzegin zenien zure adiskideai: «Kementsu bati koroia ipiñi diot, gudari bat jaso det erriaren gaiñ».
 21. Arkitu nuan Dabid nere morroia, eta olio santuz igurtzi det;

22. nere eskua beti arekin egon dedin,
eta nere besoak bulartsu egin dezan;
23. etsaiak ez du atzipetuko,
gaiztoak ere ez apalaraziko;
24. bere aurrean aren etsaiak ezereztu egingo ditut,
eta ari gorroto diotenak zauritu.
25. Nere leialtasuna ta errukia lagun izango ditu,
nere izenak aundi egingo du aren almena;
26. aren ezkerria itxasoraño luzatuko det,
eta aren eskuia Ibai Aundiraño.
27. «Zu zera nere Aita», dei egingo dit,
«nere Jaungoikoa, nere Arkaitz salbatzallea»;
28. eta nik lenseme izendatu det,
lurrean erregeen artean goren.
29. Beti emango diot nere laguntza,
eta iraunkorra izango da arekin nere elkartasuna;
30. Betiko jatorria emango dioi,
eta jargoia zerua bezin iraupenduna.
31. Aren semeak nere legea uzten ba'dute,
eta nere aginduai jarraitzen ez ba'diete,
32. nere esanak gaitzetsen ba'dituzte,
eta nere aginduak gorde ez,
33. makillaz zigortuko ditut aien pekatuak
eta zartailluz aien erruak;
34. baño, ez diet nere laguntzarik kenduko,
ez nere leialtasunik ukatuko,
35. ez det nere alkartasunik autsiko,
ez nere agintzaririk aldatuko.
36. Bein, ziñ egin nuan nere santutasunarengatik,
nere itzari ez utsegitea Dabid'ekin:

37. «Aren jatorria betikoa izango da
eta aren jargoia eguzkia bezela nere aurrean,
 38. beti irauten duan illargia bezela:
aren jargoia, zerua baño sendoago izango da».
- 88 - III
39. Baño, Zuk, zure Igurtziarekin asarretu-ta,
ezetsi egin dezu ta baztartu;
 40. zure morroiarekin alkartasuna autsi egin dezu
eta aren koroia lureraño narratzu;
 41. irauli egin dituzu aren arresiak,
eta aren gazteluak lurreratu;
 42. Andik dijoan guztiak arrapakatu egiten dute,
eta auzokoen parragarri da;
 43. zure etsaien besoa gogortu egin dezu
eta aren arerioai garaipena eman diezu;
 44. ari, berriz, kamuztu egin diozu ezpata,
eta borrokaldian ez dezu indartu;
 45. aren errege-makill aintzatsua, autsi egin dezu,
eta jargoia lurraratu;
 46. aren gaztetako egunak moztu egin dituzu,
eta bera lotsakizunez bete.
 47. Noiz arte egongo zera, Jauna, ezkutuan,
eta zure asarrea, sua bezela, gar bizitan?
 48. Gogora ezazu, Jauna, nere bizia zein laburra dan
eta gizona zein suntsikor egin dezun.
 49. Nor biziko da eriotzik ikusi gabe?
Nork gordeko du bizia Leizeko atzapparretik?
 50. Non da, Jauna, zure leialtasunagatik,
Dabid'i ziñ egin zenion antziñako zure errukia?

51. Gogora ezazu, Jauna, zure morroien lotsakizuna:
atzerriengandik burutu bear ditudanak;
zure etsaiak nola itxusitzen dituzten, Jauna,
nola itxusitzen dituzten zure Igurtziaren oinkadak.


Bedeinkatua Jauna, beti. Amen, amen.

ANT.

Errukia ta zuzentasuna dijoazkitzu aurretik, Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Zuk aztertzen nauzu, Jauna, ta ezagutzen.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

— 138 —

1. Zuk aztertzen nauzu, Jauna, ta ezagutzen,
2. ezagutzen nauzu esertzen eta zutitzen naizenean,
urrutitik dakizkizu nere burutapenak;
3. bereizten dituzu nere bidea ta nere atsedena,
nere bidexka guztiak oso ezagunak zaizkitzu;
4. Nere itza mingañera ez da iritxi
ta, Jauna, ba-dakizu Zuk guztia.
5. Atze ta aurre, estutzen nauzu,
esku zabalaz estaltzen;
6. nere gaiñetik dago ainbeste jakitea;
gaiñ-gaiñekoa da ta ni ezin jabetu.

7. Nora joango naiz zure arnasetik urruti?
8. Zerura igotzen ba'naiz an zaude Zu;
nora iges egin zure aurpegitik?
leize-ondoan etzaten ba'naiz, an arkitzen zaitut;
9. egunsentiaren mugetara egan egiten ba'det,
itxas-mugetaraño joaten ba'naiz,
10. an artuko nau zure ezkerak,
an elduko dit zure eskuiak.
11. «Illunak, bederen, estali nazala ba'diot
nere inguruan, argia gau biur dedilla»,
12. illunpea ere ez da illun zuretzat,
eta gaua eguna bezin argia.

ANT.

Zuk aztertzen nauzu, Jauna, ta ezagutzen.

- 138 -

ANTIFONA 2

*Ikusgarriak dira zure lanak; anima-barrua ere
ezagutu egiten dezu.*

- 138 - II

13. Zuk egiñak ditut erraiak,
Zuk eratu nauzu ama-sabelean.
14. Eskerrak ematen dizkitzut,
miragarriro aukeratu bait-nauzu
arrigarriak bait-dira zure egiteak.
15. Nere anima-barrua ere ezaguna zitzaizun,
nere ezurak etzitzazkitzun illun.

- Ixilpean mamitzen ari nintzanean,
eta lur-barruan eratzen.
16. Zure begiak ikusten zituzten nere egintzak,
guztiak idazten ziran zure liburuan;
zenbatuta zeuden nere egunak,
lenengoa iritxi baño len.
 17. Zure asmoak bai dirala berdingabeak neretzat,
ene Jaungoiko, bai dala aundia aien sorta!
 18. Zenbatzen asten ba'naiz, ondarra baño geiago dira,
amaitu ditudalakoa ba'nago,
Zu an zaude oraindik.
 19. Ene Jaungoiko! gaiztoa ilko ba'zenu,
iltzalleak neregandik alde egingo ba'lute!
 20. Zutzaz lotsagabe mintzo
eta zure kontra alperrik altxatzen diranak!
 21. Ez ote ditut gorrotatuko Zuri gorroto dizutenak?
ez ote diet nazkarik izango, zure kontra altxatzen diranai?
 22. Gorroto ditut zorrozki, gorroto,
etsaitzat dauzkat.
 23. Jauna, aztertu nazazu, ta ezagutu nere biotza,
zirika nazazu ta ezagutu nere asmoak;
 24. Ikus nere bidea okerra dan;
betikotasun-bidetik ni eraman.

ANT.

*Ikusgarriak dira zure lanak; anima-barrua ere
ezagutu egiten dezu.*

ANTIFONA 3

Ez nazazu erabat utzi, Jauna, nere Salbatzalle indartsua!

- 139 -

2. Jauna, libra nazazu gaiztoagandik,
gorde nazazu gizon zakarragandik;
3. asi bait-dira biotzean gaiztakeriak asmatzen,
eta egun osoan borrokak sortzen;
4. mingaṅak subeak bezela zorrozten dituzte,
ezpañetan sube-pozoiarekin.
5. Zaitu nazazu, Jauna, esku gaiztotik,
gorde gizon zakarregandik;
bidean oztopak ipintzen dizkidatenengandik.
6. Arroak lokarriak ezkututzen dizkidate bide-bazarretan,
gaiztoak sareak zabaldu,
eta lakioak ipiñi bidean.
7. Nik, berriz, ala diotsat Jaunari: «Zu zera nere Jaungoiko!»
Entzun, Jauna, nere deadarrak laguntza-eske;
8. borroka-egunean burua estaltzen didazun,
Jaungoiko Jauna, nere Salbatzalle indartsua.
9. Ez bete, Jauna, gaizkilleai bere gogoak,
ez eman azken onik aien asmoai;
10. ez bezate bururik jaso ni inguratzen nautenak,
estali ditzala beren ezpañetako saldukeriak.
11. Illinti-auriak arrapa ditzala,
zuloetan erori, ta ezin ditezela zutitu.
12. Mingain-gaiztoa ez dedilla lurrean gelditu,
zakarra zoritxarrak arrapa dezala.
13. Ba-dakit nik Jaunak mindunari zuzentasuna egiten diola,
beartsuaren eskubidea zaitzen duala.

14. Zintzoak goratuko dute zure izena,
zuzenak zure aurrean bizi izango dira.

ANT.

Ez nazazu erabat utzi, Jauna, nere Salbatzalle indartsua!

ANTIFONA 4

Deika nagokizu, Jauna, entzun nere aotsa.

- 140 -

1. Deika nagokizu, Jauna, zatozkit azkar,
entzun nere aotsa, deitzen dizudanean.
2. Igo bedi nere otoitza, intzentsua bezela, zure aurrean,
nere esku-jasotzea, arratsaldeko eskeintza bezela.
3. Ipiñi zaiozu, Jauna, atezaia nere agoari,
zaitzalle bat nere españetako atean;
4. ez utzi nere biotzari txarkerira makur dedin,
gaiztakeriak eta okerrak egiteko;
ezta ere gizon gaiztoakin
bazkaririk egin dezan.
5. Astindu nazala zintzoak, zentzatu onak;
baño, gaiztoaren gantzuak
ez dezala usaigozotu nere burua;
nik otoitzean jarraituko det aien zoritxarretan.
6. Aien buruzagiak arkaitzetik amildu ziran,
nere itz gozoak entzunarren;
7. errotarri autsa, lurrean bezela,
zabalduta daude gure ezurrak, illobiko ate-aurrean,
8. Zuregana jasoak dauzkat, Jauna, nere begiak,
Zuregan babesten naiz, ez nazazu utzi laguntza-gabe;

9. zaitu nazazu ipiñi didaten saretik,
gaizkilleen lakiotik.
10. Eror bitez gaiztoak beren sareetan,
nik lasai iges egiten dedan bitartean.

" ANT.

Deika nagokizu, Jauna, entzun nere aotsa.

ANTIFONA 5

Pazko-aldian ezik:

*Atera nazazu giltzapetik, Jauna, ta eskerrak
emango dizkiot zure izenari.*

- 141 -

2. Deadarka ari naiz Jaunari deika,
deadarka Jaunari eskean;
3. Aren aurrean esaten ditut nere kezak,
Aren aurrean agertzen nere samiña,
arnasa gutxitzen ari zaidan bitartean;
4. Baño, Zuk ba-dakizkizu nere bideak,
eta ni nabillen bidean, sarea ipiñi didatela.
5. Begira ezazu eskuira, ikus;
ez dit inork kasorik egiten;
ez daukat igeslekurik;
iñor ez nere biziaren alde.
6. Zuri egiten dizut deadar, Jauna,
eta esaten: «Zu zera nere babesleku
ta nere salla, biziaren lurraldean».

7. Entzun itzazu nere deadarrak,
ler eginda nago;
libra nazazu nere erasotzalleengandik,
ni baño indartsuagoak dira;
8. Atera nazazu giltzapetik,
eta eskerrak emango dizkiot zure izenari;
zintzoak inguratuko naute,
zure laguntza biurtzen didazunean.

ANT.

*Atera nazazu giltzapetik, Jauna, ta eskerrak
emango dizkiot zure izenari.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Magnificat

ANTIFONA

Jaunak altsuak bota egiten ditu aulkitik eta apalak jaso.

Nere animak Jaunaren aunditasuna gorensten du... (55 orr.)



ARRATSEKO OTOITZA — AD COMPLETORIUM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Jaungoikoarengana jasotzen det nere deadarra:
Jaungoikoari etzaio aztutzen bere onginaia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 76 -

2. Jaungoikoarengana jasotzen det nere deadarra
Jaungoikoarengana jasotzen det deadarra entzun dezaidan.
3. Nere Jauna, zure billa nabil larrialdian,
gauaz asper gabe luzatzen ditut eskuak,
eta nere animak ez du nai pozbiderik.
4. Jaungoikoa gogoratzean, intziri egiten det,
eta oldoztutzean, indarra galdu.
5. Nere betazalai eutsi egiten diezu,
eta dardaraz ezin det itzik egin.
6. Antziñako egunak dakarzkiz gogora,
lengo urteak aztertzen ditut;
7. gauaz gogoratu egiten det nere buruan,
eta zutzaz oarturik, nere buruari galdetu:
8. — Jaunak betiko zapuzten ote gaitu,
ta ez ote digu geiago lagunduko?

9. agortu ote zaio errukia,
ta amaitu ote da betiko bere agintzaria?
10. Aztu egin ote zaio Jaungoikoari bere onginaia,
edo-ta asarreak itxi ote dizkio erraiak?
11. Eta ala diot nerekiko: «Au nere atsekabea;
aldatu egin da Goi-goikoaren eskuia!»
12. Gogoan ditut Jaunak egin dituan gauza aundiak,
bai, gogoan ditut zure antziñako mirariak,
13. gogoratzen ditut zure egiteak,
eta buruan darabilzkit zure egintza bikañak.

- 76 - II

14. Santuak dira, nere Jaungoiko, zure bideak;
zein jainko da gure Jaungoikoa bezin aundi?
15. Zuk, Jaungoiko, mirariak egiñaz,
erakutsi zenien atzerriai zure almena;
16. zure besoz askatu zenduan zure erria,
Jakob'en eta Jose'ren semeak.
17. Itxasoak ikusi zinduan, Jaungoiko,
itxasoak ikusi ta dar-dar egin zuan,
olatuak ikara.
18. Odeiak beren urak ixuri zituzten,
lañoak orrua zerioten,
zure geziak biurrika zebiltzan;
19. Zure trumoi-otsa inguruka zebillen,
tximistak itxuturik uzten zuten lurra,
lurbirak dar-dar egiten zuan bildurtuta;
20. Uretan barrena egin zenduan zure bidea,
uraundietan zure bide-zidorra,
eta etzan zure urratsen aztarrenik gelditzen;

21. zure erria, artaldea bezela,
Moisee'en eta Aaron'en eskuz zeneraman bitartean.

- 85 -

1. Makur ezazu, Jauna, zure belarria; entzun idazu,
beartsu, laguntza-gabea naiz-ta;
2. zaitu zaidazu bizia, zure zintzo bat naiz;
salba zazu Zuregan usteon morroia;
3. Zu zera nere Jaungoiko; erruki zakizkit, Jauna,
Zuri deika ari bait-naiz egun osoan;
4. poztu zazu zure morroiaren anima,
Zuregana jasotzen bait-det nere anima;
5. izan ere, Zu, ona ta biotz-biguna zera,
deitzen dizunarentzat errukian aberats.
6. Entzun, Jauna, nere otoitza,
aditu nere eskabidearen deia;
7. Arrixku-egunean deika nagokizu,
ta Zuk entzun egiten didazu.
8. Zure antzekorik ez da, Jauna, jainkoen artean,
ezta zureak bezelako egintzarik ere.
9. Erri guztiak etorriko dira,
Jauna, zure aurrean auspeztera,
eta zure izena goratuko dute.
10. «Aundia zera Zu, ta mirariak egiten dituzu;
Zu zera Jaungoiko bakarra».
11. Erakutsi idazu, Jauna, zure bidea,
zure egiari jarrai dezaiodan;
eutsi sendo nere biotzari,
zure izenaren bildurrean.

12. Biotz-biotzez goratuko zaitut, ene Jaungoiko,
beti ospatuko det zure izena,
 13. nereganako zure erruki aundiagatik,
onik atera bait-ninduzun Leize sakonetik,
 14. Ene Jaungoiko, arroputz batzuk altxatzen zaizkit kontra,
lotsagabe-talde batek bizia kendu nai dit,
Zu aintzat euki gabe.
 15. Baño, Zuk, Jauna, Jaungoiko biotz-bigun eta errukiorra,
asarrerako nagia, erruki aundikoa ta leiala.
 16. begira idazu; erruki zakizkit.
- Emaiozu indarra zure morroiari,
salba zazu zure mirabearen semea.
17. Idazu ezaugarri on-maitetsua,
nere etsaiak ikusi, ta lotsa ditezela,
Zuk laguntzen bait-didazu, Jauna, ta pozez betetzen.

ANT.

*Jaungoikoarengana jasotzen det nere deadarra:
Jaungoikoari etzaio aztutzen bere onginaia.*

Pazko-aldian:


Aleluia, aleluia, aleluia.

Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"

ANTIFONA

Jauna: Salba gaitzazu...

Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela... (58 orr.)



LARUNBATA

GOIZ-GOIZEKO OTOITZA - AD MATUTINUM

Otoitzerako deia - Invitorium

Lelo. Jaunaren erri, Aren artaldeko ardi *
zatozte, gurtu dezagun!

1. Zatozte; gora dezagun Jauna... (7 orr.)

Gorasarrea - Hymnus

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Gure Jaungoiko Jaunak beti gogoan dauka bere elkartea.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 104 -

1. Emaizkiozute eskerrak Jaunari, egin dei Aren izenari,
jakiñerazi erriai Aren egite bikañak;
2. kantatu ezaiozute soñugalluak lagun;
esan Aren mirariak;
3. poz-arrotu zaitzte Aren izen santuarengatik,
alaitu ditezela Jaunaren billa dabiltzanak.
4. Zoazte Jaungoikoarengana ta Aren almenarengana,
ibilli beti Aren arpegi-billa.
5. Gogoratu egin zituan mirariak,
Aren arrigarriak, Aren agoko erabakiak.
6. Aren morroi Abraan'en jatorria,
Aren aukeratu Jakob'en semeak!
7. Jauna da gure Jaungoiko,
Ark agintzen du lur guztian.
8. Gogoan dauka beti, bere alkarte,
emandako itza, milla gizaldietan;
9. Abraan'ekin egin zuan alkarte,
Isaak'i egin zion ziña,
10. Jakob'entzat lege biurtua,
eta Israel'entzat betiko elkarte;
11. «Zuri emango dizut Kanaan-lurraldea,
zuen ondareko zati bezela».
12. Gizon gutxi ziranean,
banaka, eta lurraldean arrotz,
13. erriz-erri zebiltzanean,
erregedi batetik beste errialdera,
14. etzion iñori utzi aiei gaizki egiten,
eta zigortu zituan erregeak aiengatik.

15. «Ez ikutu nere igurtziak,
ez kalterik egin nere igarleai».

ANT.

Gure Jaungoiko Jaunak beti gogoan dauka bere elkarte.

ANTIFONA 2

*Jaungoikoak bere erria oso ugaria egin zuan;
bere etsaiak baño altsuago.*

- 104 - II

16. Gosea bialdu zuan lurralde artara;
ogirik gabe utziaz;
17. aurretik gizon bat bialdu zuan:
Jose, morroitzat saldua;
18. oñak burni-katez lotu zizkioten,
lepoa burni-kollarean sartu;
19. ark aurrez-esana bete zan arte
eta Jaungoikoaren itzak egiztatu.
20. Erregeak, ua askatzeko agindu zuan,
errien Jaunak atera zuan giltzapetik,
21. bere etxeko buru izendatu zuan,
zituan guztien jaun,
22. aundizkiai, bere erara, ikasbidea eman zezaien,
eta zarrai jakituria erakutsi.
23. Orduan Israel Ejiton sartu zan,
Jakob, Kan'go lurrean gelditu zan ostatuz

24. Jaungoikoak bere erria oso ugaria egin zuan, etsaiak baño altsuago.
25. Auen biotza aldatu egin zuan, bere erriari gorroto izan zezaioten eta bere morroiari txarkeriak egin.
26. Baño bere morroi Moises bialdu zuan, eta Aaron bere aukeratua.
27. aien kontra beren mirariak egin zituzten, ikuskarriak Kan'eko lurraldean.

ANT.

Jaungoikoak bere erria oso ugaria egin zuan; bere etsaiak baño altsuago.

ANTIFONA 3

Jaungoikoak bere erria pozetan atera zuan; bere aukeratuak garaipen irrintzika.

- 104 - III

28. Illuna bialdu zuan, eta illundu egin zan; baño, gogor egin zieten Aren itzai;
29. aien urak odol biurtu zituan, eta aien arraiak il;
30. aien lurra igelez bete zan, baita erregearen lo-gela ere.
31. Agindu zuan liztorrak eta eltxoak zetozela, lurralde guztira zabaldu ziran;
32. euri-ordez txingorra eman zien, su-garrak aien lurraldean;

33. eta pikondo ta maastiak zauritu zituan, eta lurralde artako zugaitzak moztu;
34. Ark aginduta, larrapoteak etorri ziran, saltaperikoak ugari;
35. aien lurretako belarra jan zuten, eta aien landetako fruituak irentsi.
36. Lurraldeko len-semeak eriotzaz jo zituan, giza-bizmenaren asikiñak;
37. Bere erria urrez eta zillarrez betea atera zuan, bere leñuetako inork etzuan oztoporik egin,
38. aiek irtetea, ejitoarrak poztu egin ziran, bildur-ikarak artu-ta bait-zeuzkan.
39. Odei bat zabaldu zuan, estali zitzan eta su bat, gauaz argi egin zezaien.
40. Aiek eskatu-ta, galaperrak bialdu zituan, zeruko ogiz ase zituan;
41. Arkaitza zulatu zuan eta urak atera; basamortuan ibaiaetan joan ziran.
42. Gogoan bait-zeukan, bere morroi Abraan'i, eman zion itz santua;
43. bere erria pozetan atera zuan, bere aukeratuak garaipen-irrintzika.
44. Atzeritarren lurak izendatu zizkien, eta atzerrien ondasun-jabe egin ziran;
45. Aren erabakiak gorde zitzaten, eta Aren legea bete.

ANT.

Jaungoikoak bere erria pozetan atera zuan; bere aukeratuak garaipen irrintzika.

ANTIFONA 4

Bere izenaren maitasunagatik Jaunak onez atera zituan.

— 105 —

1. Emaizkiozute eskerrak Jaunari, ona da-ta, beti-betikoa da Aren errukia.
2. Nork esan al ditzake Jaungoikoaren egintza bikañak? nork otsegin Aren goraltza guztiak?
3. Zoriontsuak zuzenbidea aintzat artu eta bidezko dana egiten dutenak!
4. Gogoan izan nazazu, zure erriaren maitasunagatik, zatozkit zure osasunarekin:
5. zure aukeratuen atsegiña ikusi dezadan, eta zure erriaren pozaz poztu nadin, eta zure sallarekin arrotu.
6. Gure gurasoekin egin degu pekatu, gaiztakeriak eta txarkeriak egin ditugu.
7. Gure gurasoak Ejito'n etzituzten ulertu zure mirariak;
etzuten gogoan izan zure erruki ugaria, Itxas Gorrian altxa ziran goi-goikoaren aurka,
8. Baño Jaungoikoak salbatu egin zituan bere izenaren maitasunagatik, bere almena agertzeko.
9. Itxas Gorriari agindu zion eta legortu egin zan; itxasondotik legorrez bezela eraman zituan;
10. onik atera zituan etsaiaren eskutik, askatu arerioaren ukabilletik:

11. jarraitzalleak urak estali zituan, bat bakarrik etzan salbatu.
12. Orduan sinistu zituzten Aren itzak, Aren gorapena abestu.
13. Laxter aztu zitzaizkien Aren egintzak, etzuten usterik izan Aren asmoetan.
14. Irrika aundia izan zuten basamortuan, eta Jaungoikoa zirikatu zuten bakartean;
15. eskatzen ziotena eman egin zien, baño sabel-miña biali zien jan-edankeriarengatik.
16. Txabolategian, Moises'i bekaitz izan zioten eta Aaron'i, Jaunaren sagaratuari;
17. lurra idiki zan, eta Datan irentsi zuan, Abiron eta onen lagunak barruan zituala itxi zan;
18. aien taldea suak erre zuan, garrak kixkali zituan gaiztoak.

ANT.

Bere izenaren maitasunagatik Jaunak onez atera zituan.

ANTIFONA 5

Aztu egin zitzaien Jaungoikoa, beren Salbatzallea.

— 105 — II

19. Oreb'en zekor bat egin zuten, burni-urtuaz egindako sisi-jainkoa gurtu;
20. Aren Aintza, belarra jaten duan zezenaren irudiagatik aldatu zuten;

21. aztu egin zitzaien Jaungoikoa beren Salbatzallea,
Ejiton mirariak egin zituana,
22. Kam-lurraldean, arrigarriak,
Itxaso Gorri-ondoko egite ikaragarriak.
23. Aiek ondatzea ere aitazten zuan Jaungoikoak;
baño, Moises, Aren aukeratua,
atakan jarri zan, Aren aurrean,
Aren ondamendi-asarrea aldentzeko.
24. Lur opagarria gutxietsi egin zuten,
etzuten sinistu Aren itza;
25. oial-txaboletan gaizki-esaka asi ziran,
etzuten entzun Jaunaren aotsa.
26. Ark eskua jaso ta ziñ egin zuan:
il egingo zituala basamortuan,
27. aien jatorria atzerrietan sakabanatuko zuala
eta lurraldeetan zear aizatuko zituala.
28. Baal Fegor'ekin alkartu ziran,
jainko illai eskeñitako oparrietatik jan zuten;
29. Sumindu egin zuten Jaungoikoa beren zatarkeriz,
eta gaitz batek artu zituan;
30. baño, Fines altxa ta zuzenbidea egin zuan,
eta gaitza bukatu egin zan;
31. Ari aintzarako ezarri zitzaion,
amaigabeko gizaldietan.
32. Meriba'ko ur-ondoan esarrerazi zuten berriro Jauna;
Moises'ek bereak igaro zituan aien erruz;
33. biotza naigabetu zioten
eta aien ezipañak zorakeriak esan zituzten.

ANT.

Aztu egin zitzaien Jaungoikoa, beren Salbatzallea.

ANTIFONA 6

Ikusi zuan Jaunak aien estualdia eta entzun aien deadarrak.

- 105 - III

34. Etzituzten erriak ondatu
Jaungoikoak agindutako erriak;
35. atzerritarren senitarlean sartu ziran,
aien oiturak jarraitu zituzten,
36. aien sasi-jainkoak gurtu
eta aien sarcetan erori ziran;
37. beren seme-alabak opari
eman zizkioten etsaiari;
38. odol errugabea ixuri zuten,
eta lurra odola ixuriaz zikindu;
39. beren egintzetan loitu ziran
eta beren gaizakerietan narrastu.
40. Jaunaren asarrea aien erriaren kontra piztu zan,
eta aien salla gorrotatu egin zuan;
41. atzerritarren esku utzi zituan,
eta etsaien mende gelditu ziran;
42. etsaiak gogor artzen zituzten,
beren mendean makurrerazi.
43. Zenbat bider askatu zituan!
aiek, ordea, beren jokabidean gogor,
beren erruagatik galtzen ziran.
44. Baño Ark ikusi zuan aien estualdia
eta entzun aien deadarrak;
45. Aiekin zuan elkarte gogoraturik,
erruki aundiz damutu zan;

46. egin zuan eraman zituztenak
erruki zekizkietela.
47. Salba gaitzazu, gure Jaungoiko Jauna;
bildu gaitzazu atzerritarren artetik,
eskerrak emango dizkiogu zure izen santuari,
eta Zu goratzea izango da gure ospea.
48. Bedeinkatua izan bedi Israel'en Jaungoiko Jauna,
betidanik eta beti.
Eta erri osoak esan beza:
Amen: ala biz

ANT.

Ikusi zuan Jaunak aien estualdia eta entzun aien deadarrak.

ANTIFONA 7

*Jaunari deadar egin zioten eta atera egin zituan
zoritxarretik.*

- 106 -

1. Emaizkiozute eskerrak Jaunari ona da-ta,
betikoa da Aren errukia.
2. Aitor dezatela Jaunak askatutakoak,
etsaien eskutik askatu dituanak,
3. errialde guztietatik bildu zituanak;
iparraldetik eta egoaldetik, sorkaldetik eta sarkaldetik.
4. Nora gabe zebiltzan basamortu bakarrean,
bizidun erriko biderik etzuten arkitzen;
5. gose ta egarri ziran,
aien bizia gero-ta makalagoa zan:

6. baño, beren larrian Jaunari deadar egin zioten,
eta zoritxarretik atera egin zituan.
7. Bide zuzenetik eraman zituan,
bizidun errira iritxi zitezten.
8. Eskerrak eman dezaizkietela Jaunari, bere errukiarengatik,
gizakien alde egiten dituan mirariengatik.
9. Egarri ziranak ase egin zituan
eta gose ziranak ondasunez bete.
10. Illundietan eta illunpean zeuden
burniz eta zoritxarrez lotuta;
11. aginduen kontra altxa ziralako,
Goi-goikoaren erabakia gutxietsirik;
12. nekearen-nekez makurrerazi zizkien biotzak,
erortzen ziran, eta iñork etzien laguntzen.
13. Baño beren larrian Jaunari deadar egin zioten,
eta zoritxarretik atera egin zituan.
14. Illunpe beltzetatik atera zituan
eta lokarriak kendu zizkien.
15. Eskerrak eman dezaizkietela Jaunari, bere errukiarengatik,
gizakien alde egin dituan mirariengatik.
16. Brontzezko ateak puskatu egin zituan
eta burnizko morrolloak autsi.

ANT.

*Jaunari deadar egin zioten eta atera egin zituan
zoritxarretik.*

ANTIFONA 8

Ikusi zituzten Jaungoikoaren lanak eta Aren mirariak.

- 106 - II

17. Beren gaiztakeriengatik gaxorik zeuden
eta beren erruengatik suminduta;
18. nazkagarri zitzaizkien janari guztiak
eta eriotz-atea ikuitzen zuten.
19. Baño beren larrian Jaunari deadar egin zioten
eta zoritxarretik atera egin zituan.
20. Bere itza biali zuan, sendatzera,
ondamenditik atera zituan.
21. Eskerrak eman dezaizkiotela Jaunari, bere errukiarengatik,
gizakien alde egin dituan mirariengatik.
22. Eskeñi bezaizkiote gorespen-opariak
eta esan bitzate gartsu Aren egiteak.
23. Ontzietan itxasora sartu ziran,
uraundietan barrena, sal-erosketan.
24. Ikusi zituzten Jaungoikoaren lanak,
Aren mirariak itxaso zabalean.
25. Ark itz egin, eta ekaitz-aizea sortu zan
olatuak gora jasotzen zituan;
26. zeruraño igotzen ziran, leizeraño jetxi,
zorabioak urdalla nastuta,
27. iraulka, mozkorren antzera balantzaka zebiltzan,
eta aien trebetasuna alperrik zan.
28. Baño beren larrian Jaunari deadar egin zioten
eta zoritxarretik atera egin zituan.
29. Ekaitza aize bigunez baretu zuan,
eta itxasoko olatuak mututu ziran.
30. Barealdi arekin poztu ziran,
eta Ark, opa zuten kaiera eraman zituan.

31. Eskerrak eman dezaizkiotela Jaunari, bere errukiarengatik,
gizakien alde egin dituan mirariengatik.
32. Ospa bezate erriaren batzarrean,
goratu zaarren billeran.

ANT.

Ikusi zituzten Jaungoikoaren lanak eta Aren mirariak.

ANTIFONA 9

*Zuzenak ikusi, ta poztu egiten dira; eta ezagutzen dute
Jaunaren errukia.*

- 106 - III

33. Ark ibaiak legor biurtzen ditu
iturburuak legorte;
34. lur gozoak itxas-lokatz,
an bizi diranen gaiztakeriengatik.
35. Basamortua urzulo biurtzen du
eremua ur-iturri.
36. Gose diranak an jartzen ditu,
eta erri bat an jaso, bizi ditezten.
37. Soroak erein, baratzak landu,
uztak biltzen dituzte.
38. Ark bedeinkatu, eta ugaritu egiten dira,
eta ez dizkie urritu abereak.
39. Ezbearren eta zoritxarren zamapean
gutxitzen ba'dira,
40. aundizkiak gutxietsi
eta biderik gabeko bakartean galtzen dituanak,

41. jaso egiten ditu beartsuak zoritxarretik,
eta sendiak ugaritzen dizkie, artaldeak bezela.
42. Zuzenak ori ikusi ta poztu egiten dira,
gaiztakeriari aoa ixten zaio.
43. Jakintsuak jaso ditzala gertakizun auek
eta ezagutu dezala Jaungoikoaren errukia.

ANT.

Zuzenak ikusi, ta poztu egiten dira; eta ezagutzen dute
Jaunaren errukia.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Te Deum

Zu Jaungoiko goratzen zaitugu... (19 orr.)



GORALTZAK I — AD LAUDES I

ANTIFONA I

Pazko-aldian ezik:

Poztu bitez Sion'go semeak beren erregearengatik.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 149 -

1. Abestu iozute Jaunari kanta berria,
entzun bedi Aren gorapena zintzoen batzarrean;
2. poztu bedi Israel, bere egillearengatik,
Sion'go semeak beren erregearengatik.
3. Gora ezazute Aren izena dantzaketan,
abestu ezaiozute atabalez eta zitaraz;
4. Jaunak bere erria maite bait-du,
eta apalak garaipenez edertzen ditu.
5. Ospatu dezatela zintzoak Aren aintza,
eta abestu dezatela lerroz-lerro;
6. Jaungoikoarentzat gorakak aoan,
eta bi aoko ezpatak eskuetan;
7. errien bizkar mengantza artzeko,
eta atzerriai zigorra emateko,
8. erregeak kate-uztaiz lotuaz,
eta burniz aundizkien eskuak.

9. Emandako epaia betetzea
gorabide da Aren zintzo guztientzat.

ANT.

Poztu bitez Sion'go semeak beren erregearengatik.

ANTIFONA 2

Zure egiteak bai dirala aundiak, Jauna!

- 91 -

2. On da Jaunari eskerrak ematea
eta zure izenari arpejiotan jotzea, Goi-goikoa!
3. goizean zure errukia otsegitea,
eta zure leialtasuna gauean,
4. amar ariko arpaz eta laudez,
zitara-eresien gañetik;
5. Zure egiteak, Jauna, nere pozbide dira,
zure esku-lanak, berriz, nere atsegiñ.
6. Zure egiteak bai dirala aundiak, Jauna,
bai sakonak zure asmoak!
7. Ezjakiñak ez ditu ulertzen,
eta ergela ez da jabetzen.
8. Gaiztoak belarra bezela ernetzen ba'dira ere,
eta gaizkillea loratu,
betiko ondatuak geldituko dira.
9. Zu, ordea, Jauna,
beti ta beti gorengo zera.
10. Zure etsaiak, Jauna, zure etsaiak galdu egingo bait-dira,
gaizkilleak sakabanatu;

11. baño, neri basa-idiaren indarra ematen didazu,
eta olio berriarekin igurtzitzen nauzu.
12. Nere begiak ez-ikusi egingo diete etsaiak,
nere belarriak aien ondamentia entzungo dute.
13. Zintzoa palmondoa bezela loratuko da,
Libanoko zedroa bezela azi;
14. Jaunaren etxean aldatuta,
gure Jaungoikoaren atarietan aundituko da,
15. zartzaroan ere uzta emango du,
eta mardul eta eze egongo da,
16. Jauna zuzena dala otsegiteko,
eta nere Arkaitzean gaiztakeririk ez dala agertzeko.

ANT.

Zure egiteak bai dirala aundiak, Jauna!

ANTIFONA 3

Zintzoa Jaunarekin poztutzen da; Argan du gordeleku.

- 63 -

2. Entzun ezazu, Jaungoiko, nere negar-otsa
zaitu nere bizia etsai bildurgarritik;
3. gorde nazazu gaiztoen azpi-jokotik,
eta gaizkilleen matxinadatik;
4. ezpatak bezela zorrozten dituzte mingañak,
eta azkonak bezela botatzen dituzte menenodun itzak,
5. errugabea ezkutuka zauritzeko,
ustekabeen eta lasai-lasai zauritzeko.

6. Txarkerirako alkar-berotzen dabilta,
sareak nola ipiñiko asmatzen;
ala diote: «Nork igerriko dio?»
7. Gaiztakeriak asmatzen dituzte, eta asmakizunak ezkutatu,
aien buru-biotzak ondo-gabeak bait-dira.
8. Baño Jaungoikoak azkonaz jotzen ditu,
eta ustekabeen zauriz bete;
9. beren mingañoak berak eramaten ditu ondamendira,
eta ikusten dutenak buruari eragiten diote.
10. Bildurrak artuta dago mundu guztia,
Jaungoikoaren lana otsegiten du,
eta Aren egiñak ausnartu.
11. Ona Jaungoikoarekin poztutzen da,
Aregan babesten,
eta alkarri poz-agur egiten diote biotz-zuzenak.

ANT.

Zintzoa Jaunarekin poztutzen da; Argan du gordeleku.

ANTIFONA 4

Ager iguzu, Jauna, zure errukiaren argia.

Ikastunaren abestia (Eccli. 36)

1. Salba gaitzazu izadiaren Jaungoiko!
2. Sartu ezazu atzerri guztietan zure bildurra.
3. Jaso ezazu zure eskua arrotz-erriaren gañera,
zure al-izatea nabari dezan.

4. Gu zigortuaz zure santutasuna aiei agertu diezun bezela
ager zaiguzu guri zure aintza aiek zigortuaz.
5. Guk dakigun bezela, jakin dezaten
ez dala Zu beste Jaungoikorik.
6. Berriztatu itzazu ezaugarriak, egin berriro mirariak,
7. jaso gora zure eskua, sendotu besoa,
8. piztu zure asarrea, ixuri sumiña,
9. bentzutu erasotzallea, sakabanatu etsaia;
10. aurreratu azkena, zaitu epea;
nork esan dezaizuke, ba, «zer ari zera?»
11. Kixkali bitza su-garrak iges egiten dutenak,
ondatu bitez zure erriaren zapaltzalleak.
12. «Gu besterik ez da», dioten etsaiai agintariari
zapaldu iezu burua.
13. Bildu itzazu Jakob'en leñu guztiak
eta emaezu beren ondarea antziña bezela.
14. Erruki zakizkio zure izena daraman erriari,
zure len-sume egin zenduan Israel'i;
15. Erruki zakizkio zure erri santuari,
zure atsedentoki dezun Jerusalem'i.
16. Bete ezazu Sion zure aunditasunez,
eta jauretzea zure aintzaz.

ANT.

Ager iguzu, Jauna, zure errukiaren argia.

ANTIFONA 5

Arnasa duten guztiak gora bezate Jauna!

- 150 -

1. Gora ezazute Jauna bere jauretxean,
goratu bere zeru ederrean.
2. Gora ezazute bere egintza bikañengatik,
goratu bere aunditasun neurrigabearengatik.
3. Gora ezazute turuta-otsez,
goratu arpaz eta zitaraz.
4. Gora ezazute atabal eta dantzaz,
goratu turutaz eta txilibituz.
5. Gora ezazute azpil-otsez,
goratu azpil-ots biziz,
Arnasa duten guztiak gora bezate Jauna.

ANT.

Arnasa duten guztiak gora bezate Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Benedictus

ANTIFONA

*Argi egiezu, Jauna, illunpetan eta eriotz-itzalean bizi
diranai, eta zuzendu aien oñak pake-bidean.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)

GORALTZAK II - AD LAUDES II

ANTIFONA 1

Lagun zakizkio Sion'i, Jauna, zure onginaiaगतिक.

- 50 -

Izazu nitzaz kupida, Jaungoiko... (28 orr.)

ANTIFONA 2

Gure Jaungoiko Jauna zuzena da, ez da gaiztakeririk Argan.

- 91 -

On da Jaunari eskerrak ematea... (308 orr.)

ANTIFONA 3

Zaitu ezazu nere bizia, Jauna, etsai bildurgarriengandik.

- 63 -

Entzun ezazu, Jauna, nere negar-otsa... (309 orr.)

ANTIFONA 4

*Jauna erruki izango zaio bere morroiari; barkatu egingo die
bere lurraldeari ta bere erriari.*

Moises'en bigarren abestia. (Deut., 32, 1-45)

1. Entzun, zeruak, eta mintzatuko naiz;
entzun, lurra, nere agoko itzak;
2. jetxi bedi, euria bezela, nere erakutsia,
ixuri bedi, intza bezela, nere itza;
belar-gañera lanbroa bezela,
zelai-gañera sirimiria bezela.
3. Jaunaren izena otsegin bear det:
gora ezazute gure Jaungoikoa
4. Bera da Arkaitz; Aren lanak bikain-bikaiñak dira,
Aren bideak zuzenak.
Leiala da, gaiztakeririk gabea;
zintzoa eta zuzena.
5. Seme biurriak gaizki jokatu zuten Arekin.
Gizaldi gaizto ta billaua!
6. Orrela ordaintzen al diozu Jaungoikoari,
erri zoro ta burugabea?
Ez al da Bera zure Aita ta zure egillea,
egin eta eratu zinduana?
7. Gogora itzazu antziñako egunak,
begira ondo igarotako urteak,
galdetu aitari ta berak esango dizu,
galdetu zaarrai ta aiek azalduko dizute.
8. Goi-goikoak erri bakoitzari
bere ondarea ematen zionean,
eta Adanen semeak banatzen zituanean,
Jaungoikoaren seme-taldeari zegokionez
atzerrien mugak erabakiaz,
9. Jaunaren sail berezia bere erria izan zan,
Bere ondare-zatia, Jakob.

10. Lur bakarrean aurkitu zuan;
toki landu-gabea, basamortu-otsez betean;
inguratu ta zaitu egin zuan,
bere begi-ninia bezela gorde.
11. Arranoak, umeen gañean egaz egiñaz,
kabialdia egarazi nai izaten duan bezela,
ala zabaldu zituan bere egoak,
eta artu, ta luma-gañean eramane zituan.
12. Jaunak bakarrik eramane zituan,
etzan Arekin jainko arrotzik izan;
13. lurbirako mendietara igo zituan,
landetako ustaz janaritu.
14. Basa-etziz azi zituan eta arkaitz biziko olioz;
bei-esnearen gañaz eta ardi-esnez,
bildots eta adari-koipez,
Basan'go idizkoz eta antxumez, gari-mamiz;
eta edari, maatsaren odol irakiñez.
15. Jan zuan Jakob'ek eta ase zan,
nere Kutuna gizendu zan eta ostikoka asi;
— gizen, lodi ta mardul bait-zeunden —
eta baztartu egin zuan Jaungoikoa, bere Egillea;
ezetsi bere Arkaitz Salbatzallea.
16. Jainko arrotzez zirikatu zuten,
beren nazkagarrikeriz asarrerazi;
jainko etziran deabruai,
17. opariak eskeñi zizkieten
jainko ez-ezagunai,
berriai, ingurutik ekarriai,
zuen gurasoak gurtu etzituztenai,
18. Sortu zinduan Arkaitza baztartu egin zenduan
eta argitara ekarri zinduan Jaungoikoa atzendu.

— *Emendik aurrerakoa nai duanak esaten du, nai ez duanak ez.*

19. Jaunak ori ikusirik, asarretu ta,
bere seme-alabak zapuztu egin zituan, onela esanaz:
20. «Ezkutatu egingo diet nere aurpegia,
ikusiko det nolako azkena duten;
gizaldi gaiztoa bait-da,
seme billauak;
21. Jaungoiko dalazkoarekin espan jarri naute,
sasi-jainko utsakin sumindu,
nik, ordea, erri dalazkoarekin espan jarriko ditut,
erri zoro batekin sumindu.
22. Sutan dago nere asarrea,
eta Leize-ondorañokoa erreko du;
lurra bere uztakin kixkali,
eta mendien oñarriak erreko ditu.
23. Ondamendiak ondamendien gañean pillatuko dizkiet,
nere azken-gezirañokoa botako diet;
24. goseak igartu-ta ibilliko dira
sukarrak eta izurri txarrak urtu-ta;
piztien agiñak bialiko dizkiet,
eta lurean narrazten diran subeen pozoia.
25. Ezpatak eramango ditu semeak kaleetan;
ikarak etxeetan;
mutil gazteak neskakin,
bularreko aurrak agureakin.
26. Gogoan nuan:
«Sakabanatu egingo ditut,
ezkutarazi gizartetik aien oroipena».

27. Baño ez; bildur ematen dit etsaien arrokeriak,
eta arerioen irizpide okerrak;
ala esango bait-luteke:
«Gure eskuak garaitu du;
ez da Jauna ori guztia egin duana».
28. Izan ere, zentzugabeko erria da;
ez dute bururik.
29. Zentzudunak ba'lira, jabetuko lirake:
ezagutuko luteke zer datorkien gañera.
30. Gizon batek nola darabilzkian aurrean milla,
eta bik nola iges erazi dieten amar millari?
Ez al da beren Arkaitzak saldu ditualako,
eta Jaunak eman dizkigulako?
31. Izan ere, aien arkaitza ez da gure Arkaitza bezelakoa:
gure etsaiak berak ondo dakite ori.
32. Sodomako maats-ondoen ayen dira, noski,
Gomorralandetako maats-adar;
aien maatsak, menenodun maatsak dira,
eta aien maats-mordoak garratzak;
33. aien ardoa dragoien menenoa da,
sube gorrien pozoi ilkorra.
34. Ez ote daukat ori guztia bilduta,
nere idaztegian sillatuta?
35. Neri dagokit mengantza egitea ta ordaintzea,
aien oñak irixta egingo duten orduan;
gertu bait-dago aien ondamendi-eguna,
eta laxter dator zoria.
36. Izan ere, Jaunak babestuko du bere erria,
eta erruki izango die bere morroiak,
aien eskuak indarrrik gabe daudela,
eta nagusi-morroiak aultzen dirala, ikustean.

37. Auxe esango du: Nun dira oien jainkoak,
eta gordeleku zuten Arkaitza?
38. Ez al zuten aien oparietako koipea jaten,
eta aien opari-ixurketako ardoa edaten?
« Altxa ditezela orain zuei laguntzeko,
izan ditezela zuen igesleku!».
39. Orain, beraz, ikus zazute: ni, ni naiz bakarra,
eta ez da besterik;
nik ematen ditut eriotza ta bizia,
nik zauritzen det eta sendatzen;
ez da inor nere eskutik askatu dezakenik.
40. Nere eskua zerurontz jaso, ta ziñ egiten det,
«Ni beti bizi naizen bezin egia,
41. Nere ezpataren tximista zorrozten dedanean,
eta nere eskuan zuzenbidea artu,
nere mengantza biurtuko diot etsaiari,
eta dagokion ordaña emango diot arerioari.
42. Odoletan mozkortuko ditut nere geziak,
aragia irentsiko du nere ezpatak;
illen eta giltzapetuen odola,
etsai-agintarien buruak».
43. Atzerriak, gora ezazute Jauna, bere erriarekin batean;
Berak eskatzen bait-du
bere morroien odolaren ordaña.
Ark artzen du mengantza etsaien lepotik;
eta barkatu egiten dio bere lurrari ta bere erriari.

ANTIFONA 5

Gora ezazute Jauna, bere aundiaren-aundiagatik.

— 150 —

Gora ezazute Jauna bere jauretxean... (312 orr.)

Benedictus

ANTIFONA

*Argi egizu, Jauna, illunpetan eta eriotz-itzalean bizi
diranai, eta zuzendu aien oñak pake-bidean.*

Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna... (26 orr.)



GOIZ-ALDEKO OTOITZA — AD PRIMAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Altxa zaitetz, Jauna: epaitu ezazu lurra;
emaiezu arroai dagokien ordaña.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

— 93 —

1. Mendekuaren Jauna,
mengantzaren Jaungoiko, egizu ditzira.
2. Altxa zaitetz, epaitu ezazu lurra,
emaiezu arroai dagokien ordaña.
3. Noiz arte, Jauna, errudunak,
noiz arte gallenduko dira errudunak?
4. Lotsagabekeria esanaz mintzo dira,
arro dabiltza gaizkilleak;
5. apurtu egiten dute, Jauna, zure erria,
zapaldu zure ondarea;
6. bizia kentzen diete alargunai eta arrotzai,
lepoa moztu umezurtzai;
7. «Jaungoikoak ez du ikusten, diote,
Jakob'en Jaungoikoa ez da jabetzen».

8. Jakin ezazute erriko ergelenak,
ezjakiñak, noiz zentzatuko zerate?
9. Belarria ipiñi zuanak, ez ote du entzungo?
Begia eratu zuanak, ez ote du ikusiko?
10. Erriak ezitzen dituanak, ez ote du zigortuko?
Gizonari erakusten dionak, ez ote du jakingo?
11. Jakin, ba-daki Jaunak gizonaren burubideak
utsak dirala.

— 93 — II

12. Zorionsua benetan, Zuk ezitzen dezun gizona
zure legea erakusten diozuna,
13. urte txarren ondoren, atsedean emanaz,
gaiztoarentzat zuloa egiten duten bitartean;
14. Jaunak ez bait-du bere erria zapuzten,
ez bere salla uzten;
15. zintzoak bere eskubidea iritxiko du,
eta biotz-zuzenak etorkizun ona.
16. Nor ateratzen da nere alde gaiztoen kontra?
Nor jartzen da nere ondoan gaizkilleen aurka?
17. Jaunak ez ba'lida lagundu,
onezkero ixillean bizi nintzan.
18. Beaztopa egiteko zorian nagolakoan,
zure errukiak eusten dit, Jauna;
19. buruausteak ugaritzen zaizkidanean,
zure pozialdiak ditut atsegiñ.
20. Elkartu ote diteke zurekin, legearen izenean,
bidegabekeria epaitzen duan auzi-mai gaiztoa?

21. Zintzoaren biziaren kontra ba'dabiltz ere,
eta errugabea eriotzara galtzen ba'dute ere,
22. Jauna izango da nere gaztelu,
Jaungoikoa izango det babes-arkaitz.
23. Ark ordainduko die gaiztakeria,
ondatu egingo ditu beren txarkeriengatik.
ondatu egingo ditu gure Jaungoiko Jaunak.

- 107 -

2. Sendo daukat biotza, nere Jaungoiko,
Zuretzat abestuko det eta soñua joko, nere aintza!
3. Esna zaitezte, zitara ta arpa,
egunsentia esnatuko det;
4. Eskerrak emango dizkitzut, Jauna, errien aurrean,
Zuretzat joko det soñua atzerrien aurrean:
5. zure onginaigatik, zeruak baño aundiagoa da-ta,
zure leialtasunagatik, odeietarañokoa bait-da.
6. Igo zaitez, nere Jaungoiko, zeruaren gañeraño,
eta bete beza lurra zure aintzak;
7. zure kutunak salba ditezen,
zure esku salbatzalleak erantzun dezaigun.
8. Jaungoikoak itzezin zuan bere jauretxean:
«Gallen sartuko naiz Siken'en,
Sukot-ibarra salletan jarriko det;
9. nerea da Galaad, nerea Manases,
nere buru-babeskiña da Efrain,
nere aginte-makilla Juda;
10. Moab, garbitzeko aspil det,
Sion'en gañera botatzen det nere oñetakoa.
Filistearen bizkar kantatzen det garaitza.

11. Baño, nork eramango nau arresidun errira,
Nork zuzenduko nau Edon'era?
12. Zuk, Jaungoiko orrek baztarten ba'gaituzu,
eta zure gudari-taldeekin ateratzen ez ba'zera?
13. Lagun zaiguzu etsaien kontra,
alperrik bait-da giza-laguntza;
14. Jaungoikoarekin arrigarriak egingo ditugu,
Ark zapalduko du gure etsaia.

ANT.

*Altxa zaitez, Jauna: epaitu ezazu lurra;
emaiezu arroai dagokien ordaña.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



BEDERATZIETAKO OTOITZA — AD TERTIAM

ANTIFONA

*Pazko-aldian ezik:**Iritxi bedi Zureganaño nere deadarra, Jauna;
ez idazu ezkutatu zure aurpegia.**Pazko-aldian:**Aleluia, aleluia, aleluia.*

- 101 -

2. Jauna, entzun ezazu nere otoitza,
iritxi dedilla Zureganaño nere deadarra;
3. ez idazu ezkutatu zure aurpegia,
larrialdi-egunean.
Makurtu ezazu zure belarria neregana,
entzun bereala deitzen dizudanean.
4. Nere egunak kea bezela ezerezten dira,
nere ezurrak txingarrak bezela kizkaltzen dute,
5. nere biotza belarra bezela igartuta dago,
aztu egiten zait nere ogia jatea;
6. negarraren-negar aundiaz,
larru-azala ezurretan itxatsita daukat.
7. Basamortuan ontza bezela nago,
orma erorietan mozolloa bezela;
8. esna nago, negarrez,
txoria, tellatuan lagunik gabe bezela.

9. Nere etsaiak, ixildu gabe, gaizki-esaka ari zaizkit,
nere kontra asarre bizian madarikatu egiten naute.
10. Ogi-orde sutautsa det janari,
negarra naasten diot edariari;
11. zure asarre-sumiñengatik,
gora jaso ta bota egin bait-ninduzun;
12. luzatzen dan itzala bezela dira nere egunak,
belarra bezela igartzen ari naiz.

- 101 - II

13. Zuk, ordea, betiko irauten dezu,
eta zure izenak gizaldiz-gizaldi.
14. Altxa zaitez eta erruki zakizkio Sion'i,
bada-ta errukitzeko ordua ta garaia.
15. Zure morroiak maite dituzte beren arriak,
errukarri zaizkie beren orma eroriak.
16. Bildur izango diote atzerritarrak zure izenari,
lurreko erregeak zure aintzari.
17. Jaunak Sion berriztatzen duanean,
eta bere aintzan agertzen danean,
18. eta laguntza-gabeen erreguetara biurtzen danean,
eta aien eskabideai entzungor egiten ez dienean,
19. idatzita gelditu bedi au geroko gizaldiarentzat,
eta Jauna goretsiko du sortua izango dan erriak;
20. Jaunak begiratu bait-du bere goiko jauretaketik,
begiak lurrean ipiñi ditu zerutik,
21. morrontzapetuen intziriak entzuteko
eta eriotzara galduak askatzeko;
22. Jaunaren izena Sion'en otsegiteko
eta Aren gorespina Jerusalem'en.

23. erriak gogo batez biltzen diranean,
eta erregeak, Jaunaren gurtza egiteko.

— 101 — III

24. Berak bukatu egin zizkidan indarrak bidean
eta nere egunak laburtu;
25. eta nik au esan nuan: «Nere Jaungoiko,
ez nazazu eraman nere egunen erdian».
26. Zure urteak gizaldi guztietan irauten dute:
asieran lurra oñarritu zenduan,
eta zerua zure eskuen lana da;
27. Auek il egingo dira, zuk beti iraungo dezu;
jantzia bezela meetuko dira,
aldatzen dan jantzia bezela izango.
28. Zu, ordea, beti berdin zera,
eta zure urteak ez dira amaituko.
29. Zure morroien semeak lasai-lasai biziko dira
aien jatorriak zure aurrean iraungo du.

ANT.

*Iritxi bedi Zureganano nere deadarra, Jauna;
ez idazu ezkutatu zure aurpegia.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

AMABIETAKO OTOITZA — AD SEXTAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Zu bai zerala aundia, gure Jaungoiko Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

— 103 —

1. Bedeinka ezazu Jauna, nere anima,
nere Jaungoiko, bai zerala aundia!
Ederrez eta aundiz zaude jantzia,
2. soingañekoak bezela argiak biltzen zaitu.

Oial-txabolatzat zeruak dauzkazu,

3. uren gañean egiten dezu zure bizilekua;
odeiak dituzu gurdi,
aizearen egoetan zabilta;
4. aizeak dituzu albistari,
sugar biziak morroi.
5. Lurra bere oñarrietan gogortu zenduan,
eta ez du beñere kolokarik egingo;
6. itxas-soñekoa jantzi zenion gañean,
eta urak mendi-gañetan kokatu ziran;

7. baño, zuk orru eginda, igesi joan ziran,
zure trumoi-otsarekin amildu,
8. mendiak gora egiten zuten bitartean, ibarrak beera:
hakoitzari erabaki zitzaion tokira.
9. Igaroko ez duten muga ipiñi zenduan,
eta ez dute berriro lurra estaliko.
10. Iturburuetatik errekak ateratzen dituzu,
mendi-artetik joan ditezen
11. oietan edaten dute basoetako piztiak,
or kentzen du egarria basa-astoak;
12. oien ondoan bizi dira zeruko egaztiak,
eta ostaje-artean entzuten dira oien abestiak.

- 103 - II

13. Zure etxetik ureztatzen dituzu mendiak,
eta lurra zure eragin emankorrez betetzen da;
14. abereentzat belarra ernarazten dezu,
eta belar-bazka gizonaren serbitzarientzat;
15. Ark ateratzen du ogia soroetatik,
eta biotza poztutzen dion ardoa,
eta arpegia leguntzen dion olioak,
eta indarrak ematen dizkion janaria.
16. Izerdiz betetzen dira Jaunaren zugaitzak;
Berak jarri zituan Libano'ko zedroak.
17. Aietan egiten dituzte txoriak beren kabiak,
adaburuan egiten du bere etxea amianoak.
18. Mendi-zorrotzak auntzentzat dira,
triku-zulo arkaitzak.
19. Illargia egin zenduan bere gora-berakin,
eguzkiak ba-daki bere sarrera;

20. illunpeak ateratzen dituzu, ta gaba dator;
eta basoko piztiak inguru-minguru dabilta.
21. pizti-kumeak orroka ari dira arrapakiñ-gosez,
Jaungoikoari jatekoa eskatzen.
22. Eguzkia ateratzen danean, alde egiten dute,
beren zuloetan etzaten dira;
23. gizona bere lanetara irteten da,
arratsalderaño lur-lanera.

- 103 - III

24. Zenbat diran, Jauna, zure egintzak!
eta oro jakinduriz egin zenituan,
lurra zure izakiz betea dago.
25. Or dago itxasoa: luze ta zabal,
bertan dabilta konta eziñ-ala,
arraiak, txiki ta aundi.
26. Or dabilta itxas-ontziak,
eta jolasteko egin zenduan Lebiatan.
27. Guzti oiek, bere garaian,
Zuk jana eman-zai daude;
28. Zuk bota, eta aiek artu egiten dute,
Zuk eskua zabaldu, ta aiek ondasunez bete.
29. Zuk aurpegia gorde, ta aiek ikaratu egiten dira,
Zuk arnasa kendu, ta aiek il
eta auts biurtu.
30. Zuk arnasa bialdu, ta sortu egiten dituzu,
eta lur-azala bizidunez bete.
31. Aintza Jaungoikoari betiko;
poztu bedi Jauna bere egintzakin.


32. Ark lurrari begiratu, ta ikaraz jartzen da;
mendiak ikutu, ta kea dariote.
33. Bizi naizen artean, Jaunari kantatuko diot;
naizen artean, nere Jaungoikoarentzat soñua joko det;
34. izan dakiola atsegin nere bertso-salla.
eta ni Jaunarekin poztuko naiz.
35. Amaitu ditezela pekatariak munduan,
ez bedi geiago gaiztorik.
Bedeinka ezazu Jauna, nere anima!

ANT.

Zu bai zerala aundia, gure Jaungoiko Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.



IRURETAKO OTOITZA - AD NONAM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

*Etzaitetz ixilik egon, nere Jaungoiko;
gorroto-itzez inguratzen naute.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 108 -

1. Etzaitetz ixilik egon, nere gorespenen Jaungoiko,
2. ago maltzur eta billau bat zabaltzen da nere kontra,
mingain gezurtiz ari zaizkit,
3. gorroto-itzez inguratzen naute,
bidegabenez erasotzen didate;
4. nere maitasun-ordain, salatu egiten naute,
ni otoitz-eta-otoitz ari naizen bitartean;
5. onaren ordain txarra ematen didate,
maitasun-ordez gorrotoa.
6. «Ipiñi ezazu gaizto bat aren kontra,
aren eskuian egongo dan salataria;
7. auzitik galdu-ta atera bedi
aren aldekoak ez dezala asmatu;

8. gutxi izan ditezela aren egunak,
eta artu dezala beste batek aren egitekoa;
9. geldi ditezela umezurtz aren semeak,
eta alargun aren emaztea;
10. aren semeak dabilzala eskean, batera ta bestera,
eta limosna-eske, etxe eroritik bidalduta;

- 108 - II

11. Dollorra egin dedilla aren ondasunen jabe,
arrotzak bil dezatela aren izerdia;
12. iñork ez dezaiola errukirik izan,
eta iñor ez dedilla aren umezurtzakin urrikaldu;
13. aren jatorria suntsitua izan dedilla,
eta aren abizena gizaldi batean galdu;
14. Jaunak gogora ditzala aren aitaren erruak;
eta ez ditzala garbitu amaren pekatuak;
15. beti gogoan euki ditzala Jaunak,
eta ken dezala lurretik aren oroipena.
16. Ez bait-zitzaion gogoratu erruki egitea,
aurrean erabili bait-zituan beartsua ta lagunik-gabea,
eta atsekabetua, eriotza emateko;
17. Gaitzespena maite izan zuan; betorkio gañera
etzuan nai izan onespelik; bego argandik urruti;
18. Biraoa jazten zuan, soñeko,
sar bekio ura bezela erraietaraño,
olioa bezela, ezur-mugetaraño;
19. estaltzeko jantzi izan dezala,
beti lotuko duan gerrikoa.

- 108 - III

20. Orrela ordaindu dezaiela Jaunak ni salatzen nautenai,
nere kontra gezur-beltza diotenai.
21. Baño, Zuk, Jauna, ar nazazu ni ondo, zure izenarengatik,
onik atera nazazu, zure erruki bigunarengatik;
22. ni beartsu ezerez bat naiz-ta,
biotza zaurituta daramat barruan;
23. Luzatzen dan itzala bezela nijoa,
larrapota bezela astintzen naute;
24. barauaren-barauz, belaunak okertu egiten zaizkit,
argal eta ezurruts gelditu naiz;
25. aiek ixeka egiten didate,
ni ikusita, buruari eragiten diote.
26. Lagun zakizkit, nere Jaungoiko Jauna,
zure onginaiarengatik salba nazazu.
27. Jakin bezate zure eskua emen dagola,
Zu zerala, Jauna, au egin dezuna.
28. Aiek birao dezatela; Zuk bedeinka nazazu,
utsegin dezatela nere etsaiak; bitartean zure morroia poztu;
29. itxukeriz bete ditezela, ni salatzen nautenak;
lotsagorriak bil ditzala, soingañeko batek bezela.
30. Nik, oju aundiz eskerrak emango dizkiot Jaunari,
gizataldearen erdian goratuko det;
31. beartsuaren eskuian jarri bait-zan,
aren bizia epailleetatik salbatzeko.

ANT.

*Etzaitze ixilik egon, nere Jaungoiko;
gorroto-itzez inguratzen naute.*

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

BEZPERAK — AD VESPERAS

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Bedeinkatua Jauna, nere gaztelua ta salbatzallea!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 143 -

1. Bedeinkatua Jauna, nere Arkaitza,
nere eskuak gudarako,
ta nere beatzak horrokarako ezitzen dizkidana;
2. nere ongille, nere gaztelu,
nere bizia gordetzen dedan babesleku,
erriak mendean jartzen dizkidan,
nere babeskiñ eta gordeleku.
3. Jauna, zer da gizona, Zuk aintzat ar dezazun?
zer dira Adan'en semeak zuk gogora ditzazun?
4. Gizona aize-aldi bat bezela da;
bere egunak, igesi dijoan itzala.
5. Jauna, makurtu ezazu zure zerua ta jetxi zaitez,
ikutu itzazu mendiak eta ketan asiko dira,
6. bota ezazu tximista ta sakabanatu itzazu,
erausi zure geziak, eta ondatu.
7. Luza ezazu eskua goitik:
babestu nazazu, atera nazazu ur aundietatik,
erbestekoen eskutik,

8. gezurra bait-da aien agoa,
gezurrez egiten bait-du ziñ aien eskuia.

ANT.

Bedeinkatua Jauna, nere gaztelua ta salbatzallea!

ANTIFONA 2

Zorionekoa, bere Jaungoiko Jauna duan erria!

- 143 - II

9. Kanta berri bat abestuko dizut, nere Jaungoiko,
amar ariko arpa joko det zuretzat;
10. erregeai garaipena eman,
eta zure morroi Dabid salbatzen dezun orrentzat.
11. Zaitu nazazu ezpata-galgarritik.
Salba nazazu arrotzen eskuetatik:
gezurtia bait-da aien agoa,
gezurrez ziñ egiten bait-du aien eskuia.
12. Gure semeak zugazti bitez,
gaztetatikan aziak;
gure alabak zuntói landu bitez,
jauretxe baten euskarriak.
13. Gure mandioak, beude,
era guztietako uztaz beterik,
gure artaldeak millaka,
ugaritu bitez gure zelaietan,
14. eta gure idiak datozela zamaturik;
ez bedi ez artezirik, ez zulorik,
ez bildurrik gure enparantzetan.

15. Zoriontsua au duan errial!
zoriontsua bere Jaungoiko Jauna duan errial!

ANT.

Zorionekoa, bere Jaungoiko Jauna duan errial!

ANTIFONA 3

Aundi da Jauna, guztiz goragarri; Aren aunditasuna ez diteke neurri.

- 144 -

1. Goratuko zaitut, nere Jaungoiko, nere Errege, bedeinkatuko det zure izena betiere.
2. Egunik-egun bedeinkatuko zaitut, eta beti-ta-beti goratuko det zure izena.
3. Jauna aundia da ta gorespen guztia dagokio, neurri-eziña da bere aunditasuna.
4. Gizaldi batek besteari goraitpatzen dizkio zure lanak, eta zure arrigarriak azaldu.
5. Aiek zure aundiaren aintza ospatzen dute, eta nik zure mirariak aitatu bein-da-berriz;
6. Aiek zure egite bikañak aitatzten dituzte, eta nik zure aintza aundiak azaldu.
7. Aiek zure onginairenen onespina zabaltzen dute, eta zure garaipenak goraldtu.

ANT.

Aundi da Jauna, guztiz goragarri; Aren aunditasuna ez diteke neurri.

ANTIFONA 4

Ona da Jauna guztientzat; maitakorra Berak egindakoentzat.

- 144 - II

8. Jauna biotz-biguna da ta errukiorra, asarrerako nagia ta errukiz aberatsa;
9. Jauna ona da guztientzat, maitekorra bere izaki guztientzat;
10. Eman dezaizkitzutela eskerrak izaki guztiak, bedeinka zaitzatela zure leialak;
11. otsegin dezatela zure erregetzaren aundia, esan ditzatela zure egintza arrigarriak;
12. gizonai zure egite bikañak jakiñeraziaz, zure erregetzaren aintza ta aunditasuna.
13. Zure erregetza betiko erregetza da, gizaldiz-gizaldi irauten du zure aginteak.

ANT.

Ona da Jauna guztientzat; maitakorra Berak egindakoentzat.

ANTIFONA 5

Leiala da Jauna bere itz guztietan; ona bere egintzetan.

- 144 - III

Leiala da Jauna bere itz guztietan; ona bere egintzetan.

14. Jaunak eutsi egiten die eror-zorian dauden guztiai, zuzendu egiten ditu okertzen diranak.

15. Guztien begiak zuri begira daude,
janaria ematen diezu garai egokian;
16. Zuk eskua zabaldu,
eta bizidun guztiak mesedez betetzen dituzu.
17. Jauna zuzena da bere bide guztietan,
" biotz-onekoa bere egite guztietan;
18. dei egiten diotenengandik gertu dago Jauna,
benetan dei egiten diotenengandik.
19. Bere zintzoen naiak bete egiten ditu,
aien deadarrak entzun eta salbatu.
20. Maite duten guztiak gorde egiten ditu Jaunak,
gaiztoak, berriz, ondatu.
21. Nere agoak esan bitza Jaunaren gorespenak;
bedeinka beza bizidun guztiak Aren izen santua,
beti-ta-beti.

ANT.

Leiala da Jauna bere itz guztietan; ona bere egintzetan.

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Magnificat

ANTIFONA

*Bere morroi Israel'i laguntza eman dio; -ala itz-eman bait-
-zien gure gurasoi - Abraan'i ta onen ondorengoai betiko.*

Nere animak Jaunaren aunditasuna goستن du... (55 orr.)

ARRATSEKO OTOITZA - AD COMPLETORIUM

ANTIFONA

Pazko-aldian ezik:

Iritxi bedi zureganaño nere eskabidea, Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

- 87 -

2. Ene Jaungoiko Jauna, laguntza-eske naukazu egunez,
gauaz zure aurrean deadarka;
3. iritxi bedi Zuganaño nere eskabidea,
makurtu ezazu nere ojura zure belarria.
4. Nere anima zoritxarrez beterik dago,
nere bizia, berriz, Leizaren ertzean;
5. zulora dijoazenen artean zenbatzen naute,
elbarri bat bezela naiz,
6. ildakoen artean daukat nere oea,
illobian dauden eroriak bezela;
ez dezu aien oroipenik gordetzen,
zure eskutik erautziak izan bait-ziran.
7. Zuloan, sakon-sakonean ipiñi nauzu,
ondoeneko illunpetan.
8. Zure asarrea gañean daukat,
gañera bota dizkidazu zure olatu guztiak;

9. Nere ezagunak urrutiratu egin dizkidazu neregandik, aientzat nazkagarri biurtu nauzu; itxita nago, ezin naiz irten, eta begiak illundu egiten zaizkit samíñez.
10. Egun guztian zuri deika ari naiz, eskuak Zuregana luzaturik.
11. Ille alde miraririk egingo ote dezu? itzalak altxako ote dira Zuri eskerrak emateko?
12. Illobian otsegingo ote da zure errukia? edo ta, eriotz-erreiñuan zure leialtasuna?
13. Illunpean ezagutzen ote dira zure mirariak? edo ta, zure zuzentasuna otoitz-ezaren lurraldean?
14. Baño, nik laguntza eskatzen dizut, zure billa joango da goizean nere eskabidea.
15. Jauna, zergatik zapuzten nauzu, eta aurpegia ezkututzen didazu?
16. Zoritzarrekoa ta mintsua izan naiz umetandik Zuganako bildur-ikarapean makurtuta nago,
17. gañean ibillia det zure sua, zure bildur-ikarak igarturik nauka,
18. urak bezela inguraturik, egun osoan, guztiak batera inguraturik.
19. Urrutira eraman zenizkidan nere adiskideak eta lagunak; illunpeak ditut lagunarte.

- 102 -

1. Bedeinka ezazu Jauna, nere anima, eta naizen guztiak Aren izen santua.
2. Bedeinka ezazu Jauna, nere anima, eta ez aztu Aren ontarteak.

3. Ark barkatzen ditu zure erru guztiak, eta zure gaitz guztiak sendatu;
4. Ark askatzen du illobitik zure bizia, eta graziz eta errukiz betetzen zaitu;
5. ondasunez asetzen ditu zure nai biziak, eta arranoa bezela berritzen da zure gaztetasuna.
6. Jaunak zuzenbide egiten du; eta zapalduta dauden guztien alde ateratzen da.
7. Ark erakutsi zizkion bere bideak Moises'i, eta bere egite bikañak Israel'go semeai.
8. Jauna biotzpera da ta errukiorra, asarrerako nagia ta barkamenean aberatsa;
9. ez da beti salatzen ari, ez du gordetzen betiko asarrerik
10. Ez gaitu artzen gure pekatuak merezi-bezela, ez digu ordaintzen gure erruai dagokien bezela,
11. Zerua lurretik bezin goi; ala dago zure onginaia zure zintzoen gañetik,
12. sartaldetik sortaldea bezin urruti; ala urrutiratzen ditu gure erruak guregandik.

- 102 - II

13. Aita bere semeentzat biotz-xamur dan bezela; Jauna ere biotz-xamur da bere zintzoentzat;
14. Ezagutzen bait-du gure oreá, gogoan dauka lokatza gerala.
15. Gizonaren egunak belarrak ainbeste irauten dute, zelaiko lorea bezela loratzen dira;
16. aizeak ikututxo bat eman, eta ezereztu egiten da, bere lurak ez du berriz ikusiko.

17. Jaunaren errukiak, ordea, beti irauten du,
Aren zuzentasuna semeengandik billobetara igarotzen da;
18. alkartea gordetzen dutenentzat,
eta Aren aginduak esan eta betetzen dituztenentzat.
19. Jaunak zeruan ipiñi zuan bere aulkia,
bere erregetzak zaitzen du izadia.
20. Bedeinka ezazute Jauna, Aren aingeruak:
Aren agindu-egille altsuak,
Aren esanerako leiatsuak.
21. Bedeinka ezazute Jauna, Aren gudari-taldeak,
Aren naia betetzen dezuten serbitzalleak.
22. Bedeinka ezazute Jauna, Ark egindako guztiak,
Aren menpeko toki guztietan.

Bedeinka ezazu Jauna, nere animala!

ANTIFONA 1

Pazko-aldian ezik:

Iritxi bedi zureganaño nere eskabidea, Jauna!

Pazko-aldian:

Aleluia, aleluia, aleluia.

Simeon'en abestia. "Nunc dimittis"

ANTIFONA

Jauna: Salba gaitzazu...

Orain, Jauna, Zuk itzeman bezela... (58 orr.)

OARRAK

- 1 1 Bi bide azaltzen ditu: bide zuzena, zintzoena; ta bide okerra, gaiztoena.
- 2 1 Salmu au Mesias'i buruzkoa da. Gabonetako elizkizunetan erabiltzen da.
- 2 7 Jaungoikoak Mesias'i "nere Seme" deitzen dio.
- 2 12 Ebreetarrez: "eta ikaratu, dar-dar; muñ eman semeari".
- 4 3 Griegoz: "biotz-motelak"; ebreez: "nere aintza bazartua da".
- 4 7 Griegoz eta Vulgata'k: "Zure aurpegiko argia guregan dago ezarrita". Kristaua Bataioaren bitartez "argiaren seme" egiten da. (Luk. 18, 8; Yon, 8, 12; Tes. 1.^a, 5, 5; Ef. 5, 8.)
- 6 5 "Nere anima": "ni" adierazten du askotan esaera orrek; baita "nere bizi", nere aintza" ta "nere aurpegia" esaerak ere.
- 6 8 Griegoz: "zartu egin naiz".
- 7 6 Itzez-itz: "nere anima". —Autsetan; illobiko autsetan.
- 7 12 Griegoz: "asarrerako geldia".
- 7 18 Izenarentzat jo: soñuren bat jo: arizkoa (arpa, zitarra), naiz aizezkoa (turuta, adarra, txistua); edo-ta, zerbait kantatu, soñua lagun dala (emen, eresi edo salmuak).
- 8 3 Kristo'k esan zituan itz auek (Mat., 2, 16; eta Elizak Ume Errugabeen egunean.
- 8 9 Gizona izadiaren errege da, ta arentzat egin zituan Jaungoikoak abere, arrai eta gañerako guztiak.

- 9 14 Ebreoz: "neri gorroto didatenengatik" dakar gañera.
- 10 1 Txoria zintzoaren irudi (55, 7; 91, 3; 124, 7). Mendia gordeleku da. (Mat. 24, 16.)
- 10 7 Gizonak ezin dezake Jaungoikoaren aurpegia ikusi; eta esatera orrek "Jaungoikoaren aurrean egon" adierazten du, morroiak biotz-oneko nagusiaren aurrean bezela.
- 11 7 Lur azaleko zillarrak ez du garbitu-bearrik, zillar utsa da-ta. Orrelaxe Jaungoikoaren itza ere.
- 12 6 Ebreozkoak eta Vulgata'k beste au dakarte gañera. "kanta dezadan nik Jaungoiko Gorengoaren izena".
- 13 5 Griegoz: "ikaragarri danik ez dagon lekuan".
- 16 15 Goiza: Jaungoikoa bere graziak ematen dituan garai egokia. — *Eguntsentiak* eta *argiak* onik ateratzea adierazten dute; *gauak* eta *illunak*, berriz, larrialdia ta estualdia emen.
- 17 3 Jaungoikoari "arkaitz" esaten zaio askotan salmuetan, bere zintzoen gaztelu gogorra dala adierazteko. — "Adarrak" indarra adierazten du.
- 17 5 Olatuak: ebreoz, sareak. — Urak, arrisku galgarria adierazten dute.
- 19 7 Igurtzitakoa: "Mesias" ebreoz; "Kristo" griegoz; Israel'go errege da.
- 20 10 Auzia egitera etortzen zeranean.
- 21 27 "Aien biotza" griegoz; "zuen biotza" ebreoz.
- 21 28 "Aren aurrean": "zure aurrean" ebreoz.
- 26 5 "Txabola": Jerusalem'go jauretzea.
- 28 1 Jaungoikoaren semeak; aingeru onak. — Griegoz eta Vulgata'k ondoren: "Ekarri izkiozute Jaungoikoari adarrak".
- 28 6 Saron: Libano'ren izena didonioz.
- 33 11 "Aberatsak" griegoz; "leoiak" ebreoz.
- 34 21 Egin ez duan gaiztakeriren bat leporatzen diote.
- 35 10 "Iturri bizia": jakituria ta Jaungoikoaren bildurra.
- 40 8 Gaitza pekatuaren zigor bezela artzen da. (Ikus 37, 4; 106, 17.)
- 40 10 Judas'i buruz esan zuan ori Jesus'ek.

- 41 5 Jaungoikoaren aurpegia ikusi; emen esan nai du: Jerusalem'go jauretxeari ikustaldia egin.
- 41 5 Jerusalem'go jauretjera urtero joaten ziran israeldar zintzoak.
- 42 4 Griegoz: "nere gaztetasuna poztutzen duan Jaungoikoarengana".
- 43 20 "Txakurtegira": edo-ta, basamortura; judutarrak erasoaldietan iges egiten zuten tokia.
- 47 3 Mendi Santua: Sion-mendia; an zegon Israel'go erregearen etxea; baita jauretzea ere.
- 47 8 Tarsis'ko itxasontziak: Tarsis'eraño joaten ziran itxason-tzi aundiak.
- 47 12 Juda'ko erriak; inguruko erriak.
- 54 16 Bat-bateko eriotza gaiztoaren zigorra da. (Ikus 73, 19; 102, 5; Is. 38, 10; Jer. 17, 11; Job 15, 32.)
- 55 5 Jaungoikoaren itza bere agintzaria da; zintzoak agintzari ortan du usteon. (106, 12; 119, 42; 65; 130, 5.)
- 56 6 Zintzoak Jaungoikoaren erreña agertzea nai du, zapaltzallengandik askatu dedin.
- 58 7 Sartaldeko errietan txakur-pillak ibiltzen ziran aruntzonuntz.
- 64 9 Ate oiek urrutiko lurraldeak dira.
- 65 6 Itxaso Corritik eta Jordandik igarotzea.
- 66 4 Lurtar guztiari egin die dei Jaungoikoak Bera bakarrik gurtzeko; baita zeruratzeko ere.
- 67 15 Mendi Itzaltsua: Sikam-ondoko mendia, zugaitzez betea.
- 67 16 Sion-mendia: Jaungoikoak lurrean bizileku aukeratua.
- 67 18 Erregeen aldiko garaipenak.
- 67 31 Ejito'ri buruz dio ori.
- 71 7 Mesias'en aldiak betiko iraungo du.
- 72 26 Jaungoikoak ala nai-ta.
- 73 9 70 urteko erbestea iragarri zuan aurrez Jeremias'ek; 70 urte auek erbestea luzea izango zala esan nai dute.
- 73 4 Itxaso Corritik igarotzea, eta ejitotarren ondamentia.
- 73 15 Irteera'ko mirariak. (Ex. 17, 1-7; Num. 20, 2-3; eta Jordan igarotzea.

- 73 19 Usoa: Israel'en irudia.
 77 11 Irteera'ko mirariak.
 77 43 Ejito'ko zigorrak. —Ejito'tik irtetzea ta Kanaan'en sartzeta.
 77 61 Alkartasun-kutxa.
 79 3 Efraim eta Manases dira Iparraldeko jatorriak nagusienak.
 79 12 Ibai Aundia: Eufrates-ibaia.
 80 4 Urtearen lenengo illebetea ospatzen zan Txabola-jaiak, jairik pozgarriena.
 80 7 Ejito'ko lan galgarriak.
 83 10 Igurtzitakoa: emen apaiz nagusia.
 84 10 Jaungoikoaren aintza Jauretsera etorriko da berriro, erbeste-ondoren.
 86 6 Israel'go bizilagunen izen-zerrenda, noski. Izena ematen duten jentillak Israel'go bizilagun egiten dira.
 88 11 Erraab: itxas-piztitar baten izena.
 89 12 Giza-ezereza ezagutzetik dator jakituria, Jaungoikoaren bildur santua.
 92 2 Zerua da Jaungoikoaren jauregia.
 93 17 Ixil-tokian: *Xeol'en*, leizean, inpernuan.
 94 8 Meriba'k "eztabaida" adierazten du; Masa'k "zirikal-dia".
 96 8 Lurralde artako erriak.
 98 6 Moises eta Aaron: bitarteko aundiak. (Ex. 32, 11; Num. 17, 11; Sal. 100, 23.)
 100 2 Mesias'en etorrerari buruz, aurean.
 100 8 Goiza da Jaungoikoaren graziaren garai egokia; baita zuzentasunarena ere.
 103 30 Jaungoikoaren espirituak eskuartzan du izatean eta bizi-tzan.
 106 7 Kanaan da, noski, aurrelari ori.
 108 1 Zintzoa gezur-beltzez salatu dute ta Jaungoikoarengana jotzen du zuzentasun eske
 108 6 "Gaiztoa" deabrua da.

- 109 1 Kristo Aitaren eskualdean dago eserita. (Errom. 8, 34; Ebr. 10, 42; I Ped. 3, 22.)
 109 7 Kristo'ri dagokio. Fil. 2, 7-11.)
 110 5 Mana'ren miraria.
 115 13 Eskerrak ematea. (Kor. I, 10, 16.)
 117 23 Jauretsera berriztatua izan da.
 117 24 Pazko-egunez esaten da ori elizkizunetan.
 117 26 Santus-aldian esaten da Mezetan.
 119 5 Masak, Kaukaso'ko erria; Kedar'tarrak Siria'ko basamortuan bizi ziran. Basatiak ziran bi erriak.
 125 4 Negeb'eko erreka agortu egiten ziran; baño, neguan bat-batetan bete, eta lurra ezetzen dute.
 128 1 Gaztetandik; Ejito'ko egonalditik.
 131 6 *Kutxa* Efrata'n zegola entzun genduan.
 131 7 Jaungoikoaren etxea.
 131 10 Jaungoikoaren Igurtzia: Kristo, Mesias.
 131 17 Mesias da errien argi-ontzia.
 136 7 Kaldeotarrak Jerusalem artu zutenean (Jesukristo baño lenagoko 587 urtean), edomitarrak Israel'en etsaiakin alkartu ziran.
 141 5 Eskualdea zaitzallearen tokia da.

INDEX PSALMORUM NUMERICUS

SALMU BAKOITZA NUN

Salmaa

| | | |
|-----|-----------------------------------------------------|-----|
| 1) | Zorionsua gizonen asmoai jarraitzen ez dien gizona | 9 |
| 2) | Zer dabiltza atzerriak zalapartan | 10 |
| 3) | Jauna, nere etsaiak bai dirala ugariak | 11 |
| 4) | Entzun idazu, Jaungoiko | 56 |
| 5) | Entzun, Jauna, nere itzak | 75 |
| 6) | Ez idazu erritik egin, Jauna, zure asarrean | 102 |
| 7) | Nere Jaungoiko Jauna | 103 |
| 8) | Jauna, gure jabea | 12 |
| 9) | Biotz-biotzez ematen dizkitzut eskerrak | 13 |
| 10) | Jauna det babes | 18 |
| 11) | Salba gaitzazu, Jauna | 144 |
| 12) | Noiz arte egongo zera, Jauna | 145 |
| 13) | Ala dio zoroak berekiko: "Ez da Jaungoikorik" | 62 |
| 14) | Jaungoiko, nor biziko da | 63 |
| 15) | Zaitu nazazu, nere Jaungoiko | 145 |
| 16) | Entzun ezazu, Jauna | 63 |
| 17) | Maite zaitut, Jauna | 65 |
| 18) | Zeruak Jaungoikoaren aintza otsegiten dute | 84 |
| 19) | Entzun dezaizula Jaunak | 70 |
| 20) | Jauna, zure indarrarengatik | 71 |
| 21) | Nere Jaungoiko, nere Jaungoiko | 266 |
| 22) | Jauna det artzai | 219 |
| 23) | Jaunarena da lurra | 83 |
| 24) | Zuregana jasotzen det, Jauna, nere anima | 127 |
| 25) | Egidazu auzi zuzen, Jauna | 169 |

Orrial.

| Salmua | Orrial. |
|--------------------------------------------------------|---------|
| 26) Jauna det argi ta osasun | 86 |
| 27) Zuri egiten dizut dei, Jauna | 88 |
| 28) Gora ezazute Jauna | 77 |
| 29) Coratu egingo zaitut, Jauna | 72 |
| 30) Zure babesera nator, Jauna | 90 |
| 31) Zoriontsua bere errua barkatu-ta daukana | 93 |
| 32) Gora ezazute Jauna, zintzoak | 94 |
| 33) Une guztietan bedeinkatzen zaitut, Jauna | 191 |
| 34) Borrokatu zaitez, Jauna | 106 |
| 35) Gaiztoak biotz-barruan | 210 |
| 36) Ez sumindu gaiztoengatik | 109 |
| 37) Ez idazu erriatik egin, Jauna, zure asarrean | 113 |
| 38) Auxe nion nerekiko: zaituko det | 115 |
| 39) Ni Jaunaren zai-zai nengon | 130 |
| 40) Zoriontsua aularen eta beartsuaren | 133 |
| 41) Basauntza ur bizien billa bezela | 134 |
| 42) Egidazu zuzenbide | 118 |
| 43) Jaungoiko! gure belarriak entzun zuten | 136 |
| 44) Olerki eder bat dario nere biotzak | 148 |
| 45) Jaungoikoa degu babesleku | 150 |
| 46) Jo txaloak, erri guztiok | 74 |
| 47) Aundia da Jauna | 151 |
| 48) Entzun au, erri guztiak | 152 |
| 49) Jainkoen Jaungoikoa, Jauna | 154 |
| 50) Izazu nitzaz kupida | 28 |
| 51) Zergatik arrotzen zera gaiztakeriarengatik | 170 |
| 52) Zoroak ala dio berekiko | 171 |
| 53) Jaungoiko, salba nazazu | 173 |
| 54) Ene Jaungoiko, aditu zazu | 174 |
| 55) Erruki zakizkit, nere Jaungoiko | 177 |
| 56) Erruki, ene Jaungoiko, erruki | 178 |
| 57) Egia al da, aundizkiok | 179 |
| 58) Atera nazazu, ene Jaungoiko | 181 |
| 59) Aurka egin diguzu, Jauna | 183 |
| 60) Entzun zaidazu, Jauna, nere deadarra | 193 |
| 61) Jaungoikoagan bakarrik du atsedean | 196 |
| 62) Jaungoiko, zu zera nere Jaungoiko | 22 |
| 63) Entzun ezazu, Jaungoiko, nere negar-otsa | 309 |
| 64) Zuri zor zaizu, Jaungoiko orri | 160 |
| 65) Gora ezazute Jauna, lur osoa | 197 |

| Salmua | Orrial. |
|-----------------------------------------------------------------|---------|
| 66) Erruki bezaigu Jauna | 119 |
| 67) Jaungoikoa zutitu ta | 199 |
| 68) Onik atera nauzu, nere Jaungoiko | 203 |
| 69) Nere Jaungoiko, arren, aska nazazu | 237 |
| 70) Zuregana natorkizu, Jauna | 238 |
| 71) Nere Jaungoiko, emaiozu zure auzibidea | 220 |
| 72) Bai dala ona Jaungoikoa | 222 |
| 73) Zergatik gauzkazu, Jauna, baztatu-ta | 225 |
| 74) Eskerrak ematen dizkitzugu, Jauna | 228 |
| 75) Jaungoikoa Juda'n agertzen da | 229 |
| 76) Jaungoikoarengana jasotzen det | 288 |
| 77) Entzun ezazu, nere erri | 242 |
| 78) Nere Jaungoiko, atzerritarrak zure sallean | 249 |
| 79) Entzun, Israel'en artzai | 270 |
| 80) Gora ezazute ojuka Jaungoikoa | 251 |
| 81) Jaungoikoa zutitu da, zeruko batzarrean | 272 |
| 82) Jauna, ez egon ixilik | 252 |
| 83) Bai dirala maitagarriak zure bizitokiak | 273 |
| 84) Ona izan zera, Jauna | 257 |
| 85) Makur ezazu, Jauna, zure belarria | 290 |
| 86) Berak oñarritu du mendi santuan | 274 |
| 87) Ene Jaungoiko Jauna, laguntza-eske naukazu | 339 |
| 88) Jaunaren errukiak kantatuko ditut | 276 |
| 89) Zu izan zera, Jauna, gure babesleku | 209 |
| 90) Goi-goikoaren babespean zauden orrek | 57 |
| 91) On da Jaunari eskerrak ematea | 308 |
| 92) Jauna det errege, aunditasunez jantzia | 21 |
| 93) Mendekuaren Jauna | 320 |
| 94) Zatozte, gora dezagun Jauna | 7 |
| 95) Abestu zaiozute Jaunari kanta berria | 117 |
| 96) Jauna da errege, lurra pozez dago | 159 |
| 97) Abestu zaiozute Jaunari kanta berri bat | 208 |
| 98) Jauna da errege; bildur bitez atzerriak | 254 |
| 99) Gora ezazute Jauna, lur osoa | 22 |
| 100) Onginaia ta zuzentasuna abestu bear ditut | 162 |
| 101) Jauna, entzun ezazu nere otoitza | 324 |
| 102) Bedeinka ezazu Jauna, nere anima, eta naizen guztiak | 340 |
| 103) Bedeinka ezazu, Jauna, nere anima; nere Jaungoiko | 327 |
| 104) Emaizkiozute eskerrak Jaunari, egin dei | 294 |
| 105) Emaizkiozute eskerrak Jaunari, ona da-ta | 298 |

| <u>Salmua</u> | <u>Orrial.</u> |
|-----------------------------------------------------|----------------|
| 106) Emaizkiozute eskerrak Jaunari, ona da-ta | 302 |
| 107) Sendo daukat biotza, nere Jaungoiko | 322 |
| 108) Etzaitetz ixilik egon, Jauna | 331 |
| 109) Jaunak nere Jaunari esana | 49 |
| 110) Biotz-biotzez ematen dizkiot eskerrak | 50 |
| 111) Zoriontsu Jaunaren bilçur dana | 51 |
| 112) Gora ezazute, Jaunaren morroiak | 52 |
| 113) Israel Ejito'tik irten zanean | 53 |
| 114) Maite det Jauna | 97 |
| 115) "Ni bai zoritxarrekoa" esan nuanarren | 98 |
| 116) Gora ezazute Jauna, atzerri guztiak | 78 |
| 117) Emaizkiozute eskerrak Jaunari | 31 |
| 118) Bai zoriontsua bizitza errugabea | 34 |
| 119) Nik larrialdian Jaunari dei egin nion | 99 |
| 120) Nere begiak mendietara jaso ditut | 100 |
| 121) Ura poza nere... .. | 100 |
| 122) Zuregana jasotzen ditut nere begiak | 139 |
| 123) Jauna gure alde izan ez ba'genu | 140 |
| 124) Jaunarengan usteon dutenak | 141 |
| 125) Jaunak Sion'en zoria aldatu zuanean | 141 |
| 126) Etxea Jaunak egiten ez ba'du | 142 |
| 127) Zoriontsua Jaunari bildur diona | 185 |
| 128) Zenbat eraso didaten gaztetandikan | 186 |
| 129) Barren-barrendik egiten dituz dei | 187 |
| 130) Jauna, nere biotza ez da aundizale | 187 |
| 131) Jauna, artu izkiozu gogoan Dabid'i | 188 |
| 132) Ikusi nolako atsegiña, nolako gozamena | 231 |
| 133) Eta orain bedeinka ezazute Jauna | 58 |
| 134) Goratu ezazute Jaunaren izena | 121 |
| 135) Emaizkiozute eskerrak Jaunari, ona da-ta | 232 |
| 136) Babiloni'ko urbide-ondoetan | 234 |
| 137) Biotz-biotzez ematen dizkituz eskerrak | 235 |
| 138) Zuk aztertzen nauzu, Jauna | 281 |
| 139) Jauna, libra nazazu gaitoengandik | 284 |
| 140) Deika nagokizu, Jauna | 285 |
| 141) Deadarka ari naiz, Jaunari deika | 286 |
| 142) Entzun, Jauna, nere otoitza | 255 |
| 143) Bedeinkatua Jauna, nere Arkaitza | 334 |
| 144) Goratuko zaitut, nere Jaungoiko | 336 |
| 145) Gora ezazu Jauna, nere anima | 164 |

| <u>Salmua</u> | <u>Orrial.</u> |
|--------------------------------------------------|----------------|
| 146) Gora ezazute Jauna; ona bait-da soñua | 213 |
| 147) Jerusalem, ospa ezazu Jauna | 260 |
| 148) Gora ezazute Jauna zeruan | 25 |
| 149) Abestu iozute Jaunari kanta berria | 307 |
| 150) Gora ezazute Jauna, bere jauretxean | 312 |

A B E S T I A K

| | |
|-----------------------------------------------------------------------|-----|
| Moises'ena.—Jaunari abestuko diot, aundia da bere garaitza | 216 |
| Moises'ena II.—Entzun, zeruak, eta mintzatuko naiz | 314 |
| Ana'rena.—Poz-atsegiñetan daukat biotza | 167 |
| Dabid'ena.—Bedeinkatua zera Jauna | 78 |
| Tobias'ena.—Bedeinkatua izan bedi betierean bizi dan Jaungoikoa | 120 |
| Judit'ena.—Kanta berri bat abestuko diot Jaunari ... | 163 |
| Ikastuna'rena (Eccli).—Salba gaitzazu, izadiaren Jaungoiko | 310 |
| Isaias'ena.—Eskerrak ematen dizkituz, Jauna | 81 |
| Ezekias'ena.—Auxe esan nuan nerekiko: | 125 |
| Isaias'ena II.—Egia: Jaungoiko ezkutua zera Zu ... | 253 |
| Jeremias'ena.—Entzun, erriak, Jaunaren itza | 212 |
| Iru gazteena.—Jaunaren izaki guztiak, bedeinka ezazute Jauna | 24 |
| Abakuk'ena.—Zure izen ospatsua entzun det, Jauna | 263 |
| Magnificat.—Nere animak Jaunaren aunditasuna gorosten du | 55 |
| Benedictus.—Bedeinkatua Israel'go Jaungoiko Jauna ... | 26 |
| Simeon'en abestia "Nunc dimittis" | 58 |
| Daniel'en abestia.—Bedeinkatua zera Zu, Jauna | 30 |
| Te Deum.—Zu Jaungoiko goratzen zaitugu | 19 |

SALMU BAKOITZA
NOIZKO TA ZERTARAKO DAN EGOKIA

(Zenbakiak salmu bakoitzari dagozkionak dira)

JAIEGUN ETA LITURJI-ARO:

- Mesias'i dagozkionak: 2-44-71-88-109-117-131.
Abenduari: 23-84-95-97.
Parusiari (Azken-ctorrerari): 10-57-74-81-93-95-97.
Eguberriari: 2-84-101-102-109.
Erregenari: 23-44-71-79-92-97-131.
Nekaldiari: 21-30-34-39-54-68-87.
Piztuerari: 44-56-67-103-113-114-117-125-135.
Igoerari: 46-56-67.
Pentekosteri: 28-45-47-98-103-118-145.
Elizari: 66-83-86-121-132-146-147.
Jauretxeari: Erromes: 67-83-121.
Ibildeun: 67-99.
Sarrera: 14-23-94.
Jauretxe-barruan: 45-47-56-62-120-131.
Sakramentuari: 4-22-61-103.
Onespenari: 66-117-135.
Goizerako: 5-62-89-102-142.
Gaberako: 3-4-90-133-140.

GORAPENARI:

Guztirakoak: 32-46-66-91-112-116-133-134-144-145-146-148-149-159.

Izadiarengatik: 8-18-28-64-76-92-103-148.

Kondairarengatik: 75-80-104-106.

Legearengatik: 18-118.

Jaungoiko Erregeri: 46-92-95-96-97-98.

ESKABIDEARI:

Caxotasunean: 6-37-87-101.

Eriotzan: 38-87-89-142.

Bakarraldian: 21.

Bidegabeko salaketan: 5-7-16-25-34-58-68-108.

Cezur eta kalumni-pean: 11-27-119.

Erasoaldian: 6-9b-12-34-42-53-54-55-63-69-85-139-141.

Erbestean: 41-42-78-79-125-136.

Erriarentzat: Geratean eta pake-aldian: 19-20-43-59-73-76-79-82-88-146.

Uzta on ta erosotasun-eske: 64-147.

Agintarientzat: 19-20-88-100-143.

Aita Santuarentzat, gotzaintzat eta apaizentzat: 19-20-60-71-131.

Senitartekoentzat: 126-127-132-143.

USTEONARI:

3-4-9-10-15-22-26-30-35-38-45-55-56-61-62-70-84-90-102-107-113b-120-122-124-130.

ESKERRONARI:

Cuztitarakoak: 39-65-106-110-114-115-123-125-128-137.

Garaipen bategatik: 17-117.

Eriotzatic gordetzean: 29-40.

Pekatu-barkamenegatik: 31-102.

AITORKIZUNARI:

Jaungoikoak salatu: 49-51-52-94.

Azterketa: 14-23.

Aitorketa: 31-37-59-105-129.

GOGOETARI:

Legearekikoa: 1-118.

Onari ta gaiztoari dagokiena: 1-36-72-111.

Giza-biziarekikoa: 8-38-48-70-89-102-138.

Kondairarekikoa: 27-104-105.

ARKIBIDEA

| | |
|-----------------------------------------------------|-----|
| Salmudia | 5 |
| Igandea | 7 |
| Astelena | 61 |
| Asteartea | 105 |
| Asteazkena | 147 |
| Osteguna | 195 |
| Ostirala | 241 |
| Larunbata | 293 |
| Oarrak | 343 |
| Salmu bakoitza nun | 349 |
| Salmu bakoitza noizko ta zertarako dan egokia | 355 |